

IMMANUEL KANT

Prolegomenoak

Zientzia bezala agertu nahi duen
etorkizuneko edozein metafisikarentzat

HITZAURREA

Prolegomenoak, hitzak berak hala dio, prologo edo hitzaurrea dira beste testu bati: batez ere idazki zientifiko handiagoen aitzinsolasei ohi deritze horrela. Hemengo Kanten Prolegomeno hauek Arrazoimen hutsaren kritika-ren (KrV) irakurketa gogorrerako izan nahi dute sarbidea eta laguntza: § 1etik hasita, testuak behin eta berriro aluditzen dio hari ezinbesteko erreferentzia legez, are § 36an "liburua" (artikulu zehatzarekin) eta Eranskinean "obra" hari deritzo, eskuarteko hau libururik edo obrarik izatera iritsiko ez balitz bezala bera. Alta E. Cassirerrek ("Kanten bizitza eta doktrina", 1918) izkribu hau kontsideratzen du egundo idatzitako sarrerarik argitsuena eta garbiena arrazoimenaren kritikako sisteman; Schopenhauerrek "ederrena eta ulergarriena" beroni zeritzon Kanten idazki nagusi guztien artean, haren "idortasun distiratsuen" maitalea genuela berau, aitortzekoa bada ere, seguruenik egungo irakurlea ez bezala (WWV I, Eranskina). Kant irakurtzea inoiz ez da olgeta bat izaten, eta ez inoizena bere "zeregin kritikoaren" pulamentazioko arrazoimen teorikoaren azterketa mehe neketsu hauetantxe. "Liburua" zaila atera bazitzaion, bada, Kantek bere filosofia kritikoaren azalpen zeharo berri bati modu ulergarrian ekin dio Prolegomenoetan, xede hori aski trebe konplutuz, egoki-zuzena baitzirudien hartara euskal irakurleentzat testu haxe aukeratzea gaur, akaso dibertigarria ez gehiegi, baina irakurgai errazgarri paregabea izango dugulakoan, kantismoaren barneratzen gu ere poliki-poliki abiatzeko.

Beste filosofo moderno batzuekin ere ikusitakoa dugu historian behin baino gehiagotan -Humerekin, adibidez, kolekzio honetan bertan-, nola gertatu zaien, obra handi bat idatzi, inork ez ulertu edo ez jaramonik egin, eta bigarren obra xumeago bat prestatu behar izan dutela, sortu berria zuten filosofia estrainioa publikoari ezagutzera emateko zailtasunengatik. Ezaguna da Kant lehorra omen dela, etab., baina lehorra ez da derrigor zaila. Nondik, bada, haren zailtasun horiek?

Esaten badiogu, Kantek hizkuntza barbaro batean idatzi dituela bere Kritikak, alemanez idatziz, euskal irakurlea zertxobait txunditu egingo da noski, seguru zegoen eta, barbaroa euskara bakarrik zela munduan. Alemana ere, ordea, barbaroa izan zaharra ez da. Immanuel Kant mutikoa, zortzi urterekin hasi eta beste zortzi urte, ibili den eskolan Königsbergen, Probintziako hiriburu handitxo batean beraz, Unibertsitatea ere bazeukanean, debekatuta zegoen haurrek eta irakasleek alemanez hitz egitea, txolina omen baita hizkuntza hori, eskola araudiko dekretuak zerizkionez, eta eskolaumeen formaziorako oztopoa eta kaltegarria. Hamasei urterekin Unibertsitatean hasi eta, ikasketak, lezioak, testuak, azterketak, denak latinez eduki ditu han. Literatura latinoaren ezagutzaille pijoa eta maitalea izango da Kant bere bizi guztian. Fase prekritikoan (berrogeita hamabost urteak pasa eta gero arte!) latinez argitara du hainbat idazki garrantzitsu. Alderantziz, Kantek badaki alemanez idazle iaioa eta zoragarria izaten (Goethek dio gela argitsu batean sartzea bezala dela Kanten orri bat irakurtzea) gai filosofiko teknikoetan espresatzeko problemak izan ditu beti. Leibnizek ere, Kanten aurretik, alemanez "txirlorak" bakarrik idatzi zituen: gai serioetarako latinaz eta frantsesaz baliatu da. Begiratzuz gero, Akademiaren argitalpenean, Kantek bere apunte pribatuak nola zirriborratzen zituen, erdi latinez erdi alemanez daudela ikusiko da: kontzeptu eta formulazio tekniko zailenak edo konprometituenak latinez beti. Alemana ez zegoen gaiotarako landuta eta irakurleak ere ez zeuden ohituta alemanez gai horietan. Horregatik Kantek, Leibnizen Teodizea eta Entseiu berriak (frants.) edo Wolffek tratatu

erraldoi ugariak ez bezala (lat.; irakaskuntza unibertsitarioan alemanaren erabilera entseatu duen lehena Wolff izan da halere), Arrazoimen hutsaren kritika alemanez publikatu duenean, nolanahiko kritikak egon dira, baina arruntena, hura "hizkuntza berria" dela (Garve) eta ez dela tutik ulertzen, izango da. Lossius izeneko erreseinari batek, euskalduna izan balitz bezalaxe, bere pena handia agertu du, Kantek halako lantzarra egin eta ez duelako egin latinez edo frantsesez, pertsona ikasi guztiek ezagutzen duten mintzaira (unibertsal!) batean: horrela, denek hobeto ulertuko omen zutela aparte, Alemaniaren prestigioa atzerrian pixka bat jasotzen lagundu izango zukeen... Egon da latinera itzuli duenik ere, hala hobeto ulertuko zuelakoan (eta Hamann -Königsbergeko Unibertsitatean kolega eta "etsaikidea"- asko dibertitzen zuen, Kantek berak latinez ezin ulertu omen zuelako, besteek alemanez ulertu ezin ziotena!). Alderantziz, Alexis Philonenkok, Kanten aldeze gartsua izaki beti, haren argitasunaren gorazarretan oraintxe ematen duen arrazoia da, perpausen egitura guztiz latinoa duela: "la structure toute latine de la phrase permet à la pensée de s'exprimer avec une incroyable précision". Kantek hizkera filosofiko alemana, hori egia da, latinaren antzera moldatu nahi ukan du (Hegel izan da erreakzioa, filosofiari "alemanez mintzarazi" nahiz). Beraz, Kant, tradizio akademiko eta bereziki prestalan filosofikorik gabeko aleman barbaroan, Berlingo Errege Ilustratuak berak halakotzat ikusi eta erdeinatuan, filosofiarako hizkera berri bat ari zen asmatzen, horren zailtasun guztiekin.

Halere, destainatu gabe alde hori, Kant irakurtzeko zailtasun printzipala -une hartan batik bat- asmatzen ari zen pentsamenduaren berritasunak sortzen zuen guztiz gain, bere termino bihurriek, alubioiko esaldiek edo anakoluto traidoreek baino areago. Pentsamenduaren historian Kant eten-eztanda eta hastapen berria da. Harekin periodo bat bukatu, berria hasi da - gureganainokoa, orain berriro krisian daukagun haxe: gu, jada, Kanten oinordekoak gara, azken aldion desheredatu samarrak ageri bagara ere. Frantziako Iraultzaren inguruan kokatu behar da Kant, beharbada iraultzaren esanahi horrekintxe ere bai. (Kuriositate sintomatiko bezala, Errenazimentutik Kantenganaino, filosofo handiak "diletanteak" dira denak ilaran bata bestearen ondoren: Descartes, Spinoza, Malebranche, Leibniz, Bayle, Locke, Berkeley, Hume, hau da, Unibertsitatetik landa bizi da --zientzia bezalaxe?-- filosofia; Erdi Aroaz gero Kant da berriro aurreneko irakasle unibertsitarioa filosofo handietan, haren ondoren "filosofo-irakasle" handien XIX. mendean sartzeko). Kant Moderniaren bigarren nabigazioa da. Baina 1781ean Arrazoimen hutsaren kritika agertu zenean, ideien komertzioan ustekabe agerturiko ontzigile eta ontzi berri hori ulertu ezin zuten marinelek eta itsaso zaharrak inguratzen zuten oraindik, lehenengo nabigazioko tripulazio jendeak: zertan datzan nabigazio berria, "zeregin kritikoa", kaskagor horiei klaru esplikatzeke, idatzi dira, hain zuzen, Prolegomenoak (1783).

Zeregin kritikoa

Kant biziluzea (1724-1804), garaiaren irudi bat egiteko, Mozart bizilaburraren garaikidea da (1756-1791), landu dituzten unibertso idealen konposatzaile handiak bi-biak, barrokoaren hurrengoak eta klasizistak bakoitza bere modura, zehaztasunaren eta harmoniaren maisuak. Kanten unibertsoak utzi egin du sinplea eta geometrikoa izatea: errealitatea hainbat espazio ezberdinetan zatitu da, arrazoimena bera izaera higikorreko fakultatea bilakatu da. Behereneko geruza batean errealitatea, demagun, [1] harri bat da, eskutik utziz gero halako eta halako abiadatan jausten dena, zientzia fisikoak begiesten duela gertakaria hori, hau da, arrazoimen teorikoaren objektua, zeruko planeten ibilbideak eta erritmoak bezalaxe (legearen edo behararen eremua). Baina harri horrekin norbait buruan jo eta akabatuz gero, [2] arrazoimen praktikoaren objektua izango da gertakari hau, eta errealitatearen beste muturreko maila morala izango da, begiesten duguna (askatasunaren eremua). Maila bakoitzean, errealitatea korapilatzen

duten kausak, tipo diferentekoak ageri dira. Behereneko mailan gertakarien arrazoia kausa eragilearen tipokoa den artean, beste honetan, erreinu moralean, kausa final "hautatuak" dira eraginkorrak, hots, helburuek daragite kausa eragile bezala. Fisikaren eta beharraren erreinua bat, moralaren eta askatasunarena bestea. Gizaki moralaren alde honetan Kantek beste atal bat ere berezi du autonomo gisa, [3] eder eta itsusiarena, hau da, errealitatearen maila ez etikoa, baina estetiko, Judizioaren objektua, "helburutasun gabeko helburuena" bezala, etab., ezagutarazi izan dena, kontzeptualizazio ez errazegiz agian. Azkenik, berriro mundu fisikoaren mandan, [4] organismoen edo bizidunen erreinu miragarria dago beregain, non kausa mekaniko hutsetan ez bezala, efektuak bere kausaren kausa gisa diharduela, ematen baitu, Judizioaren objektua berau ere. Gero, jainkotasunaren erreinua, etab., aipatu ahal izango litezke oraindik, propioki ezagutza arrazionalaren objektu ezin izan litekeen espazio infinitua, ezagutza edo -terminologia kantiar egokian hobeto- gogoeta sinbolikoarena baizik. (Bereizkuntza txiki haxe berau, ezagutzarena eta pentsamendu edo gogoetarena, iraultzailea izango da filosofia modernoarentzat). Errealitatea eta haren gure abordaia konplexuak bihurtu dira beraz.

Kontzeptu abstraktuok uzteko: zeure emaztea den itxuraz egunoroko errealitate bakun hori, adibidez, Maria, izen propio baten sinpletasunean bilduta darabiltzazuna edo intuizio soil batean nahikoa ezagutu uste duzuna, begira nola den "arrazoimenari" lau dimentsio aipatuetan uneoro diferente ematen (agertzen) zaion errealitate konplexua; grabitate kausaren menpeko bai noski [1], baina bizidunaren ezaugarri ederrenetako animalia ederra ere bai [4], objektu estetiko [3] eta subjektu etikoa orobat [2], "arrazoimenak" jarduera modu arras ezberdinez bakarrik atzemateko lortzen duen zer bata hortaz, hau da, bera bere zer/zeintasunean atzemateko jarduera direkto bat gizakiak ez daukana, eta lau molde guztiotan behatu eta horrela ere inoiz atzematen ez duena definitiboki bere baitan den bezalaxe.

Horrela objektuen domeinu direktoa galdu egin dugu berriro, mundua berriro pizar bat esfinge bilakatu da guretzat. Zerkiek ja ez dute arrazoi kartesiar-matematikoak menpean hartzen eta "beren esentzian" atzematen zituenak izan nahi: gauzen esentzia multiplikatu egin da (ez da kaos bat bilakatu halere: diferentziak eta ugaritasunak bere ordena arkitektoniko zuzena du); edo hobeki, beren esentzia intimoa noumenoan gorde dute, gizakiari zerbait ezagutu ahal izatea eman zaionaz haraindi, eta beren ageritasunean, fenomenoan, erakusten dutena, kaleidoskopio intelektual bateko izamoduak edo irudi iheskorak dira, inoiz ez osoki jabeartu ahal ditzakegun zertasunak berak. Azken esentzia misterioan geratzen da eta polita da horrelaxe kuku egotea beti hura. Errealitatea berriro "eman" egiten zaigu, ez diogu kartesiarki geuk "oratzen" indarrean. Kantismoari, harrigarriro, munduaren poesia sekretu bat dario.

Kantismoa bera ere konplexua da, horregatik, zati ezberdinak dauzka (hiru Kritika famatuak adibidez), eta Prolegomenoetan, izenak agintzen duen eran eta hasieratik hasteko, aurreneko zatia bakarrik ikusten da, kantismoaren edo filosofia transzendentalaren posibilitatea bera.

Hain zuzen kantismoaren konturik ezagunena gauzak noumenoan eta fenomenoan ebaki zituelako horixe izango da. Alegia, gauzen gure kontsideroan, berezi egin behar dugu, gauzak zer-nolakoak diren berak berbaitan izan, eta zer-nolakoak diren beren ageritasunean edo guri ikustera ematen zaizkigun bezainbatean. Nous "adimena" da grekoz, eta noumenoak gauzak beren muin-muinean zer-nolakoxeak direla adimen soilez pentsa genezakeena, adierazten du gutxi gorabehera, "errealitate adigarria", sentigarriari oposizioan (de fakto muga-kontzeptu formal bat da Kanten kasuan): noumeno klasikoan filosofia historian Platonen Ideiak dira noski (Tim., 51 d), errealitatearen errotiko momentu "zerugaindar" edo absolutua. Guk, halere, gauzak zer diren ikasi, hemen beheko gure esperientzian espazioan eta denboran nolakoak ageri

izaten zaizkigunetik, ikasi ohi dugu, phainomai/phainomenon ez baita horixe besterik, agertu edo agerikoa. Bereizkuntza honek berez ez du zer izan deus harrigarrik: inork ez dugu uste gauzak ageri zaizkigun horixe direnik, inoiz ez zaizkigu guztiz berdinak agertzen ere eta (zahartu egiten gara, lekuz edo argiz aldatu, etab.); gainera gu eskolatik ohituta gaude, errealitate fisikoan pertzepzioaren maila, maila atomikoa eta subatomikoa bereiztera. Mahai hori hor, zer da propioki: nire pertzepzio ezberdinen multzoa (kolorea, gogortasuna, neurriak, etab.); ala masa hori osatzen duten atomoen suma, nolakotasun haiek guztiak itxura hutsa edo "ageritasuna" direlarik, pertzepzioaren nire moduak (ez mikroskopikoak, esaterako) baldintzatuak; ala, barrurago oraindik, deskribapen subatomikoari dagokion errealitate modua da zinez mahaiaren errealitatea ere doiago? Bestalde, kantiarra bezain cartesiarra da gutxienez, esatea, gauzak esentzialki, hau da, inpresioen iritzi soilean barik, ezaguera zientifikoa batean, ez direla zentzuei ageri zaien axaleko hori, horien hondoko arrazoi edo ekuazio matematikoa baizik. Fenomenoen egiazko errealitatea haiek matematikoki espresatzen dituen eremuan dago; edo, ageriko mila gauzen joan-etorriok, barruragoko errealitate bategile batean daukate beren funtsezko lekua eta zentzua, hots, agerkizunon muina hedadurara bihurtzen da, Substantzia hedatsuaren akzidenteak dira.

Ez da, beraz, bi eremuen bereizkuntza bera, filosofian aski arrunta izan duguna, ezpada bereizkuntza horrek Kantengan hartu duen balioa eta betetzen duen funtzioa, eskandalua sortu duena honen inguruan eta gero haren izenarekin identifikaturik utzi duena historian. Prolegomeno hauetantxe, irakurleak idealismoaren salaketatik garbitzeko ahaleginak egiten aurkituko du Kant. Gakoa hortxe dago. Kantek, errealitatearen maila bi horiek ez ezik, ezagutzaren iturri bi ezagutu du, bion ezinbesteko batasuna bindikatuz esperientziarako (zientziarako). Zentzumena eta adimena dira iturri biok. Zentzumenaren inpresioak, esango du Kantek,itsuak dira berak bakarrik, ez dute ezagutzarik egiten; baina adimenaren kontzeptuak, jarraituko du, huts-hutsak dira berak ere, inpresioen ekarpen betakorra gabe (KrV A 51). Bien bateratasunak osatzen du ezagutza. Baina bion bateratasuna ezinbestekoa duen ezagutza bat, era horretan, tipo berria da filosofian.

Errepara bedi orain, Descartes edo Leibniz non utzi diren (Spinozak berandutxo bakarrik hartu du Kantentzat inportantzia). Zentzuen edozein parte ezagutza zinezkotik at uzteko egin dute horiek beren eginahal guztia. "Arrazionalistak" dira. Zer eta zeinek ezagutzearen artean --ezagutzeko objektuaren eta ezagutzeko organoaren artean-- paritatea egon behar ei duenez gero. Ageriko mundu nabar anizkor aldakorrari zentzu inseguruena aitortzen zaio ezagutza nahikoa egokitze (doxa); errealitate barrutar esentzialari --puru, aldaezin, betibat, eternala-- arrazoimen purua dagokio ezagutzaile, errealitate geruza biak eta egiaren/ezagutzaren biak arazki berezirik (Kantek egin du, fenomeno soilaren ezagutzan bi fakultateak "nahastu", eta noumenoa ezagutzatik landa utzi). Hau da, "arrazionalistentzat" zentzuen irudizko munduaren azpian, engainagarria hori, egiaren lekua den egiazko errealitate barrutarra, arrazoimenak soilik dauka barnatzerik eta ezagutzerik, are zehatz-mehazki ahal du arrazoimen hutsak hori matematikotasun guztiz atzeman, izatearen ertz batetik besteraino: Jainkozko substantziaren existentzia arrazionalki soil ezagut lezake eta a priori --esperientzia enpiriko oro baino lehendik-- frogatzen; unibertso fisikoaren kreazioa bera hipotesian deduzi lezake mekanikoki, eta izatea gobernatzen duten printzipioak oro azal ditzake, Jainkoagandik argi printza bateraino dena ezagutza-sistema orokor bakarrean besarkatuz, dena arrazionalki soil beti, errebelazioaren edo tradizioaren edo Aita Santuen premiarik ezertarako gabe. Ilustrazio bere buruaren usteandiak pentsamendu hau plan orohartzaile xirritu-xirritu batean eskolarki adalatu eta unibertsalizatu ere egin du txukun-txukun, "Wolff famatuaren" sisteman (irakurleak berehalaxe, § 3an, topo egingo du maisu

horrekin testuan), jakintza-adar akademiko guztiak --matematika, ezagutzaren teoria eta ontologia, natur zientziak, teologia naturala eta psikologia arrazionala, zuzenbide naturala, etika, ekonomia bera-- lauki guztiz erregular batean hedatuz beti prozedura "arrazional" deduktibo berdinekin, printzipio metafisiko gorenetatik hasi eta maila beheenetaraino kaskada logikoan jaisteko. Zientziaren koadro akabatua. Arrazoimenaren eta Ilustrazioaren garaipen dirdaitsua. Eta horixe dena da Kant ilunak orain nahasten eta abarrakitzen duena.

Ulertzen da, beraz, Ilustrazio berlindarrak labur-labur "Kant, dena zanpatzailea" formula desengainatu ospelarekin baino ez badu balioesten jakin haren meritu guztia (M. Mendelssohn). Prusian hainbat borroka (Wolff, orduan matematikako irakaslea, desterratua egona zen Halleko Unibertsitateatik ateista salaketa bat medio pietisten aldetik; eta Errege despota ilustratuaren interbentzio batek bakarrik birlekuratu ahal izan zuen, zuzenbideko katedrara ordea) kostatuko Argien garaipena, eskolako doktrina sistema osoa (zientifikoa), monarka progresista Filosofoen lagun batek ezarria --Voltaireren adiskidea bera!--, metafisika arrazionala, Ilustrazio hiriburutarra, Gorteak onetsia eta Europa guztian mirestua, subjektu ilustratu berriaren munduaren ikuskera arrazional osoa, filosofo probintziano truskil honek, Sanson gaizto berri batek bezala, arrazoimen ilustratuaren palazio dena porrokatzen zuen goitik behera, eta arrazoimenari ausardia zuen tribunalerara deitu eta kontuak eskatzeko!

Arrazoimenak dena kritikatu du, salbu arrazoimena bera. Arrazoimen dogmatikoa da hori. Ilustrazioari, izan dadila egiaz ilustratua, eskatuko dio Kantek; ez itxura egin bakarrik. Sistematikoki dogmatikoa deituko dio beti. Eraikuntza miragarri bat eraiki du arrazoimen boteretsuz lur azaletik zeru goietarainoko barrokoa: baina arkitektura hori, erremuskatu du Kantek, logiko hutsa da, berbazkoa, ez gauzazkoa. Arrazoimenak orain erantzun behar du "arrazoimenaren tribunalean", zein zuzentasun duen eraikuntza horiek eraikitzeke eta zein baliabiderekin. Filosofiaren aurretik filosofiaren "zeregin kritikoak" egon behar du.

Kantek zerotik hasi eta nabigazio berrira deitzen du (Descartesena hautsi eta moderniarren bigarren proiektua hasten da). Zero puntuan, Metodoaren Diskurtso eta Meditazio Metafisiko-etako abiapuntu cartesiarrean bezalaxe, dena galdera zurrumbilo bat bilakatzen da berriro gure aurrean (ik. § 5, amaiera aldean). Nola da posible ezagutza (objektiboa!, galdera orain ez da ziurtasunaz!); hots, nola da matematika hutsa posible, nola da natur zientzia hutsa posible? Nola da posible metafisika, eta nola da metafisika zientifikoa posible? Orain arteko metafisika eta Ilustrazio arrazionalista, bistan baitago, zientifikoa ez, baino sofistiko hutsa izan dela.

Ilustrazioarekin borroka

Kantek testu barruaren azpian Ilustrazioarekin daraman borroka, irakurleak hiru puntutan suma dezake, ondorengoan bigarrena eta hirugarrena ikusiko baititugu: lehenengoa da filosofia (berdin dena: metafisika) ikasten ez delako ideia, hots, aldearez filosofiarik edo metafisikarik ez dagoela, ikusi eta ikasi ahal izateko; eta esanahi ezberdinak izan baitituzke baieztapen horrek, sinpleena da, oraingoz behintzat filosofia non ikasi ez dagoela libururik (Unibertsitate alemanak betetzen zituzten eskuliburu wolffiano guztiek deus balio ez zutela esateko beste modu bat). Liburuko lehen frasean bertan ikusten da ja ideia hori. Bigarren puntua zentzu komun sanoarekin dakarren trilu da; Humeren testu honetako inportantzia berezia, hirugarrena.

Kantek filosofia transzendental kasi-kasik Humeren obran ja badagoela, sinestarazi nahi digu pasarteren batzuetan. Hume iratzarri zuela lozorro dogmatikotik, aitortzen digu. Hume pentsatzaile zolia eta idazle bikaina goratzen du (justu Mendelssohn ilustratu berlindarra bezalaxe eta batera, honen sostengua bilatzen baitzuen Kantek alferrik bere borrokan!). Gero, ordea, Humeren txikiziotik berak salbatzen duela

metafisika, adierazten digu. Eta, beraz, Kanten soluzioa onartzen ez bada, Humerena soilik geratzen dela, hau da., arrazoimenaren (arrazoimen arrazionalistaren) suntsidura eta eszeptizismoa. Haren eragipena eskertzeko eta aitortzeko ere bai, zalantza gabe, baina hemen Hume batez ere arma bezala dago aipatuta. Ez da, beraz, aukera handia uzten: Kant (arrazoimenaren kritika) ala Hume (arrazoimenaren kondena).

Gogora dezagun hitz bitan, nahikoa ezaguna den hori: arrazionalismoaren atake erabakigarria eta, beraz, munduaren eredu "ilustratuarena" (bertsio cartesiarrean zein leibniztarrean) Humek obratu du. Hark, iluntasunez eta korapiloz bezainbat baieztapen gratuitoz josita aurkitzen zuen metafisikaren egiazko iturritzat banitatearen ekin alferra, sineskeriaren maltzurkeria eta antzekoak seinatu zituen (metafisika arrazionalista ilustratua giza harrokeriaren obra ergela delako ideia, Kantek errime bereganatu dituen ideia humetarretako bat da), holako lanak izpirituak aurreiritzi erlijiosoz eta beldurrez gatibu lotzeko bakarrik iruditurik onak. Filosofiaren zeregintzat --Kantek puntu honetan literalki segitzen dio-- "giza arrazoimenari dagokion gunea" zehaztea jo du: "Jakintza auzi nahaspilatsu hauetatik berehala askatzeko era bakarra da giza adimenaren izaera serioan ikertzea eta, bere ahalmenen eta gaitasunaren azterketa zehatzaren bitartez, ez dagoela inola ere hain gai urrun eta abstraktuertako presturik erakustea". Metafisikaren ezinezkoa, hitz batean; eta haren zeharo alferrikakoa, beste hitz batean, gizakiak ez omen baitu ezertarako halako "errore eta zalantza iturririk" behar.

Oina Humeren arrazoiketak hartu, ezagutzaren bereizkuntza garbi batean beronen bi tipotan oinartu du: [1] badaude ezagutza edo judizio batzuk, beren egia beraiek erakusten dutenak ebidentzia osoarekin: "bi gehi bi lau da" (egia judizioaren barruan dago: Kanten judizio analitikoak); eta badaude beste ezagutza batzuk [2], haien egia esperientziaren bidez bakarrik egizta litekeenak (judiziotik kanpora errekorrituz beraz: Kanten judizio sintetikoak a posteriori)¹: "bihar ez da (edo: bada) eguzkia aterako". Humeren azterketa kausa-efektu erlazioaren naturan zentratu da. Mundua zientifikoki ulertzeko daukagun printzipio funtsezkoen hori, gure ohitura soilak fundatzen duela, ez arrazoimenak, erakutsi du. Eta beti horrelaxe dela gertarizko (existentziari buruzko) egia guztietan, halaxe dela hortaz Jainkoaren existentzia, arima, etab., arazoetan, ipini du agerian (horiek ez dira ezagutza arrazionalak orduan, baizik bestelako sentimenduren batzuek eutsiak). Konklusioan: "Iruditzen zait zientzia abstraktuen eta demostrazioaren objektu bakarrak kantitatea eta kopurua direla, eta ezagutza-mota perfektuago hau beste alor batzuetara hedatzen saiatzea [uler bedi: metafisika apriorizkoa, teologia naturala, moral arrazionala, etab., Ilustrazioaren hain kuttunak] sofisteria eta zakur-ametsa baino ez dela".

Kantek soluzioa, Humeren planteamendua baztertzetik ez, baina erradikaltzetik bakarrik datorrela, defendatzen dizu hemen, cfr. §§ 27 eta hh.

Burgoi zebilkeen metafisika ilustratu arrazionalista Humeren eraso "plebetarra" gorabehera (berrogei urte lehenago egina eta ahaztua), eta etxe barruko diskordantzia batzuek ere ez zirudien arrazoimena gehiegi estutzen zutenik: arrazoi askiaren printzipioak dena kausalitatearen pean ezartzen badu, non geratzen da askatasuna? Morala, gero? Edo: arima kreatua baldin bada, eta bere baitakoa ez badu bere izatearen eta irautearen arrazoi askia, nola izango da hilezkorra? Erantzun ahal izango luke norbaitek, Jainkoak ematen diola: baina nola jakin Jainkoak zeini zer eman gura dion errebelazioa gabe? (hala behar baita jakin, jakitekotan; bestea sinestea da!). Ikusten ez den arimari hilezkortasuna ikustea erraza ez da. Halere halakoxe arazoekin enplegatzen ziren Berlingo Ilustratuak, teismo pedagogiko leunez eta moral arrazional askatasun-izpiritu burgesaren eta obediencia-izpiritu hiritarraren galdekizunen ongi orekatzaile batekin herri xumea "argizatzen" (aufklären), arrazoimenaren bere buruarekin konflikto hauek gainditzeko "zentzu komun sana" baliaraziz. Eta hor eman nahi du

Kantek borrarekin gogor, "dena zanpatzaileak". ("Zentzu komun sanoaren filosofoak" izan ziren halaber Hume gutxietsi zutenak, ulertu ere zinez egin baino lehen, ik. Hitzaurrea). Arrazoimen arrazionalistak konponezinezko aporiatan harrapatzen duela nahitaez bere burua, Humeren arrazoiak baino funtsezkoagoa bilakatu da Kanten kritikan: ik. "Arrazoimenaren dialektika", §§ 42-59. Ataka horretan arrazoimenari "zentzu komun sanoarekin" lagundu nahi izatea, aparte arrazoimenari itsu-mutil batekin sorotsi nahi izatearen paradoxa, ezer laguntzen ez duen laguntza dela, errepikatuko du Kantek Prolegomeno hauetan insistentzia partikularrez (ik. Hitzaurrea, §§ 5, 31, 57, Metafisika zientzia bezala posible nola den soluzioa). Kant seta honek, intentzio pertsonal ezkutu posibleak izateaz gain hartzaile jakinen batzuei begira, egokitasun biribil-biribila dauka bere asmorako: arrazoimenaren edo ezagutza legitimoaren mugak doi-doitzea (ik. §§ 30-35 eta 57-60). Liburuaren amaieran oraindik, "eskolako metafisika"ren azpian sineskeria eta sasi-mistizismoa ezkutatzen direla, salatzen du Kantek Hume errepikatuz, "aro ilustratu batean" egoterik ez omen dagoena baita hori. Nola da posible zientzia?

Filosofo askorekin gertatzen da, haien arrazoiketaren ez dago justifikatzerik adibidez etikaren edo zuzenbidearen arloetan, ezagutzaren teoriako beren printzipioak ezagutu gabe, eta horregatik beren ezagutza-teoria izaten da ikusi beharrezkoena, beste ezer baino lehen, hemen erabakitzen direlako funtsean geroko nondik nora haien pentsamenduan. Denborarekin ezagutzaren teoriko soiltzat hartuta bukatzen dute horregatik askotan. Descartesekin hala jazotzen da eta horixe daukagu Kantekin orobat. Kantismoa ozeano bat da, ordea. Badakigu beti oinarritzko puntu handi batzuk nabarmentzeak azkenean hura txirotzen eta are faltsutzen duela. Baina nabigatzaileak gauean erreferentzi puntu batzuk behar ditu ozeano goian, ahaztu ezinezkoa dugu hori ere.

Kantismoaren ozeanoan orientatzeko erreferentzi puntuak erraz askoak dira, Kantek berak ipini ditu hiru kuestiotan: 1. zer jakin ahal dut, 2. zer egin behar dut, 3. zer itxarotea sori dut. Hirurok laugarren batean biltzen omen dira sintesian: zer da gizon-emakumea? (Gogoratuko da, Humerentzat ere gizakiaren estudiora etortzen da azkenean filosofiaren funtsa). Baina galdera hauek eta beren alorrak ez dira itxiak eta estatikoak. Zer da gizakia, ez da aldeaurrez badakigun ezer, ezta ere antropologia enpirikoan ebazteko zerbait (Kant ez da itaun horrekin prekritizismoan atzera jausi), ez da azken puntu finkoren bat, baizik kuestio hutsa da, eta airean dago oraindik erantzunaren posibilitatea eta modua. Beraz, azken galderan aurrea berriro eskatuta dator kigu, zer den gizon-emakume hori zer jakin nezake?, etab., azkengabe jirabiran, pentsamendua ibili dabilen artean. Ikusten da, bada, ezinbestekotsua dela Kantengan lehen galdera harekin abiatu behar izatea: zer jakin ahal du gizon-emakumeak?

Bat, zeintzuk dira ezagutza fundatzen duten printzipioak, eta bi, mugak zeintzuk dira, bilatzen da itaun horretan. Oinarriak ezin litezke izan enpirikoak, enpiria bera da oinarri eske daukaguna eta. Orduan oinarri edo printzipio arrazoizko (adimeneko!) ² hutsak edo puruak izan beharko dute, enpiriaren alde aurrekoak, latinez a priori. Ezingo dute, nolabait esan, formal hutsak ere izan (logika formaleko arauak), horiek arrazoiketaren modu egokitasuna garantizatu ahal baitute, ez edukiarena (egiarena); eta zientzia edo ezagutza, ziurtasunerako forma egokiaz gain, batez ere Descartes enplegatutako duen kontua, edukien objektibotasunak osatzen du, propioki hau bakarrik baita Kanten arazoa, ik. § 5; KrV A 55-57.

Beraz, Kant ere "metodoaren filosofo" bat da, Descartesen beste adiera batean halere. Zientziaren filosofoa dela esan genezake orobat. Gauzen ezagutzan baino, ezagutzaren baldintzen ezagutzan interesatzen dela, esan du berak, interes molde horri Logika edo Filosofia Transzendentala deituz. Honen egitekoa, zientziari (iritzi soilak ez duen)

unibertsaltasuna eta beharrezkotasuna zerk ematen dizkion argitzea izango da; eta erantzuna da, apriorizko elementu fundatzaileek dagitela hori.

Ikus dezagun adibide batean: ikusten dut eguzkiak harri batean ematen duela, eta gero eskuarekin sentitzen dut harria beroa dagoela (ik. § 20, oin-oharra). "Eguzkia da harriaren beroaren kausa", pentsatzen dut. Eta jarraitzen dut pentsatzen: "eguzkiak ematen dienean harriak bero jartzen dira; eta edonoiz/edonon (unibertsaltasuna) eta nahitaez (beharrezkotasuna) jartzen dira bero", etab. Etorri da Hume, analizatu ditu nire konklusioak eta logika arrazionalik batere ez dutela, atera du: zerk ematen dit eskubide begiaren eta eskuaren lanak bateratzeko? Nondik jalgiazi dut ez eskuak ez begiak inon atzeman duten "kausa" misteriotsu hori? Esperientziak harria, beroa eta eguzkia bai, baina kausarik ez baitit erakusten inon. Esperientzia gabe, aldiz, a priori, "kausa" bezalako zerbait ezer esanahi ez duen kontzeptua da. Imajina dezagun subjektu gabeko judizio bat honela: "x da zuria", badaukat irudiren bat; edo honela: "x da kausa", ez daukat irudirik batere. (Eta berdin esperientziazkoak ez diren beste kontzeptu guztiekin: "arima substantzia bat da" ez da "x da z" baino gehiago esatea). Zer egin dugu? A fenomeno eman eta B'k jarraitzen duela maiz ikusi dugunean, lotura bat suposatzen dugu; beti jarraitzen badu, lotura beharrezkoren bat dagoela, pentsatzen dugu. Lotura beharrezko (suposatu) horri existentzia ematen diogu gero "kausa" deituz. Hurrena kausa (suposatua)ren eta kausalitatearen metafisika bat eraikitzen dugu. Azkenean metafisika konplexu bat daukagu ("Jainkoa da substantzia azkengabe bat, izate ororen kausa...") non ezerk ez duen ezer esanahi.

Zein da Kanten soluzioa? Horixe da hain zuzen liburu honen gaia "laburturik" (laburtu gabe Arrazoimen hutsaren kritika-n ikus dezake irakurleak), laburpenaren laburpenean hastea ez litzateke izango itxurazkoa Prolegomenoen Prologo batean ere. Halere, beste adibidetxo batekin bukatzeko, gomita gisa bakarrik: Kantek uste du badauzkagula kontzeptu batzuk esperientziakoak ez direnak (esperientzia posibilitatzekoak direnak baizik), "substantzia" esate baterako. Substantzia kontzeptu huts bat da, ez du edukirik ("posibilitatea", "errealitatea", "ukoa", edo "zerbait", "guztia", zein da horien edukia?); baina ezin dugu esan ez duela baliorik, gizon-emakumearen pentsatzean baduelako muntarik handieneko bere funtzioa. Eman dezagun ikusten dugula azalera lau bat, gris-antza, erregularra, hotz samar, gogor, apenas usaintsu, ez oso leuna, eta zentzu ezberdinen egun ezberdinetako inpresio ezberdin pila deslai hori denbora gabeko subjektu lekugabetar batean hariltzen dugu dena pilota batean: "granitoa" deritzogu hitz bakarrarekin. (Gauzak zer diren horrela osaturiko predikatu-pilotatxoa edo "sustantzia", berdin zu eta ni, gure obra da; "gu", hemen, zientzia da noski; eta zientzia, ezagutza objektiboa). Zerk gidatu du pentsamendua, inpresioen barreiaduran geratu eta sakabanatu ordez, horrelako baldinkizun dominatzaileetako batasun "arrazionala" egitera? (Zientzia horrelakoxe batasunak egitea da, geroz handiagoak). Bera hutsa zen "substantziaren" kontzeptu harek³. Eta beste hainbeste, sua eta kea, hotza eta beroa, planeten joan-etorriak eta mareak eta nahi diren milioika fenomeno guztien anabasa den unibertsoan ordena estriktoa ipintzera garamatzana, "kausaren" kontzeptua da. Bera hutsa da: a priori ezin dit esan suak ez al duen hotza emango eta keak planetaren bat mugituko; eduki enpiriko hori esperientziak bakarrik ematen du (esperientzia posibilitatu, aldiz, kontzeptu huts haiek!), eta, horrexegatik hain zuzen, "kategoriek" -- kontzeptu a priori huts horiek-- esperientzian aplikatzeko bakarrik dute baliorik. Esperientzia fundatzen dute, esperientziaren konstituziora mugatzen dira. Irudi politarekin, agerkizun edo fenomenoak "esperientzia gisa" irakurtzeko letrak bezala direla kategoriak, argitzen du Kantek (beharbada oihartzun eginez Galileiri Il saggiautore-n, natura karaktere matematikoetan idatzita dagoen liburua dela, adierazi

duenean). Beraz, hortxe dute beren balioaren muga..., horiek baitziren bilatzen ziren elementu biak: ezagutzaren, bat, fundamentua eta, bi, mugak.

Kritika eta Prolegomenoak

Arrazoimen hutsaren kritika 1781ean publikatu zuenean, Kantek 57 urte zuen eta lan handi baten asmoa oraindik buruan. Beharbada Prolegomenoen irakurlea pixka bat harritzen duena Hitzaurrean bertan, Kanten autokontzientzia segurua da. Kant ohartu zen berak zekarren "iraultza kopernikanoaren" garrantziaz filosofiaren historian. Horregatik presa zuen --denbora gutxi geratzen zitzaiolakoan-- bere planteamenduaren edo sistemaren beste atalak lehenbailehen ezagutzera emateko, eman ere hamabost urtean sinetsi ezinezko produkzio intelektualean eman duen bezala (bata bestearen segidan bota dituen Kritikak batik bat). Kantek, elementu apriorizkoen fundamentazio lana etikan, etab., zuzenbidearen fundamentazioraino, edo historiaren ikusbideraino, azaldu gura du lehenbailehen, katramila guztion giltza --beti funtsean bera-- eskuan eduki uste duenez gero, horrela "zeregin kritikoa" burutzeko arrazoiketaren arlo guztietan, horren hasiera besterik ez baita izan zientzia estriktoaren fundamentazioa Arrazoimen hutsaren kritika-n. 1781eko maiatzean Marcus Herzi gutunean aitortu dionez, ez zuen irakurle asko espero. Uste zuena baino okerrago etorri da ordea: itxaron zituen irakurle gutxiek berek harri hura ezin zuten irakurri, edo ezin omen zuten ulertu. Puska batean argitalpenaren inolako harribizirik ez zen egon publikoan (liburua "isiltasunarekin ohoratua izan zen"), 82ko urtarrilean Göttinger Gelehrte Anzeigen aldizkari akademiko prestigiotsuan aurreneko erreseina atera zen arte, mesprezuzkoa eta osoki negatibo harroa berau, sinatu gabea, baina esku "ilustratua" ageri duena, Kant bereziki mindu duen idealismoaren berdinketarekin kanpoko errealtatearen ukoaz. Abuztuan bigarrena irten da in Gothaische Gelehrte Zeitungen, hau positiboagoa, baina liburuaren ulergaitzaz Kanti berari ere ez diona duda izpirik uzten. Biei buruz ik. liburu honen akaberan Eranskina.

Eztabaida sonatua egon da XIX. mendeko Kanten bi berezilari berrezaguturen artean, Erdmann eta Arnoldt, gero Vaihinger, Vorländer eta beste iruzkingile autorizatu gehiagoren partearekin, zenbateraino erreseina horiek Prolegomeno hauetan eraginik izan duten eta non zehazki. Hitzaurre hau polemika hori egon dela aipatzera soil muga daiteke, badaezpada eta inori interesatzen bazaio⁴. Halaber gutxienez orokorki gomuta beharrekoa da, ez zela gorabehera epistemiko bat bakarrik, jokoan zebilena momentuan: Prusiaren historiako une kritiko bat zen huraxe, intelektualki bezala sozialki eta politikoki, eta Kant ohartu zen horretaz ere. (Arrazoimen hutsaren kritika, nolabait gure maneran esateko, Inkisitore Handi nazionalari edo Zentsuraren Ministroari dago eskainita, eta arrazoi askogatik!). Halere ez gara alferrik luzatuko, euskal irakurleari urrunegi geratzen zaizkio eta ez diote ezer argitzen lagunduko Prusia eta Alemaniako zurriburri politiko hauek. Erreseinen eta Prolegomenoen inguru honetan, hala Cassirerrek (loc. cit.), "Ilustrazioko filosofia alemanaren krisi erabakigarrian" gaude murgildurik. Berehalaxe gero panteismoaren polemika dramatikoa lehertuko da, Kant barruan harrapatuz, literatura eta filosofia aleman moderno guztiarentzat giltzarritzak; kulturalki joera biraketa bat egongo da Estatuan eta Unibertsitate alemanetan (Frantziako Iraultzaren aitzinakoa izan da hori).

Prolegomeno hauetan, intentzio bat polemikoa da (idealismoaren auzia, zentzu komunaren eztabaida, teismoarena, etab.), bestea, mamitsuena, dibulgatzailea edo popularizatzailea nagusiki. Azkeneko honegatik, errazagoa eta garbiagoa izatearren, Prolegomenoetan metodo analitikoa hautatu duela azalpenerako, dio berak, Kritikako sintetikoaren aldean. Metodo analitikoa zertan datzan testuak berak esplikatzeko du ongiena, ik. Hitzaurrea, § 4 (amaiera aldean) eta 5 (oin-oharra printzipalki). Dena den, § 23 arte bakarrik da analitikoa; handik aurrera testuak Kritikako apunte soil-soil gisa

jarraitzen du, elaboraziorik apenas gabe. Ohargarria, Kritikarekiko berritasuna bezala alegia, pertzepzio judizioen eta esperientzia judizioen bereizkuntza izan daiteke (ik. §§ 18-29). Notatxo bat zor diogu apika, esperientziaren kontzeptuarekin frankotxo libre jokatu duenez gero hitzaurre honek. Eman dezagun harri bat eguzkitan epel-epel dagoela martxoko goiz hotz batean. Ukitzen dut eta "zein sentrazio atsegina!", pentsatzen dut. Hori ez da Kantek esperientzia esaten duena -harentzat esperientzia beti objektiboa baita-, neure pertzepzio subjektiboen judizioa baizik, estetikoa agian, neure subjektibitatearen mailan egina beti ere. (Oraingo mintzaira arruntean "neure esperientziaren mailan" esango litzateke, baina esperientziaren kontzeptu horren kontrarioa da hain zuzen Kantena). Esperientzia egitea ez da zerbait sentitzea edo bizitzea, baizik hori bizitua pentsamenduari azpiratzea eta kontzeptualki elaboratzea, kategorialki lotzea eta zermugatzea ("konstituzioa"); ez da, beraz, zentzu hutsen emaitza. Aitzitik esperientzia beti elaborazio intelektuala da, sentigarritzko ore moldegabe bat aurrez emanik (zentzuek) egon eta gero: kontzeptu horretan modernaren lehen zikloa, lehen nabigazioa, ausiabantu zuen arrazionalismo matematiko-deduktiboaren (Descartes) eta arrazionalismo induktibo-empirikoaren (Hume) oposizioa nahi da hain zuzen idealismo kritikoan kontziliatu eta gainditu.

Joxe AZURMENDI

Bibliografia

a) Kanten obra

"Akademiaren Argitalpena" ohi deritzona da oinarritzkoa:

Kants Gesammelte Schriften, Herausgegeben von der Königlich Preussischen [deutschen] Akademie der Wissenschaften, Berlin 1902 ss, XXIX bolumen.

I. Kants Werke, E. Cassirer (arg.), Berlin 1912-1922.

I. Kant Werke in sechs Bänden, W. Weischedel (arg.), Darmstadt 1966.

Ikerketarako lehen lagungarriak:

1.

HINSKE, N.-WEISCHEDEL, W., Kant-Seitenkonkordanz, Darmstadt 1970. MARTIN, G.(arg.), Allgemeiner Kantindex zu Kants gesammelten Schriften, Berlin 1967ss.

2.

EISLER, R., Kant-Lexikon, Hildesheim 1977.

MELLIN, G. S. A., Enzyklopädisches Wörterbuch der kritischen Philosophie, 6 bol., Aalen 1970-1971

RATKE, H., Systematisches Handlexikon zu Kants KrV, Hamburg 1972.

STOCKHAMMER, M., Kant Dictionary, New York 1972.

VERNEAUX, R., Le Vocabulaire de Kant, Paris 1967.

b) Kanten bizitzaz

CASSIRER, E., Kant, vida y doctrina, México 1968.

VORLÄNDER, K., I. Kants Leben, Hamburg 1974.

VORLÄNDER, K., I. Kant. Der Mann und das Werk, 2 bol., Hamburg 1977.

c) Inguru kultural eta filosofikoaz

ARANA, J., Ciencia y metafísica en el Kant precrítico. Una contribución a la historia de las relaciones entre ciencia y filosofía en el siglo XVIII, Sevilla 1982.

BECK, L. W., Early German Philosophy. Kant and his Predecessors, Cambridge Mass. 1969.

BROCKDORF, C. von, Die deutsche Aufklärungsphilosophie, Nendeln 1973.

CAMPO, M., Ch. Wolff e il racionalismo precritico, 2 bol., Milano 1939.

CASSIRER, E., El problema del conocimiento, II-IV bol., México 1979.

ERDMANN, B., M. Knutzen und seine Zeit. Ein Beitrag zur Geschichte der Wolffischen Schule und insbesondere zur Entwicklungsgeschichte Kants, Hildesheim 1973.

HEIMSOETH, H., Studien zur Philosophie I. Kants, Bonn 1971.

MERKER, N., L'illuminismo tedesco. Età di Lessing, Bari 1968.

PUETZ, P., Die deutsche Aufklärung, Darmstadt 1978.

RABADE ROMEO, S., Hume y el fenomenismo moderno, Madrid 1975.

SCHNEIDERS, W., Die wahre Aufklärung. Zum Selbstverständnis der deutschen Aufklärung, Freiburg 1974.

SCHOEFFLER, H., Deutscher Geist im XVIII. Jahrhundert. Essays zur Geistes- und Religionsgeschichte, Göttingen 1967.

VILLACANAS, J. L., La formación de la crítica de la razón pura, Valencia 1980.

WOLFF, H. M., Die Weltanschauung der deutschen Aufklärung in geschichtlicher Entwicklung, Berna 1963.

WUNDT, M., Die deutsche Schulphilosophie im Zeitalter der Aufklärung, Hildesheim 1964.

d) Kanten filosofiaren azalpen orokorrak

ARRILLAGA TORRENS, R., Kant y el idealismo transcendental, Madrid 1979.

BROAD, Ch., Kant. An Introduction, Cambridge UP 1978.

GOLDMANN, L., Introduction à la philosophie de Kant, Paris 1967.

JASPERS, K., Kant. Leben, Werke und Wirkung, München 1975.
 KAULBACH, F., Immanuel Kant, Berlin 1969.
 KÖRNER, S., Kant, Madrid 1977.
 PHILONENKO, A., L'Oeuvre de Kant, 2 bol., Paris 1972.
 RABADE ROMEO, S.-LÓPEZ MOLINA, A.-PESQUERO FRANCO, E., Kant: Conocimiento y racionalidad, 2 bol., Madrid 1988.
 RITZEL, W., I. Kant. Eine Biographie, Berlin 1985.
 VANNI ROVIGHI, S., Introduzione allo studio di Kant, Brescia 1968.
 VILLACANA, J. L., La filosofía teórica de Kant, Valencia 1985.
 e) "Arrazoimen hutsaren kritika" eta "Prolegomenoak"
 APEL, M., Kommentar zu Kants Prolegomena, Berlin 1908.
 ERDMANN, B., Historische Untersuchungen über Kants Prolegomena, Halle 1904.
 FARR, W. (arg.), Hume und Kant. Interpretation und Diskussion, Freiburg-München 1982.
 VAHINGER, H., Kommentar zu Kants Kritik der reinen Vernunft, 2 bol., Aalen 1970.
 VLEESCHAUWER, H. J. de, La Dédution transcendante dans l'oeuvre de Kant, II bol., New York-London 1976, 419-496.
 VORLÄNDER, K., Sarrera, Oharrak eta Gehigarriak, in: KANT, I., Prolegomena zu einer jeden künftigen Metaphysik, Hamburg 1993.
 f) Bibliografien bibliografia
 ADICKES, E., German Kantian Bibliography, New York 1896.
 ARANA, J., Guía bibliográfica para el estudio de Kant, Sevilla 1982.
 LEHMANN, K. H.-HERMANN, H., "Dissertationen zur kantischen Philosophie", in: Kant-Studien 51 (1959-1960) 228-257.
 NAGL, L., "Auswahlbibliographie", in: HEINTEL, P.-NAGL, P.(arg.), Zur Kantforschung der Gegenwart, Darmstadt 1981, 527-552.

Kant-Studien aldizkari berezituak 1969az gero Kanti buruzko argitalpenen informazio bibliografiko periodikoa ekartzen du.

Oharrak

¹ Kanten judizioen bereizketa (ik. §§ 2-3) Humerenean abiatzen da, baina erabateko diferentzia batekin: Humeren bi judizio tipoak (analitikoak edo a priori, sintetikoak edo a posteriori), ezagutza oro bi erreinutan ebakitzen duen aut-aut alternatiba hertsiarekin, hiru bilakatu dira Kantengan, hain zuzen hirugarren tipoa (sintetikoak a priori) gakoa bilakatzen delarik metafisikaren posibilitaterako. Frogatzea judizio tipo hori badagoela - nahiz Humek ez zuen ohartu, edo hobeki, gaizki analizatu-, are matematikaren (§§ 6-13) eta natur zientziaren (§§ 14-38) posibilitatea tipo horretakoxe oinarrietan eutsita dagoela, izango da Prolegomeno hauen aurreneko betebeharra, gero, kuasi ondorio soil gisa, metafisika zientifikoaren posibilitatea justifikatzeko. Beraz, ezagutza edo judizio tipoen bereizkuntza horretatik dago menpe filosofia transzendentala, Kantek hemen eman duen azalpenaren maneran.

² Arrazoimenaren eta adimenaren arteko bereizkuntza zehatza gero Kant ulertzeko elementala izango da (ik. §§ 44, 58-59, Metafisika zientzia bezala posible nola den soluzioa), baina hemen ohiko mintzaira desberezian dihardugu orain.

³ Propioki gidatu, kategoriek ez dute ezer gidatzen, irakurleak laster ikusiko duenez liburuan: arrazoimena (1) da, haren kontzeptuak Ideiak dira, adimena (2) gidatzen duena, zeinen kontzeptuak diren kategoriak, zentzuen (3) inpresio sakabanatuen sintesia egitera (kategorien moldean).

⁴ Informazio txit erosoia, K. Vorländerren Felix Meiner edizioan, KANT, I., Prolegomena zu einer jeden künftigen Metaphysik, Hamburg 1993. KrV eta Prolegomenoen erkaperen puntualki zehatz batean interesatuak, ik. beza ERDMANN, B., Historische Untersuchungen über Kants Prolegomena, Halle 1904. VLEESCHAUWER, H. J. de, La Déduction transcendantale dans l'oeuvre de Kant, New York-London 1976, II bol., 419-496.

EGILEAREN HITZAURREA

Prolegomeno hauek ez daude ikasleentzat idatziak, etorkizunean irakasle izan behar dutenentzat baizik; eta hauei ere balio izan behar diete, ez lehendik badagoen zientzia baten irakasaldia antolatzeke, eta bai batik bat zientzia bera asmatzeko.

Badira jakitunak filosofiaren historia bera (aro zaharrekoa nahiz berrikoa) beren filosofiatzat daukatenak; horientzat ez dira idatzi Prolegomeno hauek. Horiek ere itxaron beharra izango dute, harik eta arrazoiaren iturriko ura beren eskuz ateratzen saiatzen direnek beren lana bukatu arte, eta orduan helduko zaie txanda gertatutakoaren berri munduari emateko. Alabaina, horien ustez, ez dago ezer esaterik, lehendik ere esanda ez dagoenik, eta egia esan, honek hutsezineko pronostiko bezala ere balio dezake etorkizuneko edozerentzat; ba nola giza adimenak kontaezin ahala gauzez era askotara fantasiatu duen ehundaka urtetan zehar, aise gerta daiteke, asmatzen den gauza berri bakoitzarentzat beste gauza zaharren bat ere aurkitzea, harekin nolabaiteko antza duena. Nire asmoa da, Metafisikaz arduratzeak merezi duela uste duten guztiak konbentzitzea, alegia erabat ezinbestekoa dela beren lana momentuz uztea, orain arte gertatutako guztia gertatu ez balitz bezala begiratzea, eta beste ezer baino lehen problema hau planteatzea: "ea Metafisika bezalako zerbait inola ere posible ote den".

Zientzia baldin bada, nolatan ezin du onarpen orokorrik eta iraupenezkorik lortu bestelako zientziek bezala? Zientzia ez baldin bada, berriz, zergatik harropuzten da etengabe zientziaren itxurak eginez eta zergatik entretenitzen du giza adimena inoiz itzaltzen ez, baina inoiz betetzen ere ez diren itxaropenekin? Demotra bedi horren zientzia edo ez-zientziatasuna, baina nolanahi ere zerbait segururik ere esan beharko da zientzia-usteko honen izaeraz, ba horrekin ez dago orain arte bezala luzaroago segitzerik. Ia-ia barre egitekoa ere bada ikustea, nola beste edozein zientzia etengabe ari den aurreratzen, eta bitartean hau, jakinduria bera izan nahi duena eta gizaki orok kontsultatzen duen orakulua dena, nola beti toki berean jira eta buelta dabilen, pauso bat bera ere aurreratu gabe. Oso urriturik dabilta horren jarraitzaileak ere, eta ez da ikusten, beren burua beste zientzietan distiratzeko modukoa aurkitzen dutenek, beren fama sail honetan arriskatu nahi dutenik, izan ere hemen edozein ausartzen baita, gainerako gauza guztietan ezjakina izanda ere, judizio erabakiorra ematen, alor honetan oraindik ez baitago neurri eta pisu segururik, sakontasuna eta axaleko berriketak elkarrengandik bereizteko.

Erabat aditu gabea ere ez da, horratio, zientzia bat luzaro landu ondoren, eta bat harriturik dagoenean, ikusiz, zenbat aurreratu den bertan, azkenean bateonbati halaxe otu eta galdetzea, ea halako zientziarik posible ote den eta nolatan ote den posible. Ba giza arrazoa hain da eraiki-zalea, ze hainbat aldiz egin baitu dorre bat eraiki eta berriro deseraiki, haren fundamentua nola egina ote dagoen ikusteko. Inoiz ez da beranduegi arrazoizko eta jakintsu izaten hasteko; baina ezaguera berandu datorrenean, gero eta nekezago eta astunago egiten da hura martxan jartzea.

Zientzia bat benetan posible ote den galdetzeak aurre-suposatzen du, duda egiten dela haren errealtateaz. Baina duda horrek edozein iraintzen du, batek daukantxo guztia

apika joia horixe besterik ez denean; horregatik, horrelako dudak planteatzen dituenak presta bedi alde guztietatik oposizioa besterik ez izatera. Batzuek, beren edukitza aspalditik, eta beraz legez, daukatenen kontzientzia harro-harro dutela, beren Metafisikako konpendioak besapean hartu eta goitik behera begiratuko diote destainati; beste batzuek, ez baitute ikusten lehendik beste nonbait ikusitakoarekin bat datorrena besterik, ez dute ulertuko, eta aldi batean bere hartan geldituko da dena, berehalako aldaketarik eragin edo itxaronaraziko lukeenik ezer gertatu izan ez balitz bezala.

Alabaina ausartu ere egingo nintzateke ni esaten, ezen bere buruarekin pentsatuz Prolegomeno hauek irakurtzen dituenak, ez duela bakarrik bere orain arteko zientzian dudatuko, baizik eta gero erabat konbentziturik geldituko dela, ezen horrelako zientziarik ezin daitekeela izan hemen azaltzen diren eskakizunak bete gabe, hauexek izaki hori ahalgarri egiten dutenak; baina nola horrelakorik oraindik ez den inoiz ere gertatu, ba oraindik ez dagoela inolako Metafisikarik. Metafisikaren irrikia, ordea, ezin baita inoiz ere galdu,¹ giza arrazoi unibertsalaren interesa barru-barrutik lotua dagoelako horrekin, aitortu beharrean aurkituko da, ezen erabateko erreforma bat edo, hobeto esan, jaiotza berri bat, orain arte erabat ezezaguna den plan baten arabera, ezinbestean gertatzear dagoela, nahiz eta aldi batean horren kontra, nahi den bezala, setatu.

Locke eta Leibnizen entseietatik hara, edo hobeto esan, Metafisikaren sorreratik bertatik, horren historia ailegatzen den punturaino, ez da ezer gertatu, zientzia honen patuaren kontsiderazioan, erabakiorrago izan zitekeenik, David Hume-k egin zion eraso baina. Humek ez zuen argirik ekarri jakintza-modu honetara, baina txinparta bat atera zuen, eta horrekin ederki pitz zitekeen argi bat ardagai suharbera bat aurkitu izan balu eta horren txingarra poliki-poliki zaindu eta suhanditu izan balitz.

Hume funtsean Metafisikako kontzeptu bakar, baina garrantzitsu, batetik abiatu zen, hots, kausa eta efektuaren arteko loturatik (eta beraz horren ondorio diren indar eta ekintza kontzeptuetatik, etab.) eta arrazoiari eskatzen zion, pretenditzen baitzuen honek kontzeptu hori bere altzoan sortu zuela, erantzun ziezaiola, ea zergatik pentsatzen zuen, gauza bat halako izaerakoa izan daitekeela, non behin gauza hori ezarriz gero horren bidez beste zerbaite ere derrigor ezarri behar baita: hauxe baita izan ere kausaren kontzeptua. Aurkaezinki demostratu zuen Humek, erabat ezinezkoa dela arrazoiarentzat a priori eta kontzeptu soiletatik horrelako loturarik bururatzea, derrigortasuna inplikatzeko baitu horrek; baina ez da batere argi ikusten, zergatik gauza bat badelako beste batek ere derrigor behar duen izan, eta nola ezar daitekeen a priori holako lotura baten kontzepturik. Hemendik ondoriotu zuen, erabat engainaturik dagoela arrazoiaren kontzeptu horrekin, oker kontsideratzen duela hori bere ume propiotzat, irudimenaren sasikume bat besterik ez baita, eta irudimenak, esperientziak ernaldurik, asoziazio-legearen barruan bildu dituela errepresentazio batzuk eta hortik sortzen den derrigortasun subjektiboa, hots ohitura, derrigortasun objektiboaren lekuan jartzen duela ziur jakiteak eraginik. Hortik ondoriotu zuen, arrazoiak ez duela inolako ahalmenik horrelako loturarik pentsatzeko, ezta orokorrean ere; ba orduan haren kontzeptuak asmazio hutsak besterik ez lirateke izango, eta haren ezagutza guztiak, a priori izatekoak omen zirenak, oker zigilatutako esperientzia arrunt batzuk besterik ez; honek, berriz, hauxe baino ez du esan nahi, alegia Metafisikarik ez dagoela batere, eta izateko modurik ere ez.²

Ondorioa zalapartakakoa eta okerra baldin bazen ere, gutxienez azterketan oinarritua zegoen, eta azterketa horrek merezi zuen garai hartako buru-argiak elkar zitezen eta problema, ahal adinean, egoki batean soluziona zezaten, Humek planteatu zuen sentiduan; gero hortik zientziaren erabateko erreforma batek etorri beharko zuen berandu baino lehen.

Patuak, ordea, Metafisikarentzat beti desfaborezkoa izan baita, nahi izan zuen Hume inork ulertu gabe gelditzea. Ezin daiteke ikus, nolabaiteko saminik sentitu gabe, nola haren kontrarioek, Reid, Oswald, Beattie eta azkenik baita Priestley-k ere beren egitekoaren puntu nagusia huts egin zuten, eta onartutzat ematen zuten justu Humek dudatan jartzen zuena, eta osteria berriz, zakarrean eta gehienetan apaltasun-falta handiz frogatzen zuten justu Humeri zalantzan jartzea sekula bururatu ere egin ez zitzaiona; horrela ez zioten tankerarik hartu haren hobekuntza-seinaleari eta lehen bezala geratu zen dena, ezertxo ere gertatu izan ez balitz bezala. Kontua ez zen, ea kausaren kontzeptua zuzena eta erabilgarria eta naturaren ezagutza osoari buruz baztertuezinekoa ote zen, hau ez baitzuen Hume sekula zalantzan jarri; baizik eta kontua zen, ea hori arrazoiaren bidez "a priori" pentsa ote daitekeen, eta ea horrela ba ote dagoen barne-egia bat, esperientzia orotatik libre dagoena eta beraz erabilgarritasun zabalagoa duena eta esperientziako zergauzetara bakarrik murrizturik ez dagoena; puntu honetan espero zuen Hume argitasun bat. Izan ere kontzeptu horren sorburuaz zen autua eta ez horrek praktikan duen ezinbestekotasunaz. Sorburu hori aurkitu izan balitz, orduan berez konponduko zen, bai hori usatzeko kondizioen problema eta bai horrek baliozkoa izateko daukan eremuaren problema.

Baina gizon ospetsuaren kontrarioek, egitekoa behar bezala beteko bazuten, oso sakon behar zuten arrazoiaren izaeran murgildu, arrazoiak pentsamendu hutsarekin arduratzen denez; baina hori ez zen haien gogoko. Orduan beste bide erosoago bat asmatu zuten, zuhurtasun guztiaren kontra joan gabe, eta hala, gizakien zentzu komunera jo zuten. Egia esan, zeruaren dohain handi bat da giza adimen zuzen bat (edo berriki deitu izan den bezala, zentzu tolesgabe bat) edukitzea. Baina hori egiteekin frogatu behar da, batek modu hausnartuan eta arrazoizkoan gauzatzen dituen egiteen bidez, eta ez batek, bere burua justifikatzeko ezer zentzuzkorik erakutsi ezin duenean zentzu komunera, orakulu batera bezala, apelatuz. Jakitea eta zientzia azkenetan daudenean, orduan, eta ez lehenago, giza zentzu komunera apelatzea, azken denbora hauetako asmakeria sotiletako bat besterik ez da; horrela, hitzontzirik ganorabakoena gauza izaten da bururik sakonenaekin nor baino nor lasai aritzeko eta bereari gogor eusteko. Jakite-hondar txikiren bat gelditzen den bitartean, nekez joko du batek besterik ezinean-go laguntza horretara. Eta ondo begiratzuz gero, jendetzaren judiziora jotzea besterik ez da apelazio hori. Txaloaldi honekin lotsagorritu egiten da filosofoa, barreragile herrikoa, aldiz, garailetu eta harropuztu. Nik, ordea, pentsatu behar nuen, Beatti-k bezain ondo apela zezakeela Hume ere gizakien zentzu komunera eta seguruenik, Beattik falta zuena, arrazoi kritikora ere bai, honek zaintzen baitu zentzu komuna bere mugen barruan, espekulaziotan gal ez dadin, edo horretaz bakarrik hitz egiten denean, ezer erabakitzeke pretentsiorik izan ez dezan, ez baitaki bere printzipioak justifikatzen; horrela bakarrik jarraituko du zentzu komunak adimen sana izaten. Trintxak eta mailuak oso ederki balio dezakete zur-puska bat lantzeko, baina kobreak grabazioak egiteko xixela beharko da. Eta hala, bai zentzu komuna eta bai arrazoi espekulatiboa, biak dira baliagarri bakoitza bere modura: zentzu komuna, inmediateki esperientzian erabiltzeko judizioak direnean, eta zentzu espekulatiboa, orokorrean, judizioa kontzeptu soiletatik hara juzgatu behar denean, esate baterako Metafisikan, non bere burua "per antiphrasin" sarritan zentzu komun deitzen duenak ez baitauka inolako judiziorik.

Benetan aitortzen dut nik: David Humeren oharpena izan zen, orain dela urte asko, ni lokuluska dogmatikotik lehenengoz esnatu ninduen eta espekulaziozko filosofiaren alorrean nire ikerketek erabat bestelako norabidea eman ziena. Oso urruti nengoen ni orduan Humeri, berak atera zituen konklusioetan segitzeko; eta horren arrazoiak zen, Hume problema ez zuela bere osotasunean aurkezten, baizik eta horren zati batera bakarrik murriztu zuela, eta zati honek, bere osotasunean begiratu ezean, ezin duela inolako argitasunik eman. Gu,

oinarrituta baina erabat desarroilatu gabe, beste batek eman digun pentsamendu batetik abiatzen baldin bagara, espero izatekoa da, pentsamendu hori hausnartzen jarraituz gero, argi horren txinparta aurrenekoz ikusi zuen gizaki buru-argiak baino aurrerago desarroilatuko dugula.

Beraz, lehendabizi ikusten saiatu nintzen, ea Humeren objekzioa orokorki aurkezteko modukoa ote zen, eta berandu baino lehen aurkitu nuen, ezen kausa-efektuen arteko lotura ez dela, ezta gutxiagorik ere, adimenak gauzen arteko loturak a priori bururatzeko erabiltzen duen bakarra; eta areago oraindik, horixe eta besterik ezer ez dela Metafisika guztia. Lotura horien kopurua ziurtatu nahi nuen, eta nola hau nik nahi bezala printzipio bakar batetik ateratzea lortu nuen, hurrena kontzeptu hauek deduzitzera jo nuen, zeintzuetaz orain ziur bainengoen ni, ezen horiek ez zeudela Humek errezelatzen zuen bezala, esperientziatik aterata, baizik eta adimen hutsetik sortuak direla. Dedukzio hori ezinezkoa iruditu zitzaion nire aurrelari buruargiari, eta horretaz aparte ez zuen beste inork planteatu, nahiz eta kontzeptu hau edozeinek erabiltzen duen lasai asko, galdetu ere egin gabe, zertan oinarritzen den horren balio objektiboa. Eta dedukzio hauxe zen, hona nik esan, Metafisika babestu ahal izateko, har zitekeen neurririk larriena; eta, kontu honetan okerreana dena, Metafisikak, inon existitzen dela ere, ezin zidan puntu honetan inolako laguntzarik eman, ba dedukzio horrek Metafisikaren posibilitatea bera frogatu behar du lehendabizi. Baina nola Humeren problema soluzionatzean, kasu berezi bakarra ez baina arrazoi hutsaren ahalmen osoa soluzionatzea lortu nuen, beraz modua neukan nik orain pauso mantsoak baina seguruak emateko, arrazoi hutsaren alkantzu osoa erabat eta printzipio orokorren arabera determinatzeko, bai horren mugetan eta bai horren edukinean; izan ere horixe zen Metafisikak behar zuena, bere sistema plan seguru baten arabera desarroilatzeke.

Beldur naiz ni, ea Humeren problemaren esplikazioari, bere hedadura posiblerik handienez, (arrazoi hutsaren kritikari buruzkoan kontuizu) gertatuko ez ote zaion, problemari berari, aurrena aurkeztu zenean, gertatu zitzaiona. Gaizki juzgatuko da, ondo ulertzen ez delako; eta ez da ondo ulertuko, liburua axaletik orrikatu bai baina hura sakon hausnartzeko gogorik ez dagoelako; eta horrelako ahaleginik ez da egin nahi izango, obra elkorra delako, iluna delako, ohiko kontzeptu guztien kontra doalako eta gainera luzea delako. Neure aldetik aitortu beharra daukat, ez nuela espero, filosofo baten ahotik zenbait kexa aditzea, alegia obrak herrikoitasunik, entretenigarriarik eta erosotasunik eskaintzen ez omen duelako, noiz eta autugaia hain goraipatua eta gizadiarentzat ezinbestekoa den ezagutza baten existentzia bera denean, zeina eskolako zorrozatasun metodologiko baten erregela zorrotzenak jarraituz bakarrik trata baitaiteke; horri, berriz, posible da denborarekin popularitateak gero segitzea, baina inola ere ez daiteke hori hasiera izan. Liburuaren iluntasuna dela-eta, berriz, zati batean planaren beraren hedadura gaitzetik datorrena da, eta horregatik ikerketan interesatzen diren punturik nagusienak ez dago behar bezala begiz harrapatzerik; alde horretatik, bidezkoa da erreparo hori; baina horixe argitzen saiatuko naiz ni Prolegomeno hauen bidez.

Obra horixe da oinarria, arrazoi hutsaren ahalmena aurkezten baitu bere hedadura osoan eta bere mugapenetan, eta beraz oinarri horren inguruan dabilta Prolegomenoak ere aurre ariketa gisa; ba kritika horrek, zientzia denez, sistemazki eta bere zatirik txikienetarako behar du funtzionatu, Metafisika plazaratzea pentsatu ere baino lehenago, edo horretarako urrutiko itxaropenik sortu ere baino lehen.

Aspalditik ohituta gaude, ezagutza zahar eta gastatuak zaharberriturik ikusten; horretarako libratzen dituzte behinolako loturetatik eta jantzi sistematiko bat egokitzen diete, norberaren gustuko ebakera duena, baina titulu berri baten azpian; eta kritika honetatik ere ez du besterik espero irakurleen gehiengoak aurretiaz. Prolegomeno hauek bakarrik lagunduko diote ikusten, erabat zientzia berria dela hori, horren

pentsamendurik ere ez duela inork lehenago bururatu, horren ideia soila ere ez zela ezaguna, eta horretarako orain arte dagoenetik ez zegoela ezertxo ere erabiltzerik, Humeren zalantzek eman zezaketen seinalea besterik. Gainera Humek berak ere ez zuen errezelatzen horrelako zientzia formal bat posible zenik, eta horregatik, bere barkua seguruan uztearren, hordartzan (eszeptizismoan) utzi zuen, non egon eta usteldu egin batzitekeen; horren ordeztu, niri orain inporta zaidana da, horri pilotu bat ematea, nabigazioko artearen printzipio seguruak, lur-globoaren ezagutzatik atera direnak, jarraituz eta itsaskarta osatu batekin eta konpas batekin horniturik, itsasuntzia on deritzon lekura seguru eramango duena.

Erabat isolaturik dagoen eta bere sailean bakarria den zientzia berri batera holako aurriritziarekin joateak, hura beste nonbaitetik inguratutako ezagutzekin juzgatzerik balego bezala, nahiz eta ezagutza hauexen errealitatea bera izan aurretiaz erabat dudatan jarri behar dena, horrek lortzen duena ez da besterik, batek beste bide batzuetatik ezagutzen dituen gauzak alde guztietan ikusten dituela uste izatea baino, esamolde batzuek haien antzekoak diruditelako; baizik ere bati hori dena erabat deformatua, burugabea eta nahaste-borraste bat iruditu behar zaiola, ba azpi-azpian oinarritzat jartzen dena ez baitira autorearen pentsamenduak, eta bai norberaren pentsamolde propioa, ohitura luze baten ondorioz norberaren natura eginik dagoena. Baina obraren hedadura bera, zientzian bertan eta ez azalpenean oinarritzen den neurrian, eta hor ezinbestekoa den elkortasuna eta zorrotzasun eskolastikoa, berezitasun batzuk dira, agian gaiarentzat berarentzat mesedegarri izan daitezkeenak, baina liburuari edozein modutan ere kalte besterik egiten ez diotenak.

Egia da, ez zaio edozeini eman David Humek bezain zorrotz eta, aldi berean, hain interesgarri idaztea, edo Moses Mendelsohn-ek bezain sakon eta hala ere hain dotore idaztea. Popularitatea, neronek ere eman niezaiokeen nik nire azalpenari (nire burua losintxatuz), nire asmoa izan balitz soilik plan bat proiektatzea, beronen egikaritza beste batzuen eskutan utziz, eta bihotzean hain sartua izan ez banu, aspaldidanik buru-belarri arazotzen nauen zientziaren ona; ba besteak beste, egonarri handia behar zen, eta abnegazioa ere ez makalagoa, ikuspegiaren onarpen goiztar eta aldeko baten lilura bazterrera utziz, beranduago, baina iraunkorrago, etorriko zen txalo bat lehenesteko.

Planak egitea oso espiritu-ariketa joria eta handiustekoa izaten da sarritan, horrela sormenezko jenio baten itxura ematen dio batek bere buruari, galdatzen baitu norberak egin ezin dezakeena, kritikatzin norberak inola ere hobeto egiten ez dakiena, eta proposatzen norberak non aurkitzen den ez dakiena. Dena dela, arrazoiaren kritika orokor bat egiteko plan egoki batek berak ere uste baino gehiago eskatuko luke, baldin eta, ohi den bezala, asmo piadoso batzuen deklamazio hutsetan gelditzekoa ez balitz. Baina arrazoi hutsa hain da esfera apartekoa, bere baitan hain osotoro ehoa eta lotua, ez baitago horren zatirik ukitzerik gainerako guztiak ere ukitu gabe, eta ez dago hori doitzerik eta artezterik ere, aurrena gauza bakoitzari bere lekua eta besteetan izan behar duen eragina ondo determinatu gabe; ba, nola ez dagoen ezer arrazoi hutsetik kanpora gure judizioa barrundik zuzenduko lukeenik, atal bakoitzaren balioa eta usaera, honek arrazoiaren barruan beste elementuekin daukan harremanaren araberakoa da, eta, gorputz organizatu baten egitura batean bezala, gorputz-atal bakoitzaren funtzioa ere osotasunaren kontzeptu osatu batetik bakarrik atera daiteke. Beraz, horrelako kritika bategatik esan daiteke, inoiz ere ez dela fidatzekoa, baldin eta osoro eta arrazoi hutsaren elementu koskorrenetarako akabatua ez bada, eta ahalmen horrexen esferatik definitu eta erabaki behar dela, dena ala batere ez.

Baina plan soil bat, Arrazoi hutsaren kritika baino lehen eginda, ulergaitza, fidakaitza eta alferra izango balitz ere, horren ondorenean eginda askoz ere etekintsuago izango da. Ba aukera emango du honek osotasunari begiratu bat emateko, zientzia honi

dagozkion puntu nagusiak zatika-zatika probatzeko eta punturen batzuk, azalpenaren ondoren, obra aurrenekoz idatzi zenean baino hobeto antolatzeko.

Hona, ba, hemen holako plan bat, obra bukatu ondoren egindakoa, eta beraz metodo analitikoaren arabera aplikatu daitekeena; ba izan ere, obra bera erabat metodo sintetikoaren arabera egin behar izan zen, arren eta zientziak bere artikulazio guztiak bere begien aurrean jar zitzaizkion, ezagutzeko ahalmen guztiz berezi baten egitura bezala, bere erlazio naturalean. Nik prolegomeno bezala etorkizuneko Metafisika ororen aurretik jartzen dudana plan hau ere iluna aurkitzen baldin badu baten batek, pentsa beza halakoak, ez dela beharrezkoa denak Metafisika estudiantzen aritzea, eta badaudela talentu batzuk, intuiziotik gertuago dauden zientzia oinarritzko eta are sakonetan ederki batean moldatzen direnak, baina kontzeptu abstraktuen alorrean ikerketarik egiten asmatzen ez dutenak, eta honelako kasuetan beste langai batzuetan erabili behar lituzketela beren buru-dohainak; baina Metafisika aztertzeko, eta are norberak beste bat eraikitzeko asmorik hartzen denean, orduan behar adinako jaramon bat egin beharra dagoela hemen azaltzen diren galdakizunei; eta orduan gerta daiteke, onartu egiten dela nire soluzioa, edo funtsezki errefutatzen dela eta horren lekuan beste bat proposatzen dela -alde batera utzi eta kito egiterik ez baitago- eta azkenean iluntasun malapartatua omen zenak (norberaren alferkeria edo begimoztasunaren ohizko tapagarria baino ez baita) bere probetxua izango duela; ba gainerako zientzia guztiei buruz isiltasun zuhur bat erakusten duten guztiek, Metafisikako autuetan maisukiro hitz egiten dute eta ausarki ematen dituzte erabakiak; gai honetan ez baita hain garbi nabarmentzen horien ezjakintasuna besteen zientziaren ondoan, baina bai benetako printzipio kritikoen ondoan; eta hauetaz honela loria daiteke:

ignavum, fucos, pecus praesepibus arcent. Virg.

("Erlauntzetatik urrutik mantentzen dute erle-mandoen talde alferra". Itzultzailearen itzulpena)

PROLEGOMENOAK

Edozein ezagutza metafisikoren
berekitasunari buruzko aurre-nozioak

I

Metafisikaren iturriak

Ezagutza bat zientzia bezala aurkeztu nahi denean, zehatz-mehatz determinatu behar ahal izan da aurrena, zein den haren apartekotasuna, hau da, hura beste edozein zientziatatik bereizten duena eta hark, ondorioz, bere berekia duena; bestela bata bestearekin nahastuko dira zientzia guztien arteko mugak eta zientzia bakarrik ere ezin tratatuko da sakontasunez, bakoitzaren izaerari dagokion moduan.

Berekitasun hori izan daiteke, objektuaren diferentzia edo ezagutza-iturriena edo ezagutzeko moduarena, eta parte horiena guztiena batera ez denean, horietako batzuenak bakarrik; horren gainean oinarritzen da lehendabizi zientzia posible baten ideia eta honen eremuarena.

Lehenengo eta behin, ezagutza metafisiko baten iturriari dagokienez, horien kontzeptuak berak inplikatzeko duen gauza da, ezin direla horiek enpirikoak izan. Beraz, horien printzipioak (bai postulatuak eta bai oinarritzko kontzeptuak sartzen dira hor) ez dago inola ere esperientziatik jasotzerik; ba ezagutza horrek izan behar du, ez fisikoa eta bai metafisiko, h. d., esperientziaren bestaldean dagoena. Beraz, horren oinarria ez da izango ez kanpoko esperientzia, egiazko Fisikaren iturria dena, eta ez barruko esperientzia, Psikologia enpirikoaren oinarria dena. Hori, beraz, apriorizko ezagutza da, adimen hutsetik eta arrazoi hutsetik datorrena.

Puntu honetan, alabaina, ez luke ezer izango Matematika hutsetik bereziko lukeenik; eta ezagutza filosofiko hutsa deitu beharko litzateke; baina deitura honen esanahiari dagokionez, "Kritik d. r. Vernunft" 712. or. eta hurr. etara joko dut nik, non arrazoiaren bi erabilera-modu hauen arteko diferentzia argiro eta askitasunez azaldua dagoen. -Bego honenbestean ezagutza metafisikoaren iturriari buruz esan behar nuena.

II

Metafisikoa soilik dei daitekeen ezagutzeko modua

a) Judizio sintetiko eta analitikoaren arteko diferentzia oro har

Ezagutza metafisikoak apriorizko judizioak bakarrik eduki behar ditu, hau galdatzen du haren iturrien berekitasunak. Baina judizioak, nahi duten jatorria daukatela ere, edo beren forma logikoari dagokionez, nahi duten bezala eratuak daudela ere, beti egongo da diferentzia bat beren artean, edukinari buruz, eta horren arabera batzuk izango dira edukin-argitzaile, eta orduan ezagutzaren edukinari ez diote ezer berririk gaineratuko, edo izango dira edukin-zabaltzaile, eta orduan hedatu eta handiagotu egingo dute lehen emandako ezagutza. Aurrenekoak judizio analitiko dei daitezke, eta bigarrenak judizio sintetiko.

Judizio analitikoek ez dute ezer esaten predikatuan, lehendik ere subjektuaren kontzeptuan, hain argi eta hainbesteko kontzientziarekin ez bazen ere, benetan pentsatua zegoena besterik. Nik esaten badut: "gorputz guztiak hedatuak dira", nik ez dut gorputzei buruzko neure buruera batetxo ere zabaldu, analizatu egin dut bakarrik, ba kontzeptu horren hedadura, espreski esana ez bazegoen ere, judizioa baino lehenago ere benetan pentsatua zegoen; judizioa hortaz analitikoa da. Alderantziz esaten bada: "gorputz batzuk astunak dira", orduan esan horrek badauka predikatuan zerbait, gorputzen kontzeptu orokorrean benetan pentsatu gabe zegoena; horrek handitu egiten du nire ezagutza, ba nire kontzeptuari zerbait gehiago eranstean dio, eta hortaz judizio sintetikoa deitu behar da hori.

b) Judizio analitiko guztien printzipio komuna kontraesanezko proposizioa da

Judizio analitiko guztiak kontraesanezko proposizioan oinarritzen dira erabat eta, beren izatez, apriorizko ezagutza izaten dira; langaitzat erabiltzen dituzten kontzeptuak, berriz, enpirikoak nahiz bestelakoak izan daitezke. Ba, nola judizio analitiko baiezk baten predikatua lehendik ere subjektuaren kontzeptuan pentsatua dagoen, ezin du honek hura ezeztatu kontraesanean erori gabe; era berean horren kontrakoa ere derrigor ezeztatuko du subjektuak judizio analitiko, baina ezezko, batean, eta ezeztatu ere kontraesanezko proposizioaren ondorioz. Hala gertatzen da esakun hauekin: "Edozein gorputz hedatua da" eta "gorputzik ez da hedatu gabekorik" (bakuna).

Justu horrexegatik dira proposizio analitiko guztiak apriorizko, baita beren kontzeptuak enpirikoak direnean ere, adib.: "Urrea metal horia da". Hori jakiteko, nire urre kontzeptuaz aparte, ez daukat nik bestelako esperientzia beharrik, ba urre kontzeptuaren barruan sartzen da gorputz hori horia izatea eta metala izatea: hain zuzen ere, horixe baita nire kontzeptua osatzen duena; eta nik egin dezakedan guztia hori analizatzea besterik ez da, hortik kanpora bazterrak miatzen ibili gabe.

c) Judizio sintetikoek beste printzipio bat behar dute eta ez kontraesanezko printzipioa. Badira judizio sintetiko aposteriorizkoak, beren jatorria enpirikoa dutenak, baina apriorizkoak ere badira, adimen eta arrazoi hutsetik sortuak direnak. Baina biok datoz bat, ezen horiek ezin direla inola ere sortu analisi-printzipioaren, hau da, kontraesanezko printzipioaren arabera. Oso bestelako printzipio bat eskatzen dute horiek, nahiz eta zernahi postulaturatik, edozein dela ere hau, beti kontraesanezko printzipioaren arabera deduzitu beharrekoak izan; ba, printzipio horren kontra ez dauka ezerk joaterik, nahiz eta dena hortik deduzitzerik egon ez. Aurrena judizio sintetikoak sailkatuko ditut.

1) Esperientziazko judizioak sintetikoak izaten dira beti. Ba absurdua litzateke judizio analitiko bat esperientzian oinarritzea, nik ez baitaukat inola ere neure kontzeptutik ateratzerik judizioa egiteko, eta beraz esperientziako testigurik ez dut behar horretarako. Gorputz bat hedatua dela a priori garbi dagoen proposizioa da, eta ez da esperientziazko judizio. Ba esperientziara jo baino lehenago ere kontzeptuan bertan dauzkat nik judizioa egiteko behar ditudan kondizio guztiak, eta hortik atera dezaket nik predikatua kontraesanezko printzipioaren arabera, eta horren bidez modua izango dut aldi berean judizio horren derrigortasunaz jabetzeko; hau, alabaina, esperientziak ez lidake inoiz ere irakatsiko.

2) Judizio matematikoak sintetikoak izaten dira denak. Proposizio honek, badirudi orain arte erabat aldegin diela giza arrazoia aztertzen aritu diren analisten hautemapenei eta erabat kontra ere badagoela haiek egin dituzten suposizio guztiekin, nahiz eta aurkaezinki ziurra izan eta, ondoriotan, guztiz garrantzitsua. Izan ere aurkitu baitzen, ezen matematikarien konklusioek kontraesanezko printzipioaren arabera funtzionatzen dutela denek (hau, berriz, ziurtasun apodiktiko bakoitzaren izaerak berak eskatzen duen gauza da), orduan konbentzitu ziren, ezen Matematikako printzipioak berak ere kontraesanezko printzipioaren arabera ezagut zitezkeela, baina erabat oker zeuden honetan; ba egia da, proposizio sintetiko bat kontsidera daitekeela kontraesanezko printzipioaren arabera, baina zerako kasutan bakarrik da hori posible, alegia beste proposizio sintetiko bat presuposatzen denean eta hura hemendik ondorio daitekeenean, baina inola ere ez berez.

Beste ezer baino lehen ohartu behar da, benetako proposizio matematikoak apriorizko judizio direla eta ez direla enpirikoak, ba beren baitan eramaten dute derrigortasuna eta hori ezin daiteke esperientziatik atera. Baina neuri ez didate hau aitortu nahi; tira ba!, Matematika hutsera murriztuko dut nire tesia, zeinaren kontzeptuak berez baitarama ezagutza enpirikorik ez baizik ezagutza apriorizkoak bakarrik edukitzea.

Hasteko pentsatu behar litzateke, ezen proposizio hau: $7+5=12$ proposizio analitiko bat besterik ez dela, eta zazpi eta bost batzeko kontzeptutik kontraesanezko printzipioaren

arabera ateratzen dela. Baina hori gertuagotik begiratzen baldin bada, aurkitzen da, ezen 7 eta 5 batzearen kontzeptuak ez daukala ezertxo ere bere baitan, bi numero horiek bat egitea besterik, eta horregatik ez da batere pentsatzen zein ote den bi numero horiek batera biltzen dituen numero bakarra. Nik ez dut hamabiren kontzeptua pentsatzen zazpi eta bostekin egindako batura pentsatuz bakarrik, eta nik horrelako batura posible bati buruz daukadan ideia nahi hainbat analizatzen badut ere, ez dut bertan hamabirik aurkituko. Kontzeptu horietatik kanpora joan beharra dago, horietako bati dagokion intuizioa laguntzat hartuz; adibidez norberaren bost behatzak edo bost puntu (Segner-ek bere Arithmetik-ean egiten duen bezala), eta intuizioan aurkitutako bostekoaren unitateak zazpiaren kontzeptuari behin eta berriz gehituz. Beraz, zabaldu egiten da norberaren kontzeptua $7 + 5 = 12$ ko proposizio horrekin eta lehengo kontzeptuari beste berri bat gehitzen zaio, aurrekoan inplikaturik ez zegoena; hau da, proposizio aritmetikoa sintetikoa sintetikoa da beti, eta hau argiago gelditzen da oraindik, numero handiagoak hartzen baldin badira. Gauza nabaria da, beraz, ezen guk, gure kontzeptuari nahi hainbat jira eta buelta eman arren, delako batura hori sekula ez dugula aurkituko gure kontzeptua analizatuz bakarrik eta intuizioaren laguntzarik gabe.

Berebat Geometria hutseko printzipioak ere ez dira analitikoak. Lerro zuzena bi punturen arteko laburrena dela, proposizio sintetiko bat da. Ba nik "zuzena"z daukadan kontzeptuak ez du inkluditzen ezer tamainaz eta hau kualitate bat besterik ez da. "Laburrena"ren ideia erabat gaineratutakoa da eta hori ez dago lerro zuzenaren kontzeptua analizatuz inola ere jariatzerik. Ezinbestekoa da hemen intuizioaz baliatzea, eta horren bidez bakarrik egin ahal izango da sintesia.

Geometrilariak aurretiaz suposatzen dituen beste printzipio batzuk analitikoak izaten dira benetan eta kontraesanezko printzipioan oinarritzen dira; baina proposizio identikoek bezala, metodoaren kate izateko bakarrik balio izaten dute, eta ez printzipio izateko. Adib., $a = a$, osokia bere buruaren berdina da; edo $(a + b) > a$, hau da, osokia bere zati bat baino handiagoa da. Eta hauek berak ere, nahiz eta kontzeptu soilen balioa izan, Matematikan ametitzen baldin badira, intuizioan errepresentatuak izan daitezkeelako bakarrik da. Ohiki hemen, guri uste izanarazten diguna, ezen judizio apodiktiko horien predikatua jada gure kontzeptuan sarturik dagoela, eta judizioa, beraz, analitikoa dela, esamoldearen anbiguitatea besterik ez da. Izan ere, guk kontzeptu jakin batentzat predikatu jakin bat bururatu beharra izaten dugu, eta derrigortasun hori kontzeptuetan bertan inplikaturik egoten da. Baina galdea ez da, ea guk zer gehitu behar diogun pentsamenduarekin emandako kontzeptu jakin bati, baizik eta ea guk benetan, ilun bada ere, zer pentsatzen dugun bertan. Eta hor ikusten da, ezen predikatua kontzeptu horiei lotua dagoela, eta lotua ere derrigorrez, baina ez inediatuki, baizik horri gehitu behar zaion intuizio baten bidez.

III

Judizioak orokorki analitiko eta sintetikotan banatzeari buruzko oharra

Giza adimenaren kritikari buruzko banaketa hau ezinbestekoa da eta merezi du bertan klasikoa izatea: bestela ez nuke jakingo esaten, beste non izan dezakeen horrek kontuan hartzeko moduko etekinik. Hementxe aurkitzen dut nik arrazoia, zergatik filosofo dogmatikoek, judizio metafisikoen iturria beti Metafisikan bakarrik, eta ez hortik kanpora arrazoi hutsaren legeetan oro har, bilatzen dutenek, zergatik zabartzen duten banaketa hau, nahiz eta dirudien berez datorrena dela, eta nola Wolff ospetsuak, edo honen urratsak jarraitzen dituen Baumgarten burutxorrotxak, kontraesanezko printzipioan bila zezaketen askitasunezko arrazoiaren printzipioaren frogia, printzipio hau nabariki sintetikoa izanik. Ostera, berriz, Locke-k giza adimenari buruz egiten duen entseian, keinu bat edo aurkitzen dut nik jada banaketa horretarako. Ba laugarren

liburuan, hirugarren atalburuan, § 9. eta hurr.etan, judizioetan eta hauen iturrietan errepresentazioek dauzkaten lotura desberdinez hitz egin ondoren, zeintzuetako bat identitatean edo kontraesanean jartzen baitu (judizio analitikoak), eta bestea subjektu bateko errepresentazioen existentzian (judizio sintetikoak), berak aitortzen du § 10.ean, ezen oso urria eta ia hutsa ere badela, guk azkeneko hauetaz daukagun ezagutza (apriorizkoa). Baina ezagutza-modu horretaz dioten hartan hain da apurra determinaturik eta araturik dagoena, ez baita harritzekoa inork, ezta Humek berak ere, aukerarik ez hartzea honelako proposizioez gogoetarik egiteko. Ba honelako printzipio orokor eta halere determinaturik ez da aise ikasten besteengandik, beste hauentzat ere printzipio horiek ilun eta zalantzazkoak direnean. Pentsatuaren pentsatuz norberak iritsi behar du horietara lehendabizi, eta gero, beste nonbait ere aurkituko dira, hasiera batean aurkitu izango ez ziren beste toki batzuetan ere bai, autoreek berek ere ez baitzekiten, beren oharpenen oinarrian bertan ere halako ideiarik aurkitzen zenik. Berenkasa inoiz pentsatzen ez dutenek izaten dute halere halako burutxorroxotasun bat, besteek erakutsi ondoren, dena hantxe begiztatzeko, nahiz eta bertan, gorago esan denez, lehen inork ezer ikusten ez zuen.³

IV

Prolegomenoetako galdera orokorra:

Metafisika posible al da benetan?

Bere burua zientziazat joko lukeen Metafisikarik benetan balego honela esango litzateke: hona non dagoen Metafisika, hauxe ikasi behar duzue, eta berak konbentzituko zaituzte bere egiaz aurkaezinki eta aldaezinki. Hori esaterik balego, alferra litzateke galdera hori, eta geldituko litzatekeena izango litzateke, ea Metafisika nola den posible eta arrazoiak nondik abiatzen den hara iristeko. Galdera hau, berriz, areago da gure burutxorroxotasuna probatzeko, gauzaren existentzia bera frogatzeko baino. Dena dela, giza arrazoiak ez da puntu honetan horrenbestearaino iritsi, eta ez dago erakusterik liburu bakarrik ere, Euklides bat erakusten den bezala, esanez: hauxe da Metafisika, hemen aurkituko duzue zuek zientzia horren helbururik printzipalena, izaki goren baten eta etorkizuneko mundu baten ezagutza, eta dena arrazoi hutsaren printzipioen bidez frogaturik. Izan ere, proposizio asko ekar daitezke ziur apodiktiko direnak eta inoiz ere eztabaidatu ez direnak; baina horiek denak analitikoak dira eta areago dira Metafisikako material eta eraikuntza-gauzei buruzkoak, ezagutza zabaltzeari dagozkionak baino; eta justu hauxe da guk Metafisikarekin bilatzen duguna (§ 2, c.). Baina nahiz eta zuek proposizio sintetikoak ere aurkeztu (e. b. askitasunezko arrazoiaren printzipioa), zeintzuk inoiz ere ez baitituzue frogatu arrazoi soilez, hau da a priori, zuen obligazioa zen bezala, eta horiek jendeak ontzat ematen baldin badizkizue ere, nolanahi ere, halako afirmazio ametiezineko eta segurtasungabeko batean jausten zarete horiek zuen helburu nagusirako erabili nahi dituzuenean; ba Metafisika batek beti kontraesaten dio besteari, dela afirmazioagatik beragatik, dela horren frogagatik, eta hala berak deuseztu du onarpen iraunkor bat lortzeko uzia bera ere. Eta zalantzarik gabe, honelako zientzia bat martxan jartzeko ahaleginak berak izan dira aurreneko kausa, eszeptizismoa hain goiz piztarazteko. Izan ere pentsamolde honetan, arrazoiak hain bortizki jotzen du bere buruaren kontra, ze horrek ez baitzuen inola ere sortzerik izango, bere asmo garrantzitsuenak ase ezinik erabateko desesperazioan aurkitu izan ez balitz. Ba naturari metodozki galdetzen hasi baino askoz ere lehenago, horren arrazoiak aparte hartu eta hari bakarrik galdetzen zitzaion; hori, berriz, esperientzia arruntaren bidez trebatua zegoen tamaina batean; izan ere, arrazoiak beti egon da presente gudan, baina natur legeak normalean nekatuz ikertu behar izaten dira: eta hala Metafisika igeri ibiltzen zen gainean, aparra bezala; eta ibili ere halako eran, ze batek egindakoa desegiten zen bezain pronto, beste bat agertzen baitzen ur-azalaren gainean, eta batzuek

hori irrikitzen biltzen zuten bitartean, beste batzuek, agerpen horren kausa, sakonean bilatu beharrean, jakintsutzat jotzen zuten beren burua, aurrenekoen ahalegin alferrengatik barre egiten zutelako.

Ezagutza matematiko hutsaren esentzialkia eta hori beste edozein apriorizko ezagutzetatik bereizten duena da, ezagutza-modu horrek ez duela inola ere kontzeptuetatik sortu behar, eta bai beti kontzeptugintzaren bidetik bakarrik (Kritik 713. or.). Eta nola ezagutza horrek bere proposizioetan kontzeptua baino harago joan behar duen, kontzeptu horri dagokion intuizioa daukan hura atzemateko, beraz, horren proposizioak ezin dira inoiz sortu, eta ez dute sortu behar, kontzeptuak analizatuz, h. d., analisi bidez, eta beraz sintetikoak dira denak.

Nolanahi ere ezin dut ohartzeke utzi, arina eta muntagabea dirudien arren, filosofiaren hautemapen hau zabartzeak berekin ekarri duen kaltea. Hume, filosofo baten senari jarraituz, bere begiratua apriorizko ezagutza hutsaren eremu osora zabaldu beharrean aurkitu zenean, ustez sekulako bazterrak eskuratu baititu giza adimenak bertan, oharkabean probintzia oso bat eta bertako garrantzitsuena moztu zuen bertatik, Matematika hutsaren eremua alegia, uste izanik, ezen horren izaera, eta horren Konstituzio politikoa nolabait esateko, erabat beste printzipio batzuen gainean altxatzen zela, alegia kontraesanezko printzipioaren gainean soilik; eta nahiz hark proposizioen banaketa nik hemen egiten dudan bezain formalki eta orokorki edo izendapen berarekin egin ez, nolanahi ere hark zerau esan izan balu bezalaxe da: Matematika hutsak proposizio analitikoak bakarrik dauzka, eta Metafisikak apriorizko sintetikoak bakarrik. Baina zeharo oker zebilen puntu honetan, eta oker horrek biziki ondorio txarrak izan zituen haren pentsamendu osoarentzat. Zeren oker hori egin izan ez balu, orduan gure judizio sintetikoen sorrerari buruzko galdera bere kausalitate-nozio metafisikoa baino askoz harago zabalduko zuen eta apriorizko Matematikaren ahalgarritasunera ere hedatu egingo zuen; ba hau ere sintetikotzat onartu beharrean aurkitzen zen. Baina gero, bere proposizio metafisikoak ezin izango zituen inola ere esperientzia soilean oinarritu, zeren bestela Matematika hutsaren axiomak ere berdin-berdin jarri beharko zituen esperientziaren azpian, eta hori egiteko begizorroitzegia zen hura. Metafisika, berriz, orduan bere inguruan izango zuen konpainia ederrak babestuko zuen tratu txar desegoki bat hartzeko arriskutik, ba Metafisikarentzat pentsaturik zeuden kolpeek, honen konpainia, Matematika, ere harrapatu beharko baitzuten; hau, berriz, ez zen eta izan ere ezin zitekeen izan haren asmoa: eta hala, gogoetak egiten hasiko zen gure gizon buruxorrotza, izango baitziren guk eskuartean dauzkagun hauen antzekoak, baina haren azalpen imitaezinki ederrari esker paregabe irabaziko zuten.

Benetako judizio metafisikoak denak dira sintetiko. Hala ere berezi beharra dago Metafisikakoak diren judizioak hertsiki metafisikoak direnetatik. Aurrenekoen artean analitikoak izaten dira asko eta asko, baina helpidearen lana besterik ez dute egiten judizio metafisikoetarako, hauetara zuzendua baitago erabat zientziaren xedea, eta hauek sintetikoak izaten dira beti. Ba kontzeptuak Metafisikakoak direnean, substantziarena kasu, orduan horiek analizatze soiletik sortzen diren judizioak ere Metafisikakoak izango dira derrigor. Esate baterako: substantzia da, subjektu bezala existitzen dena bakarrik etab., eta hori bezalako beste judizio analitiko batzuen bidez saiatzen gara kontzeptuen definiziora hurbiltzen. Baina nola adimen-kontzeptu huts baten analisisa (Metafisikan daudenena bezalakoa) beste edozein kontzepturena, are enpirikoena eta Metafisikakoak ez direnena, bezalaxe egiten baita eta ez baitago beste biderik horretarako (adibidez, "airea fluido elastiko bat da, eta horren elastizitatea ez dago inolako hotz-gradu ezagunen bidez desegiterik"); orduan kontzeptua, bai, hertsiki metafisikoa izango da, baina judizio analitikoa ez: ba izan ere, zientzia honek badu apartekotasun eta berekitasun bat bere apriorizko ezagutzak sortzekoan, beste adimen-

ezagutza guztiekin komuna duen hartatik ondo berezi behar dena. Adibidez, esakun hau: "gauzetan substantzia den guztia iraunkorra da", esakun sintetikoa eta hertsiki metafisikoa da.

Metafisikaren gaia eta tresnak osatzen dituzten apriorizko kontzeptuak, aurretiaz printzipio jakin batzuen arabera bildu baldin badira, balio handikoa izaten da gero kontzeptu horien analisia; hori aparte ere aurkez daiteke, Metafisikako proposizio analitiko hutsak dauzkan aparteko zati bat bezala (philosophia definitiva bezala-edo), Metafisika bera osatzen duten proposizio sintetikoetatik berezirik. Izan ere, analisi horiek inon ere ez daukate probetxu aipagarriarik Metafisikan bestetan, h. d., aurretiaz analizatutako kontzeptu haietatik atera behar diren proposizio sintetikoei buruz.

Hona, ba, paragrafo honen konklusioa: alegia Metafisikaren autugai hertsia apriorizko proposizio metafisikoak dira, eta hauek bakarrik osatzen dute horren helburua; horretarako, berriz, bere kontzeptuen analisi batzuk behar izaten ditu, noski, eta ondorioz judizio analitikoak; baina horretarako prozedura ere ez da, bere kontzeptuak analisiaren bidez argitzea bilatzen duen beste edozein ezagutza-modurena ez-bezalakoa. Beraz apriorizko ezagutzak sortzea, hala intuizioaren nola kontzeptuen arabekoak, eta azken buruan baita apriorizko proposizio sintetikoak ere, eta gainera ezagutza filosofikoan, horra zerk osatzen duen Metafisikaren edukin esentziala.

Beraz, dogmatismoarekin asper-asper eginik, ez baitigu ezer irakasten, eta beste horrenbeste eszeptizismoarekin, ez baitigu ezertxo ere promesten, ezta zilegizko ezjakintasunaren atsedena ere; bestalde, berriz, beharrezkoa dugun zientziaren garrantziak zirikaturik eta, egindako esperientzia luzearen ondoren, guk eduki uste dugunarekin edo guri arrazoi hutsaren titulupean eskaintzen zaigunarekin fidakaitz bihurturik, galdera kritiko bat besterik ez zaigu gelditzen, eta horri ematen diogun erantzunaren eredura antolatu ahal izango dugu gure geroko jokaera. Hona galdera: Metafisika benetan al da posible? Baina galdera horri ez dago erantzuterik Metafisika erreal baten tesi jakin batzuen kontra objekzio eszeptikoak eginez, (orain oraingoz ez dugu inolako Metafisikarik ontzat ematen); aldiz, horri erantzuteko, oraindik ere holako zientzia batean problematikoa besterik ez den kontzeptu batetik abiatu behar da.

"Kritik der reinen Vernunft" izeneko obran sintetikoki ekin nion nik galdera horri, eta hala, arrazoi hutsaren baitan bertan aritu nintzen ikertzen, eta iturri horretan bertan saiatu nintzen determinatzen, printzipio batzuen arabera, bai usaera huts horren elementuak eta bai horren legeak. Lan hori oso latza da eta eskatzen du irakurle bat, hanka eta buru oinarritzat adimena besterik ezer ez duen sistema baten barruan gero eta gehiago sartuko dena, eta beraz ezagutza, inolako egitate edo faktu batean apoiatu gabe, bere aurren-aurreneko ernamuinetik ateratzen saiatuko dena. Prolegomeno hauek, berriz, aurre-ariketa batzuk izan nahi dute; areago erakutsiko dute zer egin behar den zientzia bat, ahal denean, gauzatzeko, zientzia hori bera erakutsi baino. Horretarako, fidagarritzat jotzen den zerbaitetan apoiatu behar dute, handik konfiantzarekin abiatuz, oraindik ezagutzen ez diren iturrietaraino igo ahal izateko; horien deskubrimenduak argituko digu gero, ez bakarrik lehendik badakiguna, baizik eta, aldi berean, beste ezagutza-mordo handi bat ere erakutsiko dizkigu, denak ere iturri beretatik ateratzen direnak. Prolegomenoen prozedura metodikoa, beraz, batik bat etorkizuneko Metafisikarako bidea prestatu behar dutenena, analitikoa izango da.

Alabaina, zorionez gertatzen da, ezen, guk ezin onartu baldin badugu ere Metafisika benetan zientzia bezala badenik, hala ere ziurtasunez esan genezakeela, ezen apriorizko ezagutza sintetiko jakin batzuk bederen errealak eta emanak direla, hala nola Matematika hutsa eta natur zientzia hutsa; ba biek dauzkate horiek proposizio batzuk, unibertsalki onartzen dituztenak, alde batetik arrazoi soilak apodiktikoki ziur bezala, eta bestetik adostasun komunak esperientziatik jasotakoak baina hala ere esperientziatik

independente daudenak bezala. Beraz, badauzkagu apriorizko ezagutza gutxi batzuk, eztabaidagabeak eta sintetikoak direnak, eta ez daukagu zertan galdetu, horiek posible ote diren (izan, benetan badirenez gero); baizik eta galdetu behar duguna da, ea horiek nola diren posible, arren eta, badirenak ahalgarri direla dioen printzipiotik gainerako guztien ahalgarritasuna ere ondoriotzeko modua izan dezagun.

V

Prolegomenoen galdera orokorra:

Nola da posible ezagutza arrazoi hutsetik?

Horago ikusi dugu zeinen alde handia dagoen judizio analitikoen eta sintetikoen artean. Proposizio analitikoen posibilitatea oso erraz ulertu ahal izan da, azken buruan kontraesanezko printzipioan oinarritzen da-eta. Aposteriorizko proposizio sintetikoen posibilitateak, h. d., esperientziatik jaso daitezkeen proposizioenak, ez du aparteko esplikaziorik behar; esperientzia bera ere ez baita etengabeko hautemapen-bilketa (sintesi) bat besterik. Beraz, apriorizko proposizio sintetikoak bakarrik gelditzen zaizkigu, beren posibilitatea bilatu edo aztertzeke; ba horrek ez du kontraesanezko printzipioan oinarritu behar eta bai beste printzipio batzuetan.

Alabaina, gu ez gara hemen hasiko holako proposizioen posibilitatea bilatzen, h. d., ez gara hasiko galdetzen, ea horiek posible diren ala ez. Aski ere aski baitaude holakoak, eta benetan eztabaidagabeko ziurtasunez jantziak gainera; baina nola guk orain segitzen dugun metodoa analitikoa izatekoa den, abiapuntutzat hartuko dugu, ezen honelako arrazoi-ezagutza sintetiko bat, hutsa izanik ere, erreala dela. Hurrena, berriz, posibilitate horren funtsa aztertu beharko dugu, eta galdetu beharko dugu, ea ezagutza hori nola den posible, arren eta, horren posibilitatearen printzipioetatik abiatuz, hori erabiltzeko baldintzak eta horren hedadura eta mugak determinatzeko moduan egon gaitezen. Hona, ba, zein den benetako egitekoa, zehaztasun eskolastikoarekin azaldua eta dena bere baitan biltzen duena:

Nola dira posible apriorizko proposizio sintetikoak?

Horago, esamolde herrikoari gustu emanez, pittin bat bestela formulatu dut arazoa, alegia arrazoi hutsezko ezagutzari buruzko galde bat bezala; hau, berriz, bilatzen zen ezagutzaren desabantailarik gabe egin nezakeen orduan, ba hemen azken buruko autua Metafisika eta honen iturriak izanik eta lehen egindako oharra jarraituz, gogoan izango da beti, hala espero dut behintzat, ezen guk hemen arrazoi hutsezko ezagutzaz hitz egiten dugunean, autua ez dela inoiz ere ezagutza analitikoaz eta bai sintetikoaz bakarrik⁴.

Problema hauexen soluziotik esekita dago erabat Metafisikaren zutik egotea ala lur jotzea, eta beraz Metafisikaren existentzia bera ere bai. Aurkez bitza batek bere esanak denik eta distirarik handienarekin, arrazoiak eta arrazoiak okitzeraino emanez, baina gauza ez baldin bada lehendabizi aurreko galdera horri askitasunez erantzuteko, eskubide izango dut nik halakoari esateko: hori dena funtsik gabeko filosofia alferra eta zientzia faltsua besterik ez da. Zuk arrazoi hutsaren bitartez hitz egiten duzu eta apriorizko ezagutzak sortu asmo dituzu, ez emandako kontzeptu jakin batzuk analizatuz bakarrik, bazik eta konbinazio berriak, kontraesanezko printzipioan apoiatuko ez liratekeenak eta halere, zure ustez, esperientzia orotatik libre egongo liratekeenak, ausartuz ere bai. Nola iritsi zara zu horretara? eta nola justifikatu nahi duzu zeure burua pretentsio edo uzi horietatik? Ez duzu zilegi giza zentzu komunaren adostasunera apelatzea; ba testigu horren ospe guztiak jendearen esamesak beste oinarriak ez dauka. Quodcunque ostendis mihi sic, incredulus odi.

("Horrela erakusten didazun edozer, sineskaitz baztertuko dut". Itzultzailearen itzulpena) Horat.

Gutziz ezinbestekoa da galdera honi erantzutea, baina guztiz gaitza ere bai; eta arrazoirik behinena, zergatik horri aspaldidanik inor erantzuten saiatu ez den, zerako hau da, alegia inori ez zaiola bururatu holako galderarik egin zitekeenik ere; bigarren arrazoa, berriz, da, ezen galdera horri behar bezalako askitasunez erantzuteko, askoz ere gogoeta luze, sakon eta neketsuagoak egin behar direla, Metafisikako obrarik gaitzenak, bere lehen agerraldian egileari hilezkortasuna agintzen dionak, eskatzen duena baino. Edozein irakurle buru erne ere, eginkizun hau, lanak eskatzen duen moduan, arretaz hausnartzen baldin badu, hasieran lanaren beraren zailtasunak izuturik, soluziogabekotzat joko du, eta erabat ezinezkotzat ere bai, benetan honelako apriorizko ezagutza sintetiko hutsik ez balego. Hauxe gertatu zitzaion David Humeri ere, nahiz eta hark ez zuen arazoa planteatu hemen egiten den eta egin behar den bezain orokorki, arren eta erantzunak Metafisika guztia erantzuten erabakiorki balio izan dezan. Ba nola liteke, galdetzen zuen gizon buru argi hark, niri kontzeptu bat ematen zaidanean, nik kontzeptu hori gauditu eta beste batekin, h. d., horren barruan inkluditurik ez dagoen beste batekin lotzea, eta lotu ere derrigor, hari apartenituko balitzaio bezala? Esperientziak bakarrik eman diezaizkiguke honelako konexioak (hala ondoriotu zuen hark ezinezkotzat jo zuen zailtasun hartatik) eta derrigortasun usteko guztia edo, gauza beretsua dena, horrelakotzat jotzen den ezagutza apriorizkoa ez da besterik ezer, egiazko zerbait aurkitu ondoren, derrigortasun subjektiboa objektibotzat jotzeko ohitura luze bat baino.

Kexu baldin bada irakurlea, nik problema honen soluzioa dela-ta ematen dizkiodan buruhausteengatik, probatzea dauka, ea berak beste bide errazagoren batetik auzia soluzionatzen duen. Orduan, behar bada, eskerrona erakutsiko dio berarentzat hain ikerketa sakoneko lana bere gain hartu duen pertsonari, eta agian zerbait mirespen ere azalduko du, gauzaren izaera kontuan harturik, soluzioari eman ahal izan zaion erraztasunagatik. Era berean, urte luzetako lanak kostatu da problema hori bere orokortasun guztian soluzionatzea (hitz hori ulertu behar baita matematikariek ulertzen duten bezala, alegia, kasu guztietarako behar hainbat balio izateko moduan), eta hori, azkenik, modu analitikoan aurkeztu ahal izatea, irakurleak hemen aurkituko duen moduan.

Halaxe ba, honen arabera, Metafisikari guztiak gelditzen dira beren funtzioetatik solemneki eta legezki suspendituak, honako galdera hau askitasunez erantzuten ez duten bitartean, alegia: Nola dira posible apriorizko ezagutza sintetikoak? Ba erantzun horixe da, arrazoi hutsaren izenean zeozer irakatsi nahi digutenek aurren-aurrea erakutsi behar duten kreditagiria. Hori falta bazea ezin dute beste ezer itxaron arrazoizko jendearen partetik, lehen ere askotan izan baitira hauek engainatuak, haiek eskaintzen dutena gehiago aztertu gabe, bazterrera uztea besterik.

Ostera ordea, beren egitekoa egikaritu nahi balute, ez zientzia bezala baizik eta osasungarria eta gizakien zentzu komunarentzat egokia den konbentzimenduzko arte bat bezala, orduan, justiziaren arabera, ez legoke horiei langintza hori debekatzerik. Orduan arrazoizko sinesmenaren hizketa-modu apala erabiliko dute eta aitortuko dute: ez dutela libre, edozein esperientzia posibleren mugetatik kanpora gelditzen den hartaz ezer errezelatzea eta are gutxiago oraindik ezer jakitea, baizik eta doi-doi onartu behar dutela (ez usaera espekulatiborako, hau bazterrera utzi behar baitute, baizik eta usaera praktikorako) bizitzan adimena eta borondatea gidatzeko ahalgarri eta are ezinbestekoa den zerbait. Horrela bakarrik eraman ahal izango dute gizon probetxuzko eta jakintsuen izena, eta eraman ere hainbat areago zenbat eta metafisikalari-izenetik gehiago aldentzen diren; ba hauek filosofo espekulatiboak izan nahi dute, eta nola, autua apriorizko judizioena denean, ez dagoen norberaren burua egia itxura hutsaletan arriskatzetik (zeren, uzitzen edo pretenditzen denaren arabera, a priori ezagutzen dena,

horrexegatik ere derrigorrezko deklaratu behar baita), beraz ez dago horiei suposizioekin jolasten uzterik, ostera baizik horien afirmazioak zientzia behar du izan, edo bestela ez da ezertxo ere izango.

Batek esan dezake, ezen filosofia transzendental guztia, hots derrigorrez Metafisika ororen aurretik joaten dena, bera ere ez dela ezer hemen planteatutako problemaren soluzio erabatekoa besterik, baizik ere ordena eta xehetasun sistematikoarekin emana, eta horregatik ez dagoela orain arte filosofia transzendentalik; ba horren izena daramana Metafisikaren zati bat besterik ez da benetan. Baina gure autuko zientziak, aurrena, azkeneko horren ahalgarritasuna frogatu behar du eta edozein Metafisikaren aurretik joan behar du. Horregatik ez dago zertan harriturik, berez zientzia oso bat behar baldin bada, eta behar ere besteen laguntza guztietatik soildutako zientzia berri bat, galdera bakar bati behar bezala erantzuteko, eta horren soluzioa neke eta zailtasunekin eta are nolabaiteko iluntasunarekin ere nahasturik badoa.

Orain, gu soluzio horretara goazen bitartean, eta joan ere metodo analitikoaren bidez, zeinaren arabera suposatzen baitugu, posible direla horrelako arrazoi hutsezko ezagutzak, ezagutza teorikoaren (honetaz bakarrik baita hemen autua) bi zientzietara soilik jo genezake, alegia, Matematika hutsera eta natur zientzia hutsera, ba hauek bakarrik errepresenta diezaizkigukete objektuak intuizioan, eta ondorioz, horietan apriorizko ezagutzarik agituko balitz, horiek erakuts diezagukete egia edo objektuek subjektuarekin in concreto duten adostasuna, h. d. horiek duten errealitatea; hortik gero modua izango da bide analitikotik zehar horien posibilitatearen funtseraino iritsi ahal izateko. Honek asko errazten du lana, ba hemen kontsiderazio orokorrak ez dira egitateetan aplikatu bakarrik egiten, baizik eta abiatu ere horiexetatik egiten dira, horiek, prozesu sintetiko baten bidez, erabat in abstracto, beste kontzeptu batzuetatik ateratzen ibili beharrik gabe.

Baina erreala eta aldi berean funtsatua den apriorizko ezagutza huts honetatik guk bilatzen dugun ezagutza posible batera, hau da Metafisika zientzia bezala kontsideratua den batera, igotzeko, beharrezkoa da gure arazo nagusian inkluditzea: zerk sortarazten duen Metafisika eta zerk oinarritzen duen hori modu naturalean soilik emandako ezagutza apriorizko bezala, nahiz eta horren egia susmo txarretik libre ez dagoen, zeinaren estudioa, bere posibilitateaz inolako azterketa kritikorik egin gabe, Metafisika deitzen baita ohiki: hitz batean, beharrezkoa dugu horrelako zientzia baterako joera naturala gure arazo nagusiaren barruan sartzea; eta hala, galdera nagusi transzendentalak beste lau galderatan zatituz erantzungo da poliki-poliki.

- 1) Nola da posible Matematika hutsa?
- 2) Nola da posible natur zientzia hutsa?
- 3) Nola da posible Metafisika oro har?
- 4) Nola da posible Metafisika zientzia bezala?

Bistan dago, ezen, nahiz eta arazo hauen soluzioak Kritikaren edukina erakutsi behar duen batik bat, hala ere baduela soluzio honek bere-berea duen zerbait, berez ere atentzioa merezi duena, eta hau da, dauden zientzien iturriak arrazoiari bertan bilatzea, horrela arrazoiak zerbait a priori ezagutzeko duen ahalmena, ekintzaren bidez norberak ikertuz eta neurtuz; horrela, berriz, zientzia hauek berek ere irabazi egiten dute, beren edukinagatik ez bada ere, bai behintzat beren erabilera zuzenari dagokionez, eta hala goragoko galdera bati, beren sorrera komunagatik, argitasuna ematen dioten bitartean, aukera ere ematen dute garai berean, beren izaera berekia hobeto argitzea.

LEHEN ATALA

Arazo nagusi transzendental

VI

Nola da posible Matematika hutsa?

Hona hemen ezagutza handi eta frogatu bat, orain bertan ere hedadura ikusgarria daukana eta etorkizunera begira ere azkengabe hedatzekoa dena; ziurtasun apodiktikoa, h. d. derrigortasun absolutua, eramaten du beti berekin eta, beraz, ez da inolako esperientzi arrazoietan oinarritzen; horregatik arrazoiaren produktu hutsa da eta gainera sintetikoa hanka eta buru, horra: "Nola lor dezake giza arrazoiak osoro a priori horrelako ezagutza-modurik?" Ahalmen horrek, ez baita esperientziatan oinarritzen eta oinarritzerik ere ez baitauka, ez ote du aurretiaz suposatzen nolabaiteko ezagutza-oinarri apriorizkoren bat, sakonki ezkutaturik dagoena, baina bere burua bere eragin horien bidez erakutsiko lukeena, horren hasierako hastapenei arrastoa arretaz segituko balitzaie?

VII

Baina guk aurkitzen dugun gauza da, ezen ezagutza matematiko guztik berekitasun hau daukala, alegia bere kontzeptua aurrena intuizioan aurkeztu behar duela, eta gainera a priori, hau da, enpirikoa ez baina hutsa den intuizio batean; helpide hori gabe ezin du pauso bakarrik ere eman; horregatik haren judizioak beti izaten dira intuiziozkoak, eta filosofiak kontzeptu soiletatik ateratako judizio diskurtsiboekin konformatu beharrean, bere tesi apodiktikoak intuizioaren bidez esplika ditzake, baina inola ere ezin ditu tesiok intuiziotik deduzitu. Matematikaren izaerari buruzko oharpen honek orientazio bat ematen digu haren posibilitatearen aurreneko eta gorenko baldintzaz: alegia beharrezkoa dela Matematikak nolabaiteko intuizio hutsen bat oinarrian edukitzea, bertan berak bere kontzeptu guztiak in concreto eta hala ere a priori aurkeztu, edo esaten den bezala, eraiki ahal izan ditzan⁵. Intuizio huts hori eta horretarako posibilitatea bera ere aurkitzeko modurik bageneuka guk, aise esplikatuko litzateke hortik, nola diren posible apriorizko proposizioak Matematika hutsean, eta ondorioz nola den posible zientzia hau bera; ba intuizio enpirikoak nekerik gabe egiten baitu ahalgarri, guk geure kontzeptua, intuizioaren objektu bati buruz egiten duguna, intuizioak berak eskaintzen dituen predikatu berrien bidez, esperientzian sintetikoki zabaltzea, horrelaxe egingo du intuizio hutsak ere, diferentzia bakarra izaki: ezen azkeneko kasuan judizio sintetikoa a priori izango dela ziurra eta apodiktikoa, baina aurreneko kasuan a posteriori eta enpirikoki bakarrik izango dela ziurra; ba honek daukana intuizio enpiriko kontingentean aurkitzen dena bakarrik da, aldiz hark daukana intuizio hutsean derrigor aurkitu behar dena; ba hori apriorizko intuizio denez, kontzeptuarekin askaezinki lotuta dago esperientzia oro edo hautemapen singularrak baino lehenago ere.

VIII

Baina badirudi pauso honetan handiagoa egiten dela zailtasuna eta ez txikiagoa. Ba honela da orain galdera: nola da posible zerbait a priori intuitzea? Intuizioa errepresentazio bat da, eta, beraz, objektuaren presentziari lotua egongo litzateke inmediateki. Horregatik ezinezkoa dirudi jatorrizki a priori intuitzea, ba orduan intuizioa, ez lehen eta ez orain presente dagoen erreferentzi objektu bati egongo litzateke lotua, eta beraz ezingo litzateke intuizio izan. Egia da badirela halako kontzeptu batzuk, objektu baten pentsamendu orokorra daukatenak batik bat, gu geu objektuarekin erlazio inmediatean egon gabe ere, a priori burura genitzakeenak, adib., tamaina kontzeptua, kausarena, etab.; baina hauek berek ere, esanahi eta zentzurik izango badute, erabilera jakin bat behar dute in concreto, h. d. intuizio bati aplikatuta egon behar dute, horren objektu bat guri emana izan dakigun. Baina eta nola eman daiteke objektuaren intuiziorik objektua bera baino lehen?

IX

Gure intuizioak, bere izateko moduagatik, gauzak beren baitan diren moduan errepresentatu beharko balitu, orduan ez litzateke apriorizko intuiziorik batere izango, eta intuizioa enpirikoa izango litzateke beti. Ba berez objektuan jasota dagoena, nire aurrean presente eta niri emanda dagoenean bakarrik jakin nezake nik. Egia esan, ezin da ulertu, nola presenteko gauza baten intuizioak niri ezagutarazi diezadakeen gauza hori den bezala, horren berekitasunek nire errepresentamenera pasatzeko modurik ez badute; baina, hori ahalgarritzat emanik ere, holako intuiziorik ez litzateke a priori gertatuko, h. d. objektua bera nire aurrean aurkeztu baino lehen; ba objekturik gabe ez legoke inolako arrazoirik nire errepresentazioa harekin erlazonaturik dagoela pentsatzeko, eta erlazioak inspirazioan beharko luke oinarritu. Beraz modu bakarra dago nire intuizioa objektuaren errealtatea baino lehenagokoa izan dadin, eta apriorizko ezagutza bezala gerta dadin, alegia intuizioak sentsibilitatearen forma besterik ez dezala eduki, zeina nire subjektuan inpresio erreale guztien aurretik baitoa, horien medioz afektatzen naute ni objektuek-eta. Ba sentsibilitatearen objektuak sentsibilitate-modu (Sinnlichkeit) honen arabera bakarrik begiets daitezkeelakoa a priori jakin nezake nik. Hemendik segitzen da, ezen sentimenezko intuizio-modu hau bakarrik begiztatzen duten proposizioak izango direla posible eta baliozko sentimenen objektuei buruz, eta berebat alderantziz, alegia a priori posible diren intuizioek ezin izango dituztela inola ere gure sentimenen objektuak besterik begiztatu.

X

Beraz sentimenezko intuizioaren formarekin bakarrik begiets genitzake guk gauzak a priori; baina horrela guk objektuak ezagutzen ditugu gure (gure sentimenen) aurrean ager daitezkeen moduan, baina ez haiek beren baitan izan daitezkeen bezala; eta justu supostu hauxe da behar-beharrezkoa, apriorizko proposizio sintetikoak posibletzat jotzeko, edo inoiz benetan halakorik aurkituko balitz, beren posibilitatea ulertua eta aurretiaz determinatua izan dadin.

Eta hala, espazioa eta denbora dira Matematika hutsak, bere ezagutza eta judizio guztien, aldi berean apodiktikoak eta derrigorrezkoak direnen, oinarritzat jartzen dituen intuizioak; ba Matematikak, aurrena, bere kontzeptu guztiak intuizioan azaldu, h. d. eraiki, behar izaten ditu eta Matematika hutsak intuizio hutsean; horiek gabe (analitikoki, hau da, kontzeptuak analizatuz ez baina sintetikoki bakarrik joka dezakeelako) ezin baitu pauso bakarrik ere eman, intuizio hutsa falta zaion bitartean, ba hortxe bakarrik egon daiteke apriorizko judizio sintetikoetarako behar den gaia. Geometriak espazioaren intuizio hutsa dauka oinarritzat. Aritmetikak berak ere, denboran unitateak elkarren segidan gehituz eratzen ditu bere numero-kontzeptuak; baina batik bat mekanika hutsak, denboraren errepresentazioaren bidez bakarrik era

ditzake bere mugimendu- kontzeptuak. Baina bi errepresentazioak intuizio soilak dira; ba gorputzen intuizio enpirikoetatik eta horien aldaketetatik (mugimendua) enpirikoa den guztia, alegia sentsazioari dagokion guztia, kentzen baldin bada, espazioa eta denbora gelditzen dira beti ere, intuizio hutsak baitira hauek, a priori haien oinarrian daudenak, eta horregatik hauek ezin dira berak inola ere kendu; baina hain zuzen ere horrexegatik, apriorizko intuizio hutsak direlakoxe, frogatzen dute horiek gure sentsibilitatearen forma hutsak baino ez direla, hots, edozein intuizio enpirikoren, h. d., benetako objektuen hautemapenaren, aurretik jarri beharrekoak, eta horien arabera ezagut daitezkeela a priori objektuak, baina beti ere guri agertzen zaizkigun moduan.

XI

Soluzionaturik dago, beraz, atal honetako arazoa. Matematika hutsa, apriorizko ezagutza sintetikoa denez, zeragatik bakarrik da posible, sentimenaren objektuei soilik lotzen zaielako, zeintzuen intuizio enpirikoa (espazio eta denboraren) intuizio hutsean, eta gainera apriorizkoan, oinarritzen baita, eta oinarritu ere egin daiteke, sentsibilitatearen forma besterik ez delako; eta sentsibilitatea objektuen benetako agerpenaren aurretik joaten da, eta berak egiten ditu objektuok benetan ahalgarri, beste ezer baino lehen. Hala ere, a priori intuitzeko ahalmen honek ez du atzematen agerpenaren gaia, h. d., horretan sentipen dena, baizik eta horren forma bakarrik, alegia espazioa eta denbora; ba sentipenak eskluditu egiten du enpirikokia. Inolako dudarik izango balitz, ezen biok ere beren baitan diren gauzetatik ez baizik sentsibilitatearekin daukaten erlazioaren mendeko determinazio soilak besterik ez direla, gustura jakingo nuke nik nola izan ote daitekeen posible, a priori, eta beraz gauzekin inolako ezagupiderik izan baino lehen, h. d., gauzak gure aurrean jarri baino lehen, jakitea, nolakoa izango den haien intuizioa, kasu honetan espazio eta denborari buruzkoa izaki. Baina hau ederki batean uler daiteke, bi hauek gure sentsibilitatearen baldintza formal soiltzat eta gauzak fenomeno soiltzat hartzen baldin badira, ba orduan fenomenoaren forma, h. d., intuizio hutsa, gu geuron baitatik, h. d., a priori errepresenta daiteke.

XII

Hau pixka bat argitu eta konfirmatzeko, geometrilariak ohiki eta ezinbestean jarraitu behar izaten duten prozeduran ikus daiteke. Aurkeztutako bi figuren erabateko berdintasunaren froga guztiak (batak zati guztietan bestearen tokian jartzeko modukoa behar baitu izan) zera besterik ez dira azken buruan, alegia elkar estaltzen dutela; hau, berriz, bistakoa denez, intuizio inmediatu batean oinarritzen den proposizio sintetiko bat besterik ez da, eta proposizio honek hutsa eta apriorizkoa behar du izan, bestela proposizio horrek ez bailuke balioko apodiktikoki ziurra izateko, eta ziurtasun enpirikoa bakarrik izango luke. Horrek esan nahiko luke soilik: horrela hautematen dela beti eta gure hautemapena noraino ailegatzen den, haraino bakarrik balio duela. Ezen espazio perfektuak (beste inolako espazioren muga ez denak) hiru dimentsio dituela eta espazioak oro har ezin duela beste dimentsiorik eduki, zerako proposizioaren gainean eraikitzen da, alegia puntu batean ezin dutela angelu zuzenean hiru lerrok baino gehiagok elkar ebaki; baina proposizio hau ez dago inola ere kontzeptuetatik frogatzerik, baizik eta inmediateki intuizioan oinarritzen da, bai, apriorizko intuizio hutsean, apodiktikoki ziurra da-eta; batek eskatu ahal izatea, lerro bat infinituraino (in indefinitum) trazatu behar dela, edota aldaketa-sail batek (adib. mugimenduak korritutako espazioak) infinituki jarraitu behar duela, horrek aurre-suposatzen du, intuizioan bakarrik oinarri daitekeen espazio eta denboraren errepresentazio bat, hori bere baitan ezerk mugatu gabe dagoen neurrian, ba kontzeptuetatik ezin zitekeen hori inola ere ondoriotu. Beraz, Matematikaren oinarrian, benetan apriorizko intuizio hutsak aurkitzen dira, zeintzuek egiten baitituzte posible apodiktikoki balio duten proposizio sintetikoak; eta hortik esplikatzen du berebat gure espazio eta denboraren dedukzio

transzendentalak Matematika huts baten ahalgarritasuna, zeina posible litzatekeen onartzea baina inola ere ez ulertzea, horrelako dedukziorik gabe eta guk onartu gabe, ezen "gure sentimenei (kanpokoei espazioan eta barrukoei denboran) eman dakiekeen edozer begiets genezakeela guk, guri agertzen zaigun moduan, baina ez hura bere baitan den bezala".

XIII

Espazioa eta denbora benetako berekitasunak direla eta berbaitango gauzei itsatsita egoten direla uste duen kontzeptutik oraindik libratu ezin direnek, honako paradoxa honetan egikaritu dezakete beren burutxorroxtasuna, eta hori soluzionatzen alferrik ahalegindu badira ere, gutxienez, aurriritzi gabe suposa dezakete momenturen batzuetan, ezen oinarriren bat ere eduki dezakeela espazioa eta denbora gure sentimenezko intuizioaren forma hutsetara murrizteak.

Bi gauza erabat berdinak badira, bietako bakoitzean hauteman daitezkeen elementu guztietan (tamainari eta kualitateari dagozkien determinazio guztietan), derrigorrezko ondorioa izango da, ezen bata kasu eta erlazio guztietan jarri ahal izango dela bestearen orde, eta orde, jartze horretatik ez dela inolako diferentzia ohargarririk sortuko. Egitatez, beste horrenbeste gertatzen da Geometrian figura lauekin; baina figura esferiko desberdinek, barruan erabateko konkordantzia edukiarren, diferentzia bat izaten dute kanpo-harremanetan, ez baitago bata bestearen lekuan ipintzerik. Adibidez, bi triangelu esferiko, bi hemisferioetan ekuadorreko arku bat oinarri komuntzat daukatenak, izan daitezke berdin-berdin bai aldeei eta bai angeluei dagokienez, eta izan ere halako eran, ze horietako bat aparte eta betaro deskribitzen bada ez baita ezertxo ere aurkituko, aldi berean, bestearen deskripzioan aurkitzen ez denik, eta hala ere bata ez da bestearen lekuan jartzerik izango (hau da, kontrako hemisferioan); beraz, hemen barne-diferentzia bat dago bi triangeluen artean, inolako adimenek barnekoztat eman ezin duena, eta espazioan daukaten erlazioaren bidez bakarrik bistaratzen dena. Baina orain kasu arruntagoak eskainiko ditut, eguneroko bizitzatik hartzeko modukoak direnak.

Zer izan daiteke nire eskuaren edo belarriaren antzekoago eta bere zati guztietan berdinago, horiek ispiluan izaten duten irudia baino? Eta hala ere, nik ispiluan ikusitako eskurik ezin dut jarri jatorrizko eskuaren tokian; ba esku hau eskuineko eskua bazen, ispilukoa ezkerrekoa da, eta eskuineko belarriaren irudia ezkerreko belarria da, inola ere aurrekoaren lekuan jarri ezin daitekeena. Hemen ez dago inolako adimenek pentsatzeko moduko barne-diferentziarik, eta hala ere diferentziak barnekoak dira sentimenek irakasten digutenez; ba ezkerreko eskua, bi alderdien berdintasunak eta antzak gorabehera, ez dago eskuineko eskuarekin batera muga beren barruan sartzerik (ezin dira kongruenteak izan): esku bateko esku-zorroa ezin da beste eskuan erabili. Zein da orduan soluzioa? Objektu horiek ez dituzte adierazten gauzak, hauek beren baitan diren bezala eta adimen huts batek horiek ezagutuko lituzkeen moduan, osteria baizik sentimenezko intuizioak dira horiek, h. d. fenomenoak, zeintzuen posibilitatea oinarritzen baita, gauza batzuek, berenez ezezagunak izaki, beste zerbaitekin, hots gure sentsibilitatearekin, daukaten harremanetan; orain, berriz, sentsibilitate horretan espazioa da kanpo-intuizioaren forma, eta aldiz espazio bakoitzaren barne-determinazioa ahalgarri egiten duena, kanpo-erlazioak espazio osoarekin daukan barne-determinazioa da, espazio honen zati bat izaki beste hura (kanpo-sentimenarekiko erlazioa); hau da, zatia osoaren bidez bakarrik da posible; hau orde, ez da inoiz gertatzen berbaitango gauzetan, hauek adimen soilaren objektu direnez, baina bai fenomeno soiletan. Horregatik, antzekoak eta berdinak, baina inkongruenteak diren gauzen (adibidez, kontraka bildutako karakolen) arteko diferentziarik ere ezin dugu ulergarri egin kontzeptu bakar baten bidez, eskuineko eta ezkerreko eskuari erreferentzia eginez bakarrik baizik, ba hori intuizioari inmediateki dagokion gauza da.

I. Oharra

Matematika hutsak eta batik bat Geometria hutsak errealitate objektiborik izango badu, sentimenen objektuak bakarrik begiztatu behar ditu, baina horien kontura printzipio hau ezartzen da: alegia, gure sentimenezko errepresentazioak ez ditu inola ere gauzak beren baitan direnez errepresentatzen, baizik eta gauza horiek guri agertzeko daukaten moduan bakarrik. Hortik segitzen da, ezen Geometriako printzipioak ez direla gure fantasiak asmatutako sorkari soilak, eta beraz ezin direla ziurtasunez benetako objektuetara erreferitu, ostera baizik derrigor espazioarentzat eta espazioan aurki daitekeen guztiaarentzat balio dutela; ze espazioa ez da kanpo-fenomeno guztien forma besterik, eta forma horren azpian bakarrik eman dakizkieke sentimenei objektuak. Sentsibilitatearen formak funtsatzen du Geometria, eta bera da kanpo-fenomenoen posibilitatea oinarritzen duena; fenomeno hauek, beraz, ezin dute inoiz ezer eduki, Geometriak agintzen diena besterik. Osoro bestela litzateke sentimenei objektuak errepresentatu behar balituzte hauek beren baitan diren bezala. Ba orduan, espazioaren errepresentaziotik, zeina geometrilariak horren hainbat berekitasunekin a priori oinarritzat jartzen baitu, oraindik ez litzateke ondoriotuko, hori dena eta hortik segitzen den guztia naturan horrelaxe gertatu beharrekoa denik. Fantasia soiltzat joko litzateke geometrilariaren espazioa eta ez litzaioke inolako balio objektiborik emango; ikusi ere ez baita egiten, nola gauzek derrigor kointziditu behar duten guk geuk eta aldeztu aurretik horiei buruz egiten dugun irudiarekin. Baina irudi hori, edo, hobeto esan, intuizio formal hori baldin bada gure sentsibilitatearen berekitasun esentzialena, horren bidez bakarrik ematen baitzaizkigu objektuak, eta bestalde sentsibilitate horrek gauzak beren baitan diren bezala ez baina horien fenomenoak bakarrik errepresentatzen baldin baditu, aise uler daiteke orduan, eta aldi berean kontraezinki frogatzen, ezen gure sentimenduko kanpo-gauza guztiak derrigor eta puntuz puntu kointziditu behar dutela Geometriaren printzipioekin, ba aurren-aurrena sentsibilitateak berak egiten ditu posible objektu horiek fenomeno soil bezala bere kanpo-intuizioaren forma (espazioa) dela medio, eta honetaz arduratzen da geometrilaria. Nolanahi ere, fenomeno gogoangarri bezala geratuko da filosofiaren historian, alegia izan zela garai bat, eta orduan Matematikariek berek, aldi berean filosofo izaki, dudatzen hasi zirela, ez beren printzipio geometrikoen zuzentasunean, hauek espazio soila begiztatzen zuten neurrian, baina bai kontzeptu horren balio objektiboan eta horrek berak eta horren determinazio geometriko guztiek naturan izan dezaketen aplikazioan; beldur baitziren, ezen lerro bat puntu fisiko osaturik egongo zela naturan eta, beraz, objektuetan benetako espazioa zati bakunez egongo zela osatua, nahiz eta geometrilariak pentsamenduan duen espazioa inola ere ezin daitekeen horrela osaturik egon. Ez zekiten haiek, jakin, ezen pentsamenduko espazio horrek berak egiten zuela ahalgarri espazio fisikoa, h. d. materiaren hedadura bera; pentsamenduko espazio hau ez dela berbaitango gauzen izaera bat eta bai gure sentimenezko errepresentamenaren forma soila; espazioko objektu guztiak fenomeno soilak direla, h. d. ez direla berbaitango gauza, baizik gure sentimenezko intuizioaren errepresentazio bakarrik, eta nola espazioa, geometrilariak bururatzen duen bezala, doi-doi sentimenezko intuizioaren forma den, guk a priori gudan aurkitzen duguna eta (formari dagokionez) kanpo-fenomeno guztien posibilitatearen oinarria daukana, behar-beharrezkoa dela horiek derrigor eta modurik zehatzenean geometrilariaren printzipioekin bat etortzea; ba printzipio horiek ez ditu geometrilariak ateratzen asmatutako kontzeptu batetik, eta bai kanpo-fenomeno guztien oinarri subjektiboa den hartatik: alegia sentsibilitatetik bertatik. Beste inola ez eta honela bakarrik babes daiteke geometrilaria axaleko Metafisika baten bidegabekeria guztien kontra, bere proposizioen dudagabeko errealitate objektiboa dela bide, nahiz eta

proposizio hauek guztiz arrotzak iruditu metafisikalariari, hau bere kontzeptuen iturriraino igotzen ez delako.

II. Oharra

Guri objektutzat eman behar zaigun guztia intuizioan eman behar zaigu. Baina gure intuizio oro sentimenen bitartez bakarrik egiten da; adimenak ez du intuitzen, ispilatu bakarrik egiten du. Baina nola sentimenek, orain azaldu dugunez, inola ere ez duten, ezta zati bakar batean ere, berbaitango gauzarik ezagutzera ematen, baizik eta adierazten dutena gauzen fenomenoak bakarrik izaten diren, hauek ere sentsibilitatearen errepresentazioa besterik ez izaki, "beraz beharrezkoa da gorputz guztiak, eta berauek aurkitzen direnako espazioak, gudan errepresentazio soila besterik ez izatera murriztea, eta ez daitezela beste inon existi gure pentsamenduan besterik". Hau, berriz, ez al da idealismoa argi eta garbi?

Idealismoa da, uste izatea, izaki pentsatzaileak besterik ez dagoela, eta guk intuizioan hauteman uste ditugun beste gauzak, izaki pentsatzaileagan ematen diren errepresentazio batzuk besterik ez direla, eta kanpoan ez dagoela errepresentazio horiei benetan erantzuten dien gauzarik. Aitzitik, berriz, esaten dut nik: badirela gauzak gugandik kanpora baleude bezala gure sentimenei ematen zaizkienak, baina guk ez dakigula horiek beren baitan zer diren, eta horien fenomenoak bakarrik ezagutzen ditugula guk, h. d. horiek gure sentimenak afektatzean gudan eragiten dituzten errepresentazioak bakarrik. Horren ondorioz gustura aitortzen dut, ezen gugandik kanpora badirela gorputzak, h. d. gauzak, beren baitan izan daitezkeenaren arabera guretzat erabat ezezagunak direnak, baina guk, horien influxuak geure sentsibilitatearen gainean eragiten duen errepresentazioaren bidez ezagutzen ditugunak, eta gauza horiei gorputz izena ematen diegula guk: hitz honek, beraz, adierazten du, guretzat ezezaguna, baina horregatik ez eragin gutxiagokoa, den objektu horren fenomeno. Eta benaz, idealismo dei daiteke hau? Justu-justu horrexen kontrakoa da-eta!

Kanpoko gauzen benetako existentziaren kalterik gabe, horien predikatu-mordo bategatik esan ahal izatea, predikatu horiek ez zirela berbaitango gauza horienak, eta bai horien fenomenoak bakarrik, eta gure errepresentaziotik kanpora horiek ez zeukatela existentzia propiorik, hori orokorki onartu eta baietsitako gauza zen Lockeren garaia baino askoz lehenago ere, nahiz eta areago onartu den honen ondoren. Horrelakoak dira, beroa, koloreak, gustamena, etab. Baina horietaz gain, nik, arrazoi sendoengatik, berebat fenomeno soilen artean kontatzen baldin baditut gorputzen gainerako kualitateak ere, primarioak direlakoak alegia, hala nola hedadura, lekua eta batik bat espazioa, honi atxikita dagoen guztiarekin (inpenetrabilitate edo materialitate, forma, etab.ekin), orduan ez dago inolako arrazoirik hori ez onartzeko; batek esaten baldin badu, koloreak ez direla berbaitango objektuaren berekitasun eta bai ikusmenaren aldaketa soilak, halakoa ez dago idealistatzat jotzerik noski; eta era berean, nire irakatsia ere ez dago idealistatzat jotzerik zeragatik bakarrik, alegia nik berekitasun gehiago ere, gorputz baten intuizioa osatzen duten guztiak kontuizu, horren fenomenoarenak direla aurkitzen dudalako; ba agertzen den gauzaren existentziarik ez da hor inola ere ezabatzen idealista batek egiten duen bezala, baizik eta erakusten da, ezen guk hori, edozein eratakoa dela ere, ezin dugula inola ere sentimenen bidez bere baitan ezagutu.

Gustura jakingo nuke, ea nolakoak izan beharko ote zuten nire afirmazioek beren barruan idealismorik ez edukitzeko. Inondik ere esan beharko nuena zen: espazioaren errepresentazioa dagoela, ez bakarrik osoro bat gure sentsibilitateak objektuarekin daukan harremanarekin, esana baitut hau, baizik eta gainera hura erabat objektuaren antz-antzekoa dela; afirmazio honi, berriz, nik ezin diot inolako zentzurik eman; ba hori esatea zera esatea bezala litzateke, alegia gorriaren sentsazioak antza daukala, nigan sentsazio hori sortu duen zinabrioaren berekitasunarekin.

III. Oharra

Honez gero, nekerik gabe bazter daiteke objekzio bat, aise aurrikusteko modukoa baina hutsala dena: "alegia espazio eta denboraren idealitatearekin itxura hutsetan eraldatuko litzatekeela sentimen-mundu guztia". Izan ere, aurrena sentimenezko ezagutzaren izaerari buruzko ulermen filosofiko guztia hondatuko litzateke, sentsibilitatea errepresentazio-modu nahasi bat eginez, eta horren bidez gauzak diren bezala ezagutuko genituzke noski, baina ez genuke ahalmenik izango geure errepresentazio horretan dena kontzientzia argi batera eramateko; honen kontra frogatu dugu, ezen sentsibilitatea ez datzala argitasun-iluntasunen diferentzia logiko horretan, baizik eta ezagutza-jatorriaren beraren diferentzia genetikoan, ba sentimenezko ezagutzak ez ditu errerepresentatzen gauzak diren bezala, eta bai horiek gure sentimenak afektatzeko daukaten modua soilik, eta horrela, sentimenen bidez, gauzak berak ez baizik fenomenoak ematen zaizkiola adimenaren gogoetari. Beharrezko rektifikazio honen ondoren, objekzio bat sortzen da, barkaezinekoa eta ia-ia aurrez pentsatutako sasi-interpretazio batetik jaioa dena, alegia nire irakatsiak itxura hutsetan aldatuko litzatekeela sentimen-munduko gauza guztiak.

Guri fenomeno bat ematen zaigunean, libre gara gauza nahi dugun moduan juzgatzeko. Fenomeno hura sentimenetan oinarritzen da, baina judizio hau adimenean oinarritzen da, eta galdera bakarra da, ea objektuaren determinazioan egirik baden ala ez. Baina egiazen eta ametsaren arteko diferentzia egiten duena ez da, objektuak begiztatzen dituzten errepresentazioen izaera, bietan gauza bera izaki hauek, eta bai hauek, errepresentazioen koherentzia determinatzen duten erregelen arabera, objektu baten kontzeptuan daukaten konexioa eta esperientzia batean biok elkarrekin egoteko daukaten ahalbidearen edo ezinaren neurria. Eta ez da fenomenoen errua gure ezagutzek itxura egiazat hartzen badute, h. d. baldin eta intuizioa, objektu bat ematen diguna, bera objektu horren kontzeptutzat edo objektu horren existentziaren kontzeptutzat hartzen baldin bada, existentzia hau adimenak bakarrik pentsa dezakeena izaki. Sentimenek ematen digutenez, behin aurreraka behin atzeraka ikusten dugu planeten ibilera, eta hemen ez dago faltsurik eta egirik, ba askitzat ematen dugun bitartean, ezen hori, lehenengo eta behin, fenomeno hutsa baino ez dela, oraindik ez dugu judiziorik egiten horien mugimenduaren izaera objektiboaz. Baina nola judizio faltsu bat oso erraz sor daitekeen, adimena ernai ez badago eta errepresentazio-modu subjektibo hori objektibotzat jotzea galarazten ez badu, orduan esaten da: planetak itxuraz atzeraka doazela; baina itxura ez da sentimenen gauza, adimenarena baizik, eta honi bakarrik dagokio, fenomenotik abiatuz, judizio objektiboa ematea.

Eta hala, gure errepresentazioen jatorriaz inolako gogoetarik egingo ez bagenu ere, eta gure sentimenen intuizioak, hauen edukina edozein dela ere, espazioan eta denboran lotzen baditugu esperientzian egiten diren ezagutza guztien kohesio-erregelen arabera, orduan itxura iruzurtia edo egia sor daiteke bertatik, segun eta guk nola jokutzen dugun kontu, axolakabe ala zuhur; honek, egia esan, adimenean sentimenezko errepresentazioekin egiten den usaera bakarrik afektatzen du eta ez horien jatorria. Era berean, sentimenen errepresentazio guztiak beren formarekin, hau da, espazio eta denborarekin, fenomeno soiltzat hartzen baldin baditut nik eta espazioa eta denbora sentsibilitatearen forma soiltzat badauzkat, zeina sentsibilitatetik kanpora ez baita objektuetan aurkitzen, eta nik errepresentazio horiek esperientzia posible bati buruz bakarrik erabiltzen baditut, orduan ez dago hor okerbiderik batere, edo nik horiek fenomeno soiltzat hartzen ditudalako itxurarik; ba hala ere posible da horiek egiazen erregelen arabera esperientzian elkarrekin zuzen lotuta egotea. Honela berdin-berdin balio dute Geometriako proposizio guztiek, hala espazioari nola sentimenen objektu guztiei buruz, eta ondorioz edozein esperientzia posible bati buruz, bai nik espazioa sentsibilitatearen forma soil bezala kontsideratzen dudanean eta bai gauzetan beretan itsatsitako gauza bezala kontsideratzen dudanean; hala ere, aurreneko kasuan bakarrik

uler dezaket nik nola den posible, kanpo-intuizioaren objektu guztiei buruzko proposizio hauek a priori jakitea; gainerantzean, edozein esperientzia soilki posibleri dagokionez, iritzi komunetik aldentzeko ezertxo ere egin izan ez banu bezalaxe gelditzen da dena.

Baina ni, nire espazio eta denbora kontzeptuekin, edozein esperientzia posible gainditzera ausartzen baldin banaiz -hau, berriz, ezinbestekoa da, nik kontzeptu horiek berbaitango gauzei atxikita dauden berekitasuntzat kontsideratzen baldin baditut (ba zerk galaraz diezadake niri kontzeptu horiek gauza berentzat ere baliozkotzat ematea, nahiz eta nire sentimenak beste era batera antolaturik egon eta haientzat egokiak izan ala ez?)-, orduan oker larri bat sor daiteke, itxura batean oinarritzen dena, ze nik unibertsalki baliozkotzat ematen dut gauzen intuizioaren baldintza bat, nire subjektibitateari bakarrik zegokiona eta seguru sentimenen objektu guztientzat balio zuena, eta beraz edozein esperientzia soilki posiblerentzat ere bai, ba nik hori, esperientziako baldintzetara murriztu beharrean, berbaitango gauzei aplikatzen nien.

Eta hala, ez da inola ere egia, ezen espazio eta denboraren idealitateari buruzko nire irakatsiak itxura hutsetara murrizten duela sentimen-mundu guztia, ba hain zuzen irakatsi horixe da helpide bakarra ezagutza garrantzitsuenetako bat, hots, Matematikak a priori eskaintzen duena, objektu errealean seguru aplikatzeko, eta hori itxura soiltzat kontsideratzetik babesteko; ba izan ere, ohar hau gabe, erabat ezinezkoa litzateke antz ematea, ea espazio eta denboraren intuizioak, guk inolako esperientziatatik jasotzen ez ditugunak, eta hala ere gure errepresentazioan a priori aurkitzen direnak, gure buruak sortutako asmakeria soil batzuk ez ote diren, eta asmakeria ere berei korresponditzeko, egoki behintzat, inolako objekturik ez daukatenak; eta hala, Geometria bera ere itxura hutsa izango litzateke, nahiz eta guk demostratu ahal izan dugun horren balio eztabaidaezinekoa sentimen-munduko objektu guztiei buruz, hain zuzen ere, hauek fenomeno soilak direlako.

Bigarren, nire printzipio hauek, esperientziaren egia itxura soil bihurtu beharrean, sentimenen errepresentazioak fenomeno soil egiten dituztelako, printzipio hauexek dira helpide bakarra Metafisika betidanik iruzurtu duen itxura transzendental itzurtzeko, horrela xaboi-anpuluak harrapatzen ume-ahaleginak egitera bultzatuz, fenomenoak, errepresentazio hutsak baino ez direnak, berbaitango gauzat hartzen zirelako; hortik sortu ziren gero arrazoi-antinomiaren eszena kurioso guztiak, geroago hitz egingo dut horretaz, eta nik ohar bakar honekin gaindituko ditudanak: alegia, fenomenoak, hau esperientzian erabiltzen den neurrian, egia produzitzen duela, baina esperientziaren mugetatik kanpora ateratzen eta transzendente egiten den bezain laster, itxura hutsa baino ez duela produzitzen.

Beraz, guk sentimenen bidez errepresentatzen ditugun gauzei beren errealtatea uzten baitiet nik, eta gauza horiei buruz gure sentimenezko intuizioa bakarrik mugatzen baitut, arren eta gauza horiek ezertan ere errepresenta ez dezaten, ezta espazio eta denboraren intuizio hutsean ere, gauza haien intuizio soilak besterik, baina inola ere ez berbaitango gauzen izaera, hor ez dago nik naturari egotzitako itxura integralik, eta nik edozein idealismo-susmoren kontra egindako protesta hain da zorrotza eta ebidentea, ze alferrikakoa ere izango bailitzateke kompetentzia gabeko juezik ez balego; ba hauek, beren iritzi oker baina zabalduetatik saihesten den edozeri gustura izen zahar bat emanez, eta inoiz deitura filosofikoaren espiritua juzgatu gabe, aldiz letra soilari lotzen zaizkiolarik, prest egongo lirateke beren fantasikeria bat, ondo determinaturik dauden kontzeptuen lekuan jartzeko, eta hauek aldi berean aizuntzeko eta itxuragabetzeko. Ba nire teoria honi neronek ere idealismo transzendentalaren izena eman diodalako, horrek ez dio inori eskubiderik ematen, hau nahasteko, ez Descartesen idealismo enpirikoarekin (nahiz eta hau arazo bat soilik izan, eta honek, Descartesen ustez,

soluziorik ez duelako, libre izan edozeinentzat mundu korporalaren existentzia ukatzea, honi behar bezala erantzuteko modurik ez dagoelako), edo Berkeleyren idealismo mistiko eta bisionarioarekin (honen eta antzeko kaskoberokerien kontra benetako erremedioa baitauka gure kritikak). Ba nik idealismo deitu dudanak ez du gauzen existentziarik afektatzen (existentzia hori zalantzan jartzea izaki, berez, idealismoa, hitzak sagaraturik daukan adieran); izan ere, hori dudatan jartzea sekula ez zait niri burutik pasatu; nik zalantzan jarri dudana gauzen sentimenezko errepresentazioa bakarrik da; hor, berriz, espazioa eta denbora sartzen dira lehenengo eta behin, eta hauetaz, eta oro har fenomeno guztiez, nik erakutsi dudana izan da: alegia horiek ez direla gauzak (errepresentazio-modu soilak baino) eta berbaitango gauzei apartenitzen zaizkien determinazioak ere ez. "Transzendental" hitzak nigan ez du adierazten inola ere gure ezagutzak gauzeekin duen erlaziorik, eta bai soilik horrek ezagumenarekin duen erlazioa; honek, berriz, edozein interpretazio oker itzuritu behar zuen. Nolanahi ere, ordea, hitz horrek holako interpretazioetarako biderik eman baino lehen, nahiago dut deitura hori erretiratu eta idealismo "kritiko" deitu. Baina benetan baztertzekoa baldin bada gauza errealak (ez fenomenoak) errepresentazio huts bihurtzen dituen idealismoa, nolako izena eman beharko ote zaio, alderantziz, errepresentazio soilak gauza bihurtzen dituen idealismoari? Idealismo ameskorra-edo deitu genezakeela pentsatzen dut, aurreko horretatik, h. d. idealismo bisionario dei daitekeen hartatik bereizteko; nire idealismo transzendental, hobeto esan kritikoaren bidez, berriz, biak ziren horiek baztertu beharrekoak.

BIGARREN ATALA

Arazo nagusi transzendental

XIV

Nola da posible natur zientzia hutsa?

Natura gauzen existentzia da, hori lege orokorrekin determinaturik dagoen neurrian. Naturak berbaitango gauzen existentzia adieraziko balu, natura ez genuke inola ere ezagutzeko modurik izango, ez a priori eta ez a posteriori. A priori ez, zeren nola jakingo genuke guk zer dagokien berbaitango gauzei?, hori ez baitago gure kontzeptuak analizatuz lortzerik (proposizio analitikoak). Izan ere, nik jakin nahi dudana ez da, nik gauza batez daukadan kontzeptuan zer jasota dagoen (ba hau haren izaki logikoari dagokio), baizik eta nik jakin nahi dudana da, ea gauza horren errealitatean zer gehitzen zaion kontzeptu horri, eta zerk determinatzen duen gauza hori bere existentzian nire kontzeptutik kanpora. Nire adimenak eta honek, gauzen determinazioak beren existentzian lotzeko, erabili behar dituen baldintzek ez die erregularik ezartzen gauzei berei; hauek ez dira ibiltzen nire adimenaren arabera, baizik eta nire adimenak beharko luke haien arabera ibili; horregatik ezinbestekoa litzateke haiek niri aldeztu aurretik emanak izatea, nik determinazio hauek haietatik ateratzeko modua izan dezadan; baina orduan ez nituzke a priori ezagutuko.

A posteriori ere ezinezkoa litzateke berbaitango gauzen izaera horrela ezagutzea. Ba, niri esperientziak irakatsi behar badizkit gauzen existentzia eraentzen duten legeak, orduan lege hauek, berbaitango gauzak afektatzen dituzten neurrian, nire esperientziatik kanpora ere derrigor beharko litzazkieke aplikatu. Eta egia da, esperientziak irakasten dit zer existitzen den eta nola existitzen den; baina inola ere ez dit irakasten, zergatik behar duen gauza batek derrigor honela izan eta ez bestela. Hortaz, esperientziak ezin du inola ere berbaitango gauzen izaera irakatsi.

XV

Beraz, benetako natur zientzia huts bat daukagu gure eskutan, a priori azaltzen baitzikigu, eta proposizio apodiktikoei galdatzen zaiei derrigortasun guztiarekin azaldu ere, natura gobernatzen duten legeak. Testigutzan, natur teoriaren propedeutika bakarrik ekarriko dut hemen, natur zientzia orokorraren tituluean, edozein Fisikaren (printzipio enpirikoetan oinarriturik dagoenaren) aurretik joaten dena. Hor aurkitzen dira, Matematika, fenomenoei aplikatua, eta printzipio diskurtsibo soilak (kontzeptuzkoak) natur ezagutza hutsaren parte filosofikoa osatzen dutenak. Hala ere, badira hor gauza batzuk osoro hutsak (puruak) eta esperientziaren iturrietatik independente ez direnak: hala nola, mugimenduaren kontzeptua, inpenetrabilitatearena (honen gainean bermatzen baita materiaren kontzeptu enpirikoa), inertiarena, eta beste batzuk..., zeintzuk galarazi egiten baitute horri erabat natur zientzia hutsaren izena ematea; gainera, kanpo-sentimenen objektuak bakarrik afektatzen ditu, eta beraz, ez da adiera hertsian hartutako natur zientzia orokor baten adibide; ba horrek natura oro har jarri behar du lege unibertsalen mendean, dela horrek kanpo-sentimenen objektua dela barne-sentimenen objektua (fisikaren edo Psikologiaren objektua alegia) afektatzen duela. Hala ere, Fisika orokorraren printzipioen artean badira batzuk, guk eskatzen dugun benetako unibertsaltasunez jantzirik daudenak; honako proposizio hauek adibidez: substantziak iraun eta subsistitu egiten du, edo gertatzen den guztia beti aurrez lege iraunkorreko kausaren batekin determinaturik egoten da, etab. Hauek izan, benetako natur lege unibertsalak dira, erabat apriorizkoak direnak. Hortaz, egitatez izan, bada natur zientzia huts bat, eta orain galdera da: nolatan da hori posible?

XVI

Natura hitzak beste esanahi bat ere hartzen du, objektua determinatzen duena, alegia; izan ere, aurreko adieran, esan nahi zuen soilik, ezen gauzen existentziako determinazio orokorrak legeen arabera zirela. Natura, beraz, materialiter kontsideraturik, esperientziako objektu guztien multzoa da. Hauxe da hemen gure solas-gaia; ba bestela, esperientziaren objektu inoiz izan ezin diren gauzak, beren izaeraren arabera ezagutu behar balira, kontzeptu batzuk erabilaraziko lizkigukete, zeintzuen esanahia inoiz ere ez bailitzateke in concreto ematerik egongo (esperientzia posible baten adibideren batean); eta hala, horien izaeraz ere, kontzeptu hutsak asmatu beharko genituzke, zeintzuen errealitateaz, h. d. horiek benetako objektuak adierazten dituzten ala pentsamendu-gauza soilak diren erabakitzea ez bailitzateke posible izango. Esperientziaren objektu izan ezin daitekeena ezagutzea hiperfisikoa izango litzateke, baina guk ez daukagu hemen horrelakoekin zerikusirik, gure autua da, naturaren ezagutza, esperientziaren bidez frogatzeko moduko errealitatea daukana, nahiz eta hori a priori posible izan eta edozein esperientzia baino lehenagokoa izan.

XVII

Beraz, naturaren formalkia esanahi hertsi honetan da, ezen esperientziako objektu guztiek lege batzuen arabera funtzionatzen dutela, eta apriorizko legeok ezagutzen diren neurrian, derrigorrezkoa dela haiek legeen arabera egotea. Baina lehentxoago erakutsi da, objektuetan ez dagoela inola ere naturaren legeak a priori ezagutzerik, hauek esperientzia posible bati buruz ez baina berbaitango gauza bezala kontsideratzen diren bitartean. Baina guk ez daukagu hemen zerikusirik berbaitango gauzekin (horien berekitasunak ez ditugu guk erabakitzen), eta bai gauzekin soilik, hauek esperientzia posible baten objektu direnez, eta gauza horien multzoa da, hain zuzen, guk natura deitzen duguna. Eta hona nik orain egiten dudan galdera: hautugaia denez gero, natura a priori ezagutzeko dagoen posibilitatea, ez ote da hobe arazoa honela formulatzea? Alegia, nola ezagut daiteke a priori gauzen derrigorrezko legezkotasuna, gauza hauek esperientziaren objektu direnez? edo honela: nola ezagut daiteke a priori esperientziaren beraren derrigorrezko legezkotasuna oro har bere objektu guztiei buruz?

Ondo begiratzuz gero, arazoaren soluzioa, modu batera edo bestera formulatzen dela ere, gauza bera izango da naturaren ezagutza hutsari dagokionez (izan ere hauxe baita arazoaren korapiloa). Zeren lege subjektiboek, gauzak esperientzia bidez ezagutu ahal izateko ezinbestekoak direnek, gauza horientzat ere balio dute, esperientzia posible bateko objektu direnez, (egia esan, ez dute balio horientzat berbaitango gauza direnez, baina azkeneko hauetaz ere ez gara ari hemen presenteon). Berdin-berdin da nik esatea: lege batek dioenez, egitate bat hautematen denean, horrek beti bera baino lehenago dagoen beste zerbaiti egiten dio erreferentzia, eta honi segitzen dio erregela orokor baten arabera, eta lege hori gabe hautemapen-judizio batek ezin du inola ere esperientziaren baliorik izan; edo nik beste hau esatea: esperientziak irakasten duenean, zerbait gertatzen dela, horrek guztiak kausa bat behar du izan.

Hala ere, aurreneko formula aukeratzea komeni da. Ba, guk a priori eta emandako objektu guztiak baino lehenago ezagut genitzake objektu horiei buruzko esperientzia posible egiten duten ezinbesteko baldintzak, baina inoiz ere ez dugu jakiterik izango zein lege jarraitzen dituzten objektuek beren baitan, esperientzia posible baten erreferentziarik ez dutenean; horregatik, gauzen izaera a priori estudiatzeko guk daukagun modu bakarra da, horrelako ezagutza bat esperientzia bezala (forma soilaren arabera) posible egiten duten ezinbesteko baldintzak eta lege orokorrak aztertzea (nahiz eta hauek subjektiboak izan), eta horrela gauzen posibilitatea esperientziaren objektu bezala determinatzea. Ba nik bigarren esamoldea aukeratuko banu eta natura, esperientziaren objektu bezala, posible egiten duten apriorizko baldintzak bilatuko banitu, aise engainatuko nintzateke eta irudituko litzaidake, berbaitango gauza batez

bezala hitz egin behar dudala naturaz, eta orduan, probetxu gabe, amaigabeko ahaleginetan ibiliko nintzateke gauzentzat legeak bilatzen, nahiz eta gauza horietaz ezer eman ez zaidan.

Beraz, gure hemengo autua hauxe baino ez da izango, esperientzia eta hau posible egiteko orokorrean eta a priori dauden baldintzak, eta hortik hara natura determinatuko dugu edozein esperientzia posibleren erabateko objektu bezala. Uste dut ulertuko dela, ni ez naizela hemen ari, jadanik emanda dagoen natura hautemateko erregelez hitz egiten, hauek esperientzia suposatzen baitute aurretiaz; beraz, ni ez naiz ari esaten, nola ikas genitzakeen guk legeak naturarengandik (esperientziaren bidez), ba orduan horiek ez lirateke apriorizko lege izango eta ez lukete inolako natur zientzia hutsik emango; baizik eta ni esaten ari naizena da, esperientzi posibilitatearen apriorizko baldintzak iturri batzuk direla, eta horietatik atera behar direla natur lege unibertsal guztiak.

XVIII

Beraz, lehendabizi ohar hau egin behar dugu: alegia, esperientziatzko judizio guztiak enpirikoak badira ere, h. d. beren oinarria sentimenen hautemapen inmediatean baldin badaukate ere, alderantziz judizio enpiriko guztiak ez direla horregatik esperientziatzko judizio; ostera baizik, esperientziaz gainera, eta batik bat sentimenezko intuizioari ematen zaionaz aparte, beste kontzeptu berezi batzuk ere gaineratu behar direla, beren jatorria erabat a priori adimen hutsean daukatenak; kontzeptu horien azpian edozein hautemapen egin daiteke aurrena subsumitu eta gero berorien bidez esperientzia bihurtu. Judizio enpirikoek, balio objektiboa daukaten neurrian, esperientziatzko judizio dira; baina balio subjektiboa besterik ez daukatenak, horiek hautemapenezko judizio soil deitzen ditut nik. Azkeneko hauek ez dute inolako adimen-kontzeptu hutsik behar, aski dute hautemapenen konexio logikoa subjektu pentsatzaile batengan egitea. Aurrenekoak, alabaina, sentimenezko intuizioaren errepresentazioetatik aparte, beti eskatzen ditu jatorriz adimenean sortutako kontzeptu bereziak ere, eta hauexek dira hain zuzen esperientziatzko judizioari balio objektiboa ematen diotenak.

Gure judizio guztiak hautemapenezko judizio soilak izaten dira aurrena: guretzat soilik balio izaten dute, h. d. gure subjektuarentzat soilik, eta geroago bakarrik ematen diegu erlazio berri bat, objektu batekiko erlazioa, eta nahi izaten dugu, izan dadila beti baliozkoa, bai guretzat eta bai beste edozeinentzat; izan ere, judizio bat objektu batekin ados badago, objektu berari buruzko beste judizio guztiek ere ados egon behar dute elkarrekin, eta beraz esperientziatzko judizioaren balio objektiboak ez du besterik esan nahi, ezpada horrek balio unibertsala daukala derrigor. Baina alderantziz ere bai, guk arrazoirik aurkitzen badugu, judizio bat derrigor balio unibertsalekotzat kontsideratzeko (hau, berriz, ez da inoiz hautemapenean oinarritzen eta bai hautemapena subsumitzen duen adimen-kontzeptu hutsean), orduan objektibotzat ere jo beharra daukagu hori; horrek esan nahi du, ezen horrek adierazten duena ez dela hautemapenak subjektu batekin duen erlazioa bakarrik, baizik eta objektuaren izateko modu bat ere adierazten duela; ba ez legoke inolako arrazoirik, besteen judizioak nirearekin adostu behar izateko, baldin eta objektuak batasun bat ez baleuka, zeinari guztiek erreferentzia egiten dioten eta zeinarekin denak ados jartzen diren eta zeinarengatik gero denek elkarrekin ere ados jarri behar duten.

XIX

Horregatik balio objektiboa eta derrigorrezko balio unibertsala kontzeptuak elkarrekin trukatzeko modukoak dira (edozeinentzat), eta guk objektua bere baitan ezagutzen ez badugu ere, hala ere, guk judizio bat balio unibertsalekotzat, eta beraz derrigorrezkotzat jotzen dugunean, balio objektiboa da guk horren azpian ulertzen duguna. Judizio horren bidez objektua ezagutzen dugu (nahiz eta, bestalde, hori bere baitan nolakoa den beti ere guretzat ezezaguna izan), emandako hautemapenen balio unibertsaleko eta

derrigorrezko konexioari esker; eta nola hau sentimenen objektu guztiekin gertatzen den, ba orduan esperientziazko judizioek ez dute beren balio objektiboa objektuaren ezagutza inmediatek jasotzen (ezinezkoa izaki hau), eta bai soilik judizio enpirikoen balio unibertsalaren baldintzetatik; eta lehen esan denez, balore unibertsal hori ez da oinarritzen inoiz baldintza enpirikoetan, hots oro har sentimenezkoetan, baizik eta adimen-kontzeptu huts batean. Objektua bera, beti gelditzen da bere baitan ezezagun; baina adimen-kontzeptuaren bidez, gure sentsibilitateari objektu horretaz ematen zaizkion errepresentazioen konexioa balio unibertsalekotasun determinatzen bada, orduan objektua erlazio horren bidez determinatzen da eta objektiboa da judizioa.

Argi dezagun puntu hau: gela bero dagoela, azukrea gozoa dela, asentsio-belarra gustu txarrekoa dela⁶, horiek balio subjektiboa baino ez duten judizioak dira. Nik ez dut inola ere pretenditzen, hori beti horrela ikusi behar dudarik, edo beste edonork ere nik bezala ikusi behar duenik; judizio horiek adierazten dutena da, bi sentsazioek subjektu batean, nigan, daukaten erlazioa, eta hori ere nire oraingo hautemapen-egoera honetan bakarrik; horregatik ez dute balio izan beharko objektuarentzat ere; honelakoak hautemapen-judizio deitzen ditut nik. Guztiz bestelakoa da esperientzi judizioen kasua. Esperientziak zirkunstantzia jakin batzuetan irakasten didana, edozein momentutan irakatsi behar dit, bai niri eta bai beste edozeini; horren balioa ez da murrizten subjektura edo honen une bateko egoerara. Arrazoi horregatik, honelako judizioak objektiboki baliozkotasun jotzen ditut nik. Konparazio baterako, nik esango banu, airea elastikoa da, judizio hau hautemapenaren judizio besterik ez da lehenengo eta behin; nik hor, bi sentsazio, nire sentimenetan, elkarrekin erlazionatu besterik ez dut egiten. Hori esperientziazko judizio izatea nahi badut, orduan eskatuko dut, konexio hori egon dadila balio unibertsaleko egiten duen baldintza baten azpian. Nik nahi dudana da, beraz, bai nik eta bai beste edozeinek, zirkunstantzia berdinetan, beti hautemapen bera lotu behar izan dezagula derrigor.

XX

Beraz, esperientzia orokorrean analizatu beharko dugu, ikusi ahal izateko, ea zer jasotzen den sentimenen eta adimenaren produktu horretan eta nola den posible esperientziazko judizioa bera. Oinarrian nik jakinaren gainean daukadan intuizioa dago, h. d. hautemapena (perceptio), sentimenei soilik apartenitzen zaiena. Baina, bigarren, juzgatzea ere horri dagokion gauza da (nahiz eta hau adimenari bakarrik tokatzen zaion). Juzgatze hori, berriz, bi eratakoa izan daiteke: aurrenekoan, nik egiten dudana bakarria da, hautemapenak konparatu eta nire egoeraren kontzientzia batean lotu; bigarren, horiek kontzientzia orokor batean lotzen ditut. Aurreneko judizioa hautemapen-judizio soilak besterik ez da, eta beraz balio subjektiboa bakarrik dauka; hautemapenak nire "Gemüt"-egoeran elkarrekin lotu besterik ez du egiten, objektuari erreferentziarik egin gabe. Horregatik, esperientziarik izango bada, ez da nahikoa jendeak jeneralean uste duen moduan, hautemapenak elkarrekin konparatzea eta, judizioaren bidez, horiek kontzientzia batean korapilatzea; ba hortik bakarrik ez da sortzen judizioaren balio unibertsalik eta derrigortasunik; hauek biak dira ezinbestekoak balio objektiborik eta esperientziarik izango bada.

Hortaz, beharrezkoa da erabat diferentea den beste judizio-modu bat ere, hautemapenetik esperientzia sortu baino lehen. Beharrezkoa da emandako intuizioa kontzeptu baten azpian subsumiturik egotea; honek determinatuko baitu judizioaren forma oro har intuizioari buruz eta berak korapilatuko du intuizio horren kontzientzia enpirikoa kontzientzia orokor batean, horrela judizio enpirikoari balio unibertsala emanez; horrelako kontzeptua apriorizko adimen-kontzeptu hutsa da, ez baitu besterik egiten, ezpada modu orokorrean determinatu, intuizio batek nola balio dezakeen judizioak egiteko. Demagun kausa-kontzeptua dela honelako kontzeptu bat: berak

determinatzen du bere azpian subsumiturik dagoen intuizioa, adibidez, airearen intuizioa judizioari buruz oro har, alegia aire-kontzeptua, hedapenari dagokionez, antezedenteak kontsekuentearekin duen erlazioan aurkitzen dela judizio hipotetiko batean. Kausa-kontzeptua, beraz, adimen-kontzeptu hutsa da, edozein hautemapen posibleetatik betaro bereizten dena, bere balio bakarra izaki, bere azpian jasota dagoen errepresentazioa judizioari buruz oro har determinatzea, eta, hala, balio unibertsaleko judizio bat ahalgarri egitea.

Beraz, hautemapen-judizio bat esperientzi judizio bihurtu baino lehen, aurrena eskatzen da: egon dadila hautemapena antzeko adimen-kontzeptu batek subsumiturik; adibidez, airea kausa-kontzeptuaren azpian dago, honek determinatzen baitu, hipotetiko bezala, aireari buruzko judizioa hedapenari dagokionez⁷. Horregatik aire-hedapen hori ez da bururatzen nik soilik nire egoeran, edo nire hainbat egoeratan, edo beste batzuen hautemapen-egoeran, daukadan aire-hautemapenari apartenitzen zaion gauza bezala, eta bai aitzitik berari derrigor apartenitzen zaion gauza bezala; eta zerako judizioa "airea elastikoa da" balio unibertsaleko egiten da eta, horren bidez, beste ezer baino lehen esperientzi judizio bihurtzen da, judizio jakin batzuk airearen intuizioa kausa-efektuen kontzeptupean subsumitzen dutenak, aurretik doazelako, eta horrela hautemapenak determinatzen dituzte, ez bakarrik bata besteari buruz nire subjektibitatean, baizik eta judizioaren (hemen hipotetikoaren) formari buruz oro har ere bai, horrela judizio enpirikoa balio unibertsaleko eginez.

Batek bere judizio sintetiko guztiak analizatzen baditu, hauek balio objektiboa duten neurrian, orduan aurkitzen du, ezen judizio haiek inoiz ere ez direla intuizio soilak izaten, jendeak ohiki uste duen bezala, konparazio baten bidez judizio batean lotzen direnak; ostera baizik, aurkitzen du, ezinezkoak liratekeela horiek, intuiziotik ateratako kontzeptuei beste adimen-kontzeptu huts bat gehituko ez balitzaie, zeinaren azpian kontzeptu haiek izan baitira subsumituak eta horrela lehenengo eta behin balio objektiboko judizio batean lotuak. Matematika hutseko judizioak berak ere, beren axiomarik sinpleenetan ere, ez dira libratzen baldintza honetatik. Harako printzipioak: "lerro zuzena da bi punturen artean laburrena" dioenak ere, aurre suposatzen du, lerroa handitasun-kontzeptuaren azpian subsumitzen dela; kontzeptu hori, berriz, ez da inola ere intuizio soila, aitzitik adimenean dauka bere kokalekua, eta balio du, intuizioa (lerroarena) determinatzeko, honetaz eman daitezkeen judizioei buruz, horren kantitatearen ikuspegitik, hots kontuan hartuz horren pluraltasuna (judicia plurala gisa)⁸; horrekin ulertu nahi baita, ezen emandako intuizio batean elementu homogeno asko egoten direla.

XXI

Eta hala, esperientziaren posibilitatea esplikatu ahal izateko, esperientzia apriorizko adimen-kontzeptu hutsetan oinarritzen den neurrian, aurrena behar dugu taula osatu batean erakutsi, zer den juzgatzeari oro har apartenitzen zaiona eta zein diren adimenak kontzeptu horietan dauzkan momentu diferenteak; ba adimen-kontzeptuak, intuizio orokorren kontzeptu besterik ez direnak, momentu batari edo besteari buruz beren baitan, eta beraz derrigor eta unibertsalki, juzgatzeko determinaturik dauden neurrian, momentu horiekin guztiz paralelo joango dira. Horren bidez, zehatz-mehatz determinatuko dira edozein esperientziak, balio objektiboko ezagutza enpiriko bezala, daukan posibilitatearen apriorizko printzipioak. Ba printzipio hauek ez dira besterik, hautemapen oro (intuizioaren baldintza orokor jakin batzuen arabera) honako adimen-kontzeptuen azpian subsumitzen duten proposizio batzuk baino.

JUDIZIOEN TAULA LOGIKOA

1.

Kantitatearen arabera

Unibertsalak

Partikularrak

Singularrak

2. 3.

Kalitatearen arabera Erlazioaren arabera

Baiezkoak Kategorikoak

Ezezkoak Hipotetikoak

Infinituak Disjuntiboak

4.

Modalitatearen arabera

Problematikoak

Asertorioak

Apodiktikoak

ADIMEN-KONTZEPTUEN TAULA TRANSZENDENTALA

1.

Kantitatearen arabera
Unitatea (neurria)
Pluraltasuna (kantitatea)
Guztitasuna (dena)

2. 3.

Kalitatearen arabera Erlazioaren arabera
Errealitatea Substantzia
Ukapena (negazioa) Kausa
Murrizpena Komunitatea

4.

Modalitatearen arabera
Posibilitatea
Existentzia
Derrigortasuna

NATUR ZIENTZIAKO PRINTZPIO UNIBERTSALEN TAULA FISIOLOGIKO HUTSA

1.

Axiomak
intuizioarenak

2. 3.

Antzipazioak Analogiak
hautemapenarenak esperientziarenak

4.

Postulatuak
pentsamendu enpirikoarenak oro har

XXIa

Orain arteko guztia kontzeptu batean laburtzeko, ezinbestekoa da aurrena irakurleari gogoraraztea: hemengo autua ez dela esperientziaren sorrera, esperientziaren edukina baizik. Aurrenekoa Psikologia enpirikoari dagokio eta hor ere ezin tratatuko litzateke behar bezala, bigarrena gabe, hau izaki ezagutzaren eta batik bat adimenaren kritikari dagokiona.

Esperientzia osatzen dutenak dira: intuizioak, sentsibiltatearenak baitira, eta judizioak, soilik adimenaren lanak direnak. Baina adimenak sentimenezko intuizioekin bakarrik egiten dituen judizioak ez dira, ezta urrundik ere, esperientziazko judizio. Ba aurreneko kasuan, judizioak hautemapenak bakarrik lotuko lituzke, hauek sentimenezko intuizioan ematen diren bezala; eta bigarren kasuan, judizioek esan behar dute, esperientziak oro har zer jasotzen duen, eta, beraz, ez hautemapen soilak zer jasotzen duen, honen balioa subjektiboa baino ez baita. Beraz, esperientzi judizioak zerbait gehitu behar dio oraindik judizio batean sentimenezko intuizioari eta honen konexio logikoari (hau konparazio bidez orokor egin ondoren), zerbait judizio sintetikoa derrigorrezko eta ondorioz balio unibertsaleko bezala determinatzen duena; zerbait hori, berriz, ezin daiteke besterik izan, ezpada zerako kontzeptu bat, intuizioa bere baitan determinatua bezala aurkezten duena eta determinatua ere judizio-forma bati buruz beste bati buruz baino areago; hau da, intuizioen batasun sintetikoaren kontzeptu bat, judizioen funtzio logiko baten bidez bakarrik aurkez daitekeena.

XXII

Hona labur esanda: sentimenen egitekoa intuitzea da; adimenaren egitekoa, pentsatzea. Pentsatzea, berriz, da, errepresentazioak kontzientzia batean bateratzea. Bateratze hau egiten da, dela subjektuari buruz bakarrik, eta orduan kontingentea eta subjektiboa izaten da, edo besterik gabe, absolutuki, gertatzen da, eta orduan derrigorrezkoa eta objektiboa izaten da. Errepresentazioak kontzientzia batean bateratzea, horixe da judizioa. Hortaz, pentsatzea juzgatzea adinaxe da, edo errepresentazioak judizio orokorrekin erlazionatzea adinaxe. Horregatik, judizioak izaten dira, edo subjektibo hutsak, errepresentazioak subjektu batengan kontzientzia batekin bakarrik erlazionatzen eta bertan bateratzen direnean, edo bestela izaten dira objektiboak, kontzientzia orokor batean, h. d. bertan derrigor bateratzen direnean. Judizio guztien momentu logikoak, errepresentazioak kontzientzia batean bateratzeko dauden modu posibleak adinaxe dira. Baina momentu horiek kontzeptu bezala balio baldin badute, orduan horiek errepresentazioak kontzientzia batean derrigor bateratzearen kontzeptu dira, eta beraz objektiboki balio duten judizioen printzipio. Kontzientzia batean bateratze hau izaten da, analitikoa, identitatez egina, edo sintetikoa, errepresentazio desberdinak elkarrekin konposatuz edo elkarri gehituz egindakoa. Esperientzia, berriz, da, errepresentazioak (hautemapenak) kontzientzia batean sintetikoki korapilatzea, hau derrigorrezko den neurrian. Horregatik, adimen-kontzeptuak zerak dira, aldezturik hautemapen guztiak beren azpian subsumiturik eduki behar dituztenak, hautemapenok esperientzi judizioentzat baliagarri izan baino lehen, ba esperientzi judizio hauetan derrigorreko eta balio unibertsaleko bezala aurkezten da hautemapenen batasun sintetikoa⁹.

XXIII

Judizioak, emandako errepresentazioak kontzientzia batean bateratzeko baldintza bezala soilik kontsideratzen diren neurrian, erregela dira. Erregela hauek baterapena derrigorrezko bezala errepresentatzen duten neurrian, apriorizko erregela dira, eta hauek baino nagusiagorik, hauei jatorria ematen dienik, ez dagoen neurrian, printzipio dira. Baina nola edozein esperientziaren posibilitateari buruz, horretan pentsamenduaren forma bakarrik begiztatzen baldin bada, esperientzi judizioen baldintzarik ez dagoen horien gainetik, fenomenoak, beren intuizioaren forma desberdinen arabera, adimen-kontzeptu hutsen azpian jartzen dituenik, hauek izaki judizio enpirikoari balio objektiboa ematen diotenak, ba honelakoxeak dira esperientzia posiblearen apriorizko printzipioak.

Esperientzia posiblearen printzipioak, alabaina, naturaren lege unibertsal ere badira aldi berean, eta a priori ezagut daitezke. Honela, berriz, soluzionaturik geratzen da gure bigarren galderan planteatu zen arazoa: Nola da posible natur zientzia hutsa? Ba zientzia batek forma aldetik eskatzen duen sistematikotasuna betaro ematen da hemen; ze aipatu judizio orokor guztietatik aparte, eta ondorioz logikak eskaintzen dituen erregela orokor guztietatik aparte, ez da besterik posible; baldintza horiek, berriz, sistema logiko bat osatzen dute, baina horren gainean oinarritutako kontzeptuek, hain zuzen ere judizio sintetiko eta derrigorrezko guztietarako apriorizko baldintzak jasotzen dituztelako, sistema transzendental bat osatzen dute; azkenik, kontzeptu hauen azpian fenomeno guztiak subsumitzeko erabiltzen diren printzipioek sistema fisiologiko bat osatzen dute, h. d. natur sistema bat, edozein natur ezagutza enpiriko baino lehenagokoa dena, eta berau posible egiten duena: beraz, horrexek merezi du benetan natur zientzia unibertsal eta hutsaren izena.

XXIV

Printzipio fisiologiko horietan lehendabizikoak¹⁰ fenomeno guztiak subsumitzen ditu, espazio eta denborango intuizio bezala, tamainaren kontzeptupean; hau, berriz, Matematika esperientzian aplikatzeko printzipio bat da. Bigarrenak benetan enpirikoa dena subsumitzen du, hau da, intuizioen errealkia adierazten duen sentsazioa, ez zuzenean tamainaren kontzeptupean, sentsazioa ez baita, izan ere, espazioa edo denbora bere baitan jasoko lituzkeen intuizio bat, nahiz eta honek bietan ipini berari tokatzen zaion objektua; baina errealtatearen (sentsazio-errepresentazioaren) eta zeroaren, h. d. denborango intuizioaren erabateko hutsaren artean, bada diferentzia bat, tamaina bat daukana; ba izan ere, emandako edozein argi-gradu jakin baten eta ilunpearen artean, edozein bero-graduren eta erabateko hotzaren artean, edozein astuntasun-graduren eta arintasun absolutuaren artean, espazioaren edozein betetasun-graduren eta erabateko espazio huts baten artean, beti eta beti burura daitezke gradu txikiagoak; eta era berean aurkitzen dira maila txikiagoak kontzientzia baten eta erabateko inkontzientzia (iluntasun psikologiko) baten artean ere; horregatik ez da posible erabat mentsa den hautemapenik; adibidez, ez dago iluntasun psikologikorik beste kontzientzia bortitzago batek gauditutako kontzientzia bezala kontsidera ezin daitekeenik, eta beste horrenbeste izaten da sentsazioen kasu guztietan. Horregatik, errepresentazio enpirikoen (fenomenoen) benetako kalitatea osatzen duten sentsazioak berak ere aurretiaztu egin ditzake adimenak honako printzipio honen arabera: sentsazio guzti-guztiek, eta beraz edozein fenomenoren errealkiak ere bai, graduak dauzkate; eta hauxe da Matematika (mathesis intensorum) natur zientziara aplikatzeko bigarren modua.

XXV

Fenomenoen erlazioei dagokienez, eta gainera horien autugaia existentzia besterik ez denean, erlazio horren determinazioa ez da matematikoa izaten, dinamikoa baizik; inoiz ere ezin du balio objektiborik eduki, eta beraz ezin du balio esperientzia batean erabilia izateko, apriorizko printzipioen artean ez badago, hauek izaki lehenengo eta behin fenomeno horiei buruzko esperientzi ezagutza ahalgarri egiten dutenak. Horregatik fenomenoak subsumitu behar dira: lehenengo, substantzi kontzeptuaren azpian, zeinak existentziaren edozein determinazio gauzaren beraren kontzeptu bezala oinarritzen duen; edo, bigarren, kausari buruzko efektu-kontzeptuaren azpian, fenomenoen artean segida bat, h. d. gertakari bat, ematen bada; edo komunitate-kontzeptuaren (elkarrekiko ekintzaren) azpian, aldiberekotasuna objektiboki, h. d. esperientzi judizio baten bidez, ezagutu behar den neurrian; eta hala oinarritzen dituzte apriorizko printzipioek objektiboki baliozkoak diren judizioak, nahiz eta hauek enpirikoak izan; h. d. printzipio horiek esperientziaren posibilitatea oinarritzen dute, honek objektuak existentziaren arabera naturan korapilatu behar dituen neurrian. Printzipio hauexek dira benetako natur legeak, dinamiko dei daitezkeenak.

Azkenik, esperientzi judizioei dagokien gauza da berebat, adostasuna eta konexioa ezagutzea, ez hainbat fenomenoek esperientzian elkarren artean daukatena, eta bai areago horiek esperientzia orokorrarekin duten erlazioa; erlazio honek kontzeptu batean batzen ditu, bai adimenak ezagutzen dituen baldintza formalekin fenomeno haiek daukaten adostasuna, eta bai haiek sentimenen eta hautemapenaren materialkiarekin daukaten konexioa, edo baita biak ere; beraz, posibilitatea, errealtatea eta derrigortasuna jasotzen ditu natur lege unibertsalen arabera, eta hauxe litzateke metodologia fisiologikoa (egia eta hipotesiak bereiztea eta azkeneko hauen fidagarritasun-mugak jartzea).

XXVI

Egia da, printzipioen hirugarren taulak, metodo kritikoaren arabera adimenaren beraren izaeratik aterea izan denak, berez ageri duela halako perfekzio bat, beste edozeinek,

alferrik bada ere, modu dogmatikoan gauzetatik beretatik abiatuz, inoiz bilatu duen edo etorkizunean bilatuko duena baino askoz ere handiagoa dena: perfekzio hori izaki, ezen taula honetan apriorizko printzipio sintetiko guztiak erabat-erabat eta printzipio baten arabera izan direla desarroilatuak, alegia orokorki juzgatzeko ahalmenaren arabera, hauxe baita adimenari buruz esperientziaren esentzia osatzen duena; honela seguru egon daiteke bat, ez dagoela horrelako beste printzipiorik (honelako askitasunik ezin dezake metodo dogmatikoak inola ere eman); hala ere ez da hori urrundik ere horren merezimendu handiena.

Atentzio eman beharra dago, apriorizko ezagutza horren posibilitatea deskubritzen duen eta printzipio hauek denak aldi berean baldintza batera murrizten dituen argumentuari; ba baldintza hori ez da inoiz ere ahaztu behar, gaizki ulertu nahi ez bada eta usaeran adimenak ematen dion jatorrizko esanahia baino gehiago barreiatu nahi ez bada; alegia printzipio horiek esperientzia orokor posible baten baldintzak bakarrik jasotzen dituztela, hauek apriorizko legeen mendean dauden neurrian. Eta hala, nik ez dut esaten, berbaitango gauzek tamaina bat daukatenik, horien errealitateak gradu bat daukanik eta horien existentziak akzidenteak substantzia batean lotzen dituenik, etab.; ba hau ezin du inork demostratu, ze erabat ezinezkoa da kontzeptu soilez eginda dagoen horrelako lotura sintetiko bat, bertan falta badira, alde batetik, sentimenezko intuizioarentzat edozein erlazio eta, bestetik, intuizio horren edozein lotura, esperientzia posible batean. Beraz, kontzeptuen murrizpen esentziala, printzipio hauetan, da, ezen gauza guztiak esperientziaren objektu bezala bakarrik daudela derrigor a priori, aipatu baldintzen azpian.

Bigarren, hemendik, beste froga-modu espezifiko bat ere segitzen da, horretarako aproposa dena: alegia, aipatu printzipio horiek zuzenean begiztatzen dituztenak ez direla fenomenoak eta hauen erlazioak, eta bai esperientziaren posibilitatea, non fenomenoek horren materia soilik osatzen duten, baina ez forma; h. d. balio objektibo eta unibertsaleko proposizio sintetikoak begiztatzen dituzte, non esperientzi judizioak hautemapen-judizio soiletatik bereizten diren. Hauen arrazoia da, ezen fenomenoak, espazio eta denboraren zati bat hartzen duten intuizio soil direnez, tamainaren kontzeptupean daudela eta horrek bateratzen duela a priori horien aniztasuna, erregela sintetiko batzuen eredura; ba, hautemapenak intuizioaz gain sentsazioa ere jasotzen duen neurrian, horien eta zeroaren artean, h. d. horien eta horien erabateko desagertpenaren artean, beti izaten da gutxitze-bidezko trantsizio bat, eta beharrezkoa da fenomenoaren errealkiak gradu bat edukitzea; sentsazioak berak ez du espazio edo denborarik okupatzen¹¹, baina denbora edo espazio hutsetik sentsaziora pasatzea denboran bakarrik da posible; beraz, nahiz eta sentsazioa, intuizio enpirikoaren kualitate bezala, inola ere a priori ezagutzerik ez dagoen, hori beste sentsazioetatik espezifikoki desberdintzen duen zerari buruz, hala ere esperientzia orokor posible batean, sentsazioaren tamaina bezala, intentsitatez bereiz daiteke sentsazio hori beste antzeko guztietatik; horrela egiten da posible eta determinatzen da, lehenengo eta behin, Matematika naturari aplikatzea, sentimenezko intuizioari dagokionez, horren bidez ematen zaigu natura hori-eta.

Baina batez ere, esperientziaren analogien izenpean aurkezten diren froga-moduetara egon behar du adi-adi irakurleak. Ba nola printzipio hauek, eta berebat Matematika natur zientzia orokorretara aplikatzekoek, begiztatzen dutena ez baita intuizioen sorrera, baizik horien existentziak esperientzia batean daukan konexioa; beraz, hau ezin daiteke besterik ezer izan, ezpada existentzia denboran determinatzea, derrigorrezko lege batzuen arabera, hauen mendean bakarrik baita hori objektiboki baliozko, eta ondorioz esperientzia; horregatik frogak begiztatzen duen konexioko batasun sintetikoa ez da berbaitango gauzena, baizik hautemapenena, eta hauena ere ez beren edukinari

dagokionez, baizik eta denboraren determinazioari eta existentziak denboran, lege unibertsalen arabera, daukan erlazioari dagokionez. Lege unibertsal hauek beren baitan izaten dute denboran oro har existentzia determinatzeko derrigortasuna (ondorioz, adimenaren apriorizko erregela baten arabera), determinazio enpirikoa denbora erlatiboan objektiboki baliozkoa eta, beraz, esperientzia izango bada. Prolegomeno hauetan ezin dut nik besterik ezer egin, irakurleari gomendio bat eman baino, aspalditik ohitua baitago hau esperientzia hautemapenen konposizio enpiriko soiltzat hartzen eta gero ez baitu pentsatzen, ezen esperientzia hautemapenak baino askoz ere urrutirago iristen dela, hau da, judizio enpirikoei balio unibertsala ematen diela, eta horretarako a priori-izaera aurretiaz izango duen adimen-unitate huts bat behar duela: kontuz ibil dadila esperientzia hautemapenen agregatu soil batetik bereizten, eta froga-modua ikuspuntu honetatik juzgatzen.

XXVII

Hona Humeren zalantza azpi-azpitik erabakitzeke lekua. Hark uste zuen, eta arrazoiarekin uste ere, guk ezin uler genezakeela arrazoiaren bidez kausalitatearen posibilitatea, h. d. gauza baten existentziak, honek derrigor eragiten duen beste zerbaiten existentziarekin duen erlazioaren posibilitatea. Eta nik gehitzen dut oraindik, hori bezain gutxi ulertzen dugula guk subsistentziaren kontzeptua, h. d. derrigorrezkoa dela gauzen existentziak bere oinarrian subjektu bat edukitzea, beste baten predikatu izan ezin daitekeena; eta areago esango dut oraindik, alegia guk ezin dugula bururatu ere egin horrelako gauza baten posibilitaterik (nahiz eta gu gauza izan esperientzian hori erabiltzeko moduaren adibideak erakusteko); eta era berean, bururaezintasun horrek gauzen komunitatea ere ukitzen duela, izan ere ez baita ulertzekoa, nola gauza baten egoeratik ondorio bat atera daitekeen beste gauza batzuen egoerarentzat, nahiz eta hauek erabat diferenteak izan eta haren kanpoan egon, eta alderantziz; eta nola substantziek, bakoitzak bere existentzia berezia duelarik ere, bata bestearen mendean egon beharra daukaten, eta derrigor gainera. Era berean, urrun dago nigandik uste izatea, kontzeptu hauek esperientzia soiletik jariatua direla, eta horietan agertzen den derrigortasuna guri ohitura luze batek kaskoratu digun itxura hutsa besterik ez dela; aitzitik nahiko argi utzi dut, ezen kontzeptuok eta hauetatik jariatzen diren printzipioak a priori edozein esperientzia baino lehenagokoak direla, eta zalantza gabeko zuzentasun objektibo bat daukatela, baina beti ere esperientziari dagokionez bakarrik.

XXVIII

Egia esan, nik ez daukat nozio txikienik ere berbaitango gauzek izan dezaketen horrelako konexio bati buruz, nola existi daitezkeen substantzia bezala, edo nola ihardun dezaketen kausa bezala, edo nola egon daitezkeen besteekin batera (osotasun erreal baten zati gisa); baina nekezago pentsa dezaket oraindik horrelako berekitasunik fenomenoetan fenomeno bezala (ba kontzeptu horiek ez dute jasotzen fenomenoetan dagoenik ezer, eta bai soilik adimenak pentsatu behar duen hura); holako errepresentazioek gure adimenean, eta hain zuzen juzgatzean oro har, izaten duten konexioari buruz, honelako kontzeptu bat edukitzen dugu guk: alegia, errepresentazioak judizio-mota batean subjektu izaten direla predikatuei buruz, bigarren mota batean kausa izaten direla ondorioari buruz, hirugarren mota batean, zati izaten direla, eta denek batera osoko ezagutza posible bat osatzen dutela. Gainera a priori dakigu guk, ezen objektu baten errepresentazioa momentu hauetako batari edo besteari buruz determinaturik kontsideratuko ez bagenu, ezin izango genukeela inolako ezagutzarik eduki, objektu-ezagutza bezala balioa izateko moduan; eta gu objektuarekin berarekin arduratuko bagina, ezaugarri posible bat bakarrik ere ez litzateke egongo, niri aditzera emango lidakeenik, ezen hori determinaturik dagoela pentsatutako momentu batari edo besteari buruz, h. d. hori

substantziaren edo kausaren kontzeptuan edo (beste substantzia batzuekiko erlazioan) komunitatearen kontzeptu batean sartzen dela; ba nik ez daukat inolako ideiarik existentziaren horrelako konexiorik posible ote denaz. Arazoa ez da, izan ere, berbaitango gauzak nola determinatuta dauden jakitea, baizik eta jakitea, nola determinaturik dagoen gauzen esperientziazko ezagutza, lehen aipatutako judizio orokorren momentuei buruz, h. d. ea gauzak, esperientziaren objektu direnez, nola subsumi daitezkeen eta behar diren adimen-kontzeptuen azpian. Eta garbi dago hemen: ezen argi eta garbi hautematen dudala nik, ez bakarrik fenomeno guztiak kontzeptu horien azpian subsumitzeko posibilitatea, baizik eta horren derrigortasuna ere bai, h. d. horiek esperientzi posibilitatearen printzipio bezala erabiltzeko ahalbidea eta derrigortasuna.

XXIX

Humeren kontzeptu problematikoa (haren *crux metaphysicorum* delakoa) hau da, kausaren kontzeptua, probatzearen, logikak aurrena a priori ematen didana da, judizio kondizional orokor baten forma, hau da, ezagutza jakin bat kausa bezala erabiltzeko, eta gainerakoa ondorio bezala erabiltzeko. Baina daitekeena da, hautemapenean erlaziozko erregela bat aurkitzea, esaten duena: fenomeno jakin bati beste fenomeno batek segitzen diola beti (nahiz eta alderantziz honela izan ez); eta kasu horretan judizio hipotetikoaz balia naiteke eta esan dezaket, adibidez: gorputz bat eguzkiak behar hainbat luze argitzen badu, berotu egiten dela. Hemen ez dago, oraindik, noski, konexioaren derrigortasunik, eta beraz kausaren kontzepturik ere ez. Baina aurrera jo eta esango dut: aurreko proposizio hori, hautemapenen konexio subjektibo bat besterik ez baita, esperientziazko proposizio izango bada, derrigorrezko eta balio unibertsaleko bezala kontsideratu behar da. Eta honelako proposizio bat izango litzateke: eguzkia, bere argiarekin, beroaren kausa da. Aipatu erregela enpiriko hori lege bezala ikusiko da aurrerantzean, eta balioko du, ez fenomenoentzat bakarrik, baizik eta horientzat esperientzia posible baten mesedetan, ba honek erregela orokorrak eta, beraz, derrigor balio dutenak behar ditu. Hortaz, ederki bururatzen dut nik kausa-kontzeptua esperientziako forma soilaren kontzeptu bezala, eta horren posibilitatea kontzientzia orokor batean hautemapenak sintetikoki batzea bezala; baina gauza orokor bat kausa nola izan daitekeen, hori ez dut ikusten nik, eta honexegatik hain zuzen, zeren kausa-kontzeptuak adierazten duen baldintza ez dagoelako gauzei atxikia eta bai esperientziari bakarrik; honek esan nahi du, berriz, esperientzia fenomenoaren eta hauen segidaren ezagutza objektiboki baliozkoa bakarrik izan daitekeela, aurretik doana atzetik doanarekin judizio hipotetikoaren arabera lot daitekeen neurrian.

XXX

Horregatik, adimen-kontzeptu hutsek ere ez daukate inolako esanahirik, esperientziazko objektuetatik apartatuz, berbaitango gauzei begira (*noumena*) jarri nahi badira. Balio dute soilik fenomenoak aletzeko, gero esperientzia bezala irakurri ahal izateko; printzipioek, horiek sentimen-munduarekin daukaten erlazioetik jalkitzen baitira, esperientzia erabiltzeko bakarrik balio diote gure adimenari; hortik harago, konexio arbitrarioak besterik ez dago, errealtate objektiborik gabekoak, zeintzuen posibilitatea ez baitago ez a priori ezagutzerik eta ez horiek objektuekin daukan erlazioa inolako adibideren bitartez konfirmatzerik, edo soilik ulergarri egiterik ere; ba adibide guztiak esperientzia posibleren batetik hartzen dira, eta beraz kontzeptu horietako objektuak ere esperientzia posible batean ez eta, beste inon ezin daitezke aurki.

Humeren problemaren soluzio hau, autoreak uste zuenaren kontrakoa bada ere, erabatekoa da, eta, beraz, salbatu egiten die adimen-kontzeptuei beren apriorizko jatorria eta natur lege unibertsalei, hauek, adimen-lege bezala, daukaten balioa, eta halako eran egiten du, ze hauen usaera esperientziara bakarrik murrizten baitu, zeren

horien posibilitateak, adimenak esperientziarekin duen erlazioan dauka bere oinarria: hala ere ez dira horiek esperientziatik jariatzen, ostera baizik esperientzia da horietatik jariatzen dena; konexioaren erabat alderantzizko modu hau, berriz, ez zitzaion Humeri inoiz ere bururatuko.

Orain arteko ikerketa guztietatik, berriz, honako emaitza hau jariatzen da: "Apriorizko printzipio guztiak ez dira ezer esperientzia posiblearen printzipio besterik eta ezin dira inoiz ere aplikatu berbaitango gauzetara, fenomeno soiletara baizik, esperientziaren objektu bezala. Horregatik, ez Matematika hutsa eta ez natur zientzia hutsa dira gauza fenomeno soiletatik aurrera pasatzeko, eta errepresenta dezaketen guztia da, esperientzia orokorra posible egiten duen hura edota, printzipio horietatik jariatzen den neurrian, esperientzia posibleren batean beti errepresentatzeko modukoa izan behar duena.

XXXI

Honela badago, behingoz, zeri-heldu zehatz bat enpresa metafisiko guztietan, zeintzuk orain arte nahiko ausartasunez ibili baitira, baina beti ereitsu, bereizteke zernahi ukituz. Pentsalari dogmatikoek ez zuten inoiz bururatu beren ahaleginen helburua hain gertu jarri beharrekoa zenik; eta beste zerakoek ere ez, zeintzuk, beren ustezko arrazoi sanoarekin kaskagorturik, kontzeptu eta arrazoi hutsaren printzipioak, benetan zuzen eta naturalak baina esperientzian bakarrik erabiltzeko zirenak, usatuz, ezagutzen bila abiatzen baitziren, zeintzuentzat ez baitzuten inolako muga zehatzik ezagutzen eta ezagutzeko modurik ere ez baitzeukaten, ba horrelako adimen hutsaren izaeraz eta are posibilitateaz haiek ez zuten inoiz ez pentsatu eta ez pentsatzeko modurik izan.

Arrazoi hutsaren zenbait naturalistak (horrelakotzat jotzen dut nik, inolako zientziarik gabe Metafisika kontuan erabakiak hartzera ausartzen dena) uste izango luke, hemen horrenbesteko aparatuarekin, edo, nahiago badu, horrenbesteko xehekeria eta pedanteriazko ponparekin aurkeztu den hau, aspalditik zeukala berak, ez bakarrik errezelatu baizik eta jakina eta ulertua ere bai, bere arrazoi sanoaren igarle-espirituari eskerrak: "alegia gu, gure arrazoi guztiarekin ere, ez garela gauza esperientzien alorretik kanpora ateratzeko". Baina poliki-poliki bere arrazoi-printzipioengatik galdetzen baldin bazaio, aitortu beharrean aurkitzen da, horien artean asko daudela berak esperientziatik atera ez dituenak, eta, beraz, esperientziatik independente direnak eta a priori balio dutenak; orduan, nolatan eta zer arrazoirekin nahi ditu filosofo dogmatikoa eta bere burua mugatu, kontzeptu eta printzipio hauek edozein esperientzia posibletatik kanpora erabiltzen dituenak, eta erabili ere esperientzia horretatik independente ezagutzen direlako. Baina arrazoi sanoaren jarraitzaile hori bera ere ez da hain seguru egoten, bere ustezko eta merke eskuratutako jakinduria hori gorabehera, ezainez ezainez, esperientziako objektuetatik kanpora, ameskerien alorrean ez dela eroriko. Jeneralean nahiko sakon katramilatua egoten da bera ere, nahiz eta hizkera herrikoia erabiliz, bere pulamentugabeko uziei itxura bat ematen dien, dena egi itxura, arrazoizko suposizio edo analogia gisa aurkeztuz.

XXXII

Filosofiaren antzina-antzinako garaietatik hasita, arrazoi hutsaren ikertzaileek beti bururatu izan dituzte, sentimenezko mundua osatu zuten sentimenezko izaki edo fenomenoetatik aparte (phaenomena), beste adimen-izaki berezi batzuk (noumena) arrazoizko mundua osatu behar zutenak, eta nola haien zat (oraindik garatu gabeko garai bati barkatzekoa dena) gauza bera ziren fenomenoak eta itxura, ba adimen-izakiari bakarrik aitortzen zioten errealtatea.

Egitatez, baldin eta guk sentimenen objektuak, behar den bezala, fenomeno soiltzat jotzen baditugu, aldi berean aitortzen dugu horrela, ezen haiek, beren oinarrian, berbaitango gauza bat daukatela, nahiz eta guk ez ezagutu hori bere baitan egina dagoen bezala eta bai horren agerpena soilik, h. d. zerbait ezezagun horrek gure sentimenak

afektatzeko daukan modua. Adimenak, beraz, fenomenoak ametitzen dituelako horrexegatik aitortzen du berbaitango gauzen existentzia ere, eta orduan guk esan genezake, ezen fenomenoen oinarrian dauden horrelako izakien errepresentazioa, eta beraz adimen-izaki soilena, onartzekoa ezeze, ezinbestekoa ere badela.

Gure dedukzio kritikoak ere ez du inola ere eskluditzen honelako gauzarik (noumena); aitzitik mugatu egiten ditu Estetikaren oinarriak, eta halako eran, ze ez baitute gauza guztietara hedatu behar, horrela fenomeno hutsetan aldatuko litzateke dena-eta; ostera baizik esperientzia posible bateko objektuentzat bakarrik balio izan behar dute. Beraz, horrela onartu egingo dira adimen-izakiak, baina erregela honetan institutuz, ez baitu inolako salbuespenik ametitzen: alegia, adimen-izaki horretatik guk ez dakigula ezertxo ere zehatzik, eta ezin dugula jakin ere egin, ba gure adimen-kontzeptu hutsek, eta berebat intuizio hutsek, esperientzia posibleko objektuak, eta beraz sentimen-izakiak, besterik ez dute begiztatzen, eta horietatik aldentzen diren bezain azkar, esanahiaren apurrik ere ez zaie kontzeptu horiei gelditzen.

XXXIII

Egia esan, gure adimen-kontzeptu hutsekin bada amarruzko zerbait, horiek usaera transzendentean erabiltzeko lilurari dagokionez; izan ere, honelaxe deitzen diot nik, edozein esperientzia posibletatik kanpora joaten denari. Ez bakarrik gure kontzeptuak substantzia, indar, ekintza, errealitate etab.enak erabat esperientziatik independente daudelako, eta berebat sentimen-fenomenorik ez daukatelako, eta beraz berbaitango gauzak (noumena) begiztatzen dituztela ematen duelako, baizik eta, uste hori oraindik areago sendotzen duena, beren baitan determinazioaren derrigortasun bat edukitzen dutelako, esperientziak inoiz ere parekorik ez duena. Kausa-kontzeptuak erregela bat dauka, zeinaren arabera egoera batetik beste bat segitzen baita derrigor; baina esperientziak guri erakuts diezagukeen bakarra da, ezen, sarritan eta, gehienez ere, jeneralean, gauzen egoera bati beste batek segitzen diola, eta hortik ezin atera daitekeela ez unibertsaltasun zorrotzik eta ez derrigortasunik.

Hori horrela izaki, badirudi, adimen-kontzeptuek askoz ere esanahi eta edukin gehiago daukatela, esperientzi usaera soilak haien determinazio osoa agortzeko beharko lukeena baino, eta hala adimenak ohartu gabe, esperientziaren etxe ondoan beste albo-erakin bat jasotzen du, askoz ere tokitsuagoa, eta berak pentsamendu-izakiz betetzen duena, konturatu ere egin gabe, berenez zuzenak diren kontzeptuak erabiliz ere, gainditu egiten dituela kontzeptu horien usaera-mugak.

XXXIV

Behar-beharrezkoak ziren, beraz, eta are erabat ezinbestekoak ere bai, guztiz elkorrak izan arren, Kritika-k (137. or. eta hurr eta 235. or. eta hurr.) egin dituen bi azterketa; lehendabizikoak erakutsi zuen, sentimenek eskaintzen dutena dela, ez adimen-kontzeptu hutsak in concreto, baizik horiek erabiltzeko eskema bat bakarrik, eta horri dagokion objektua esperientzian bakarrik aurkitzen dela (hori sentsibilitatearen materialetatik adimenak ateratako produktu denez). Bigarren azterketan (Krit., 235. or.) erakusten da: ezen, gure adimen-izaki hutsak eta printzipioak esperientziatik independente dauden arren, eta are horiek daukaten usaera itxuraz handiagoa den arren, hala ere, horien bidez, esperientziaren eremutik kanpora, ez dagoela ezertxo ere pentsatzerik, ba horiek ezin dute besterik egin, emandako intuizio jakin batzuei buruz judizioaren forma logiko soila determinatu baino. Baina nola sentsibilitatearen eremutik kanpora ez dagoen inolako intuiziorik, kontzeptu huts horiek inolako esanahirik gabe gelditzen dira, horiek in concreto azaltzeko modurik ez dagoelako. Hortik segitzen da, ezen horrelako noumena guztiak, eta horiek osatzen duten multzoa, mundu "intelligibile" batena¹², problema baten errepresentazio besterik ez direla, zeinaren objektua, berez posible izanik ere, gure adimenaren izaeraren arabera, erabat soluziogabea baita; ba, gure ahalmena ez da

intuizio-ahalmen eta bai soilik esperientzia batean ematen diren intuizioen konexio-ahalmen; horregatik, esperientzia honek gure kontzeptuentzat behar diren objektu guztiak behar ditu eduki, baina hortik kanpora, kontzeptu guztiak esanahirik gabe geldituko dira, beren azpian inolako intuiziorik izango ez dutelako.

XXXV

Agian barkatu ere egin dakioke irudimenari noiz edo noiz fantasiatzen ibiltzen bada, h. d. zuhurki esperientziaren muga barruan mantentzen ez bada, ze horrelako bultzada libre batekin suspertu eta indartu egingo da, eta beti ere errazago izango da horren ausardia baretzea horri moteltasuna kentzen laguntzea baino. Baina pentsatzeko egina dagoen adimena, horren ordeztu fantasiatzen ibiltzea, hori ez dago inola ere barkatzerik; horixe baita laguntza-bide bakarra, irudimenaren fantasiei, behar denean, mugak jartzeko.

Hasi ere, guztiz inoxente eta apal-apal hasten baita fantasiatzen. Estraina garbian jartzen ditu ezagutza elementalak, edozein esperientzia baino lehen dauzkanak, baina hala ere esperientzian aplikatu beharrekoak direnak. Pixkanan-pixkanan bazterrera uzten ditu muga hauek, eta zerk galaraziko dio ba hori egitea, adimenak libertate osoarekin bere printzipioak bere baitatik hartu baldin baditu? Orduan, lehendabizi, naturan berriki asmatutako indarrei ekiten die, geroxeago naturaz kanpoko izakiei; hitz batean esateko, zerako mundu bati ekiten dio, zeina eraikitzeke ez baita eraiki-tresnarik faltako, hau asmamen jori batek oparo sortua duenez gero, eta, hori esperientziaz konfirmatzerik ez badago ere, horren kontrakorik ere ez inoiz frogatuko. Hauxe da arrazoia zergatik maite izaten duten pentsalari gazteek Metafisika benetako modu dogmatikoan, eta zergatik eskaintzen dioten horri beren denbora eta beren talentua, beste zerbaitetan hain aprobetxagarria litzatekeena.

Baina ez du ezertarako balio adimen hutsaren ahalegin alferrak moderatu nahi izatea, era guztietako oharra eginez: alegia oso zaila dela horrelako arazo sakon-ezkutuak soluzionatzea, edo tamalez gure arrazoiak ere bere mugak dauzkala, edota afirmazioak konjeturen mailara jaitsiz. Ba horien ezinezkotasuna argi eta garbi demostratzen ez den bitartean, eta arrazoiak bere buruaz daukan ezagutza benetako zientzia bilakatzen ez den bitartean, non arrazoi horren erabil-eremu zuzena eta erabil-eremu alferra eta antzua, nolabait esan, ziurtasun geometrikoarekin bereizten ez den, inoiz ere ez dira erabat baztertuko ahalegin alfer haiek.

XXXVI

Nola da posible natura bera?

Arazo hauxe da, nolanahi ere, filosofia transzendentalek inoiz uki dezakeen punturik gorena, eta horrax e-raman behar da filosofia, bere muga eta betetasunera bezala; baina, egia esan, honek bi arazo dauzka bere baitan.

Lehenengoa: Nola da oro har posible natura bere esanahi materialean, hau da, intuizioaren arabera, fenomeno multzo bezala?; nola dira oro har posible espazioa, denbora eta hauek biok betetzen dituen, hots, sentsazioen objektua? Hona erantzuna: hori dena posible egiten duena, gure sentsibilitatearen izaera da; izaera honen arabera, sentsibilitatea, honek bereki-berekia duen modu batean, objektu batzuek afektaturik aurkitzen da, objektuok izaki beren baitan hark ezagutzen ez dituenak, eta erabat fenomeno haiek ez-bezalakoak. Erantzun hau liburuan bertan, Estetika transzendentalean, eman da, hemen aldiz, Prolegomenoetan, arazo nagusiari soluzioa emanez erantzun da.

Bigarrena: Nola da posible natura esanahi formalean, erregela-multzo bezala, hauen mendean egon beharrekoak baitira fenomeno guztiak, esperientzia batean loturik bezala pentsatuko badira? Erantzuna ezin daiteke hauxe baino izan: natura hori posible egiten duena gure adimenaren izaera bakarrik da, eta izaera horren arabera sentsibilitatearen

errepresentazio guztiak kontzientzia bati erreferitzen zaizkio derrigor, eta lehenengo eta behin horrexen bidez, hots erregelen bidez, egiten da ahalgarri gure pentsatzeko modu berezia, eta erregela horiei eskerrak da posible esperientzia, erabat bereiztekoa baita hau berbaitango objektuen hautemapenetik. Erantzun hau liburuan bertan emana dago, logika transzendentalaz hitz egitekoan; baina, hemen, Prolegomenoetan, bigarren arazo nagusiaren soluzioan zehar ematen da.

Baina gure sentsibiltatearen beraren berekitasun bitxi hau, edo gure adimenaren berekitasuna eta adimenaren eta edozein pentsamenduren oinarrian dagoen derrigorrezko apertzepzioaren berekitasuna, nola den posible? Hori ez dago areago soluzionatzerik eta erantzuterik; ba gu beti eta beti berekitasun horretxan beharrean aurkitzen gara edozein erantzun emateko eta edozein objektu pentsatzeko.

Asko dira naturaren legeak, guk esperientziaren bitartez bakarrik ezagut ditzakegunak, baina fenomenoek konexioan ematen den lege-mundua, h. d. natura oro har, hori ezin dugu guk inolako esperientziaren bidez ezagutu, ba esperientziak berak behar ditu, bere apriorizko posibilitatea oinarrituko duten legeak.

Esperientzia orokorraren posibilitatea da, beraz, aldi berean naturaren lege unibertsala, eta aurrenekoaren printzipioak berak dira bigarrenaren lege. Izan ere, guk fenomenoek multzo bezala, h. d. gudan ematen diren errepresentazioen multzo bezala, ezagutzen dugu natura, eta ez bestela; horregatik guk ezin dugu horien konexio-legea atera, horiek gudan daukaten printzipioetatik besterik, h. d. batura derrigorrezkoak kontzientzia batean dituen kondizioetatik alegia, batura horixe izaki esperientzia ahalgarri egiten duena.

Zati oso honetan zehar desaroilatu den proposizio nagusi honek, baitio lege natural unibertsalak a priori ezagutzeko modukoak direla, berez eramaten gaitu beste proposizio hauetara, alegia: naturaren legeria gorenak geugan, h. d. gure adimenean, egon behar duela, eta guk naturaren lege unibertsalak ez ditugula atera behar naturatik esperientziaren bidez, baizik eta alderantziz, naturak, bere legeria unibertsalaren arabera, gure sentsibiltatean eta adimenean aurkitzen diren esperientzi posibilitatearen baldintzetatik soilik atera behar dituela legeok; ba nola litzateke bestela posible lege hauek a priori ezagutzea, izan ere hauek ez baitira ezagutza analitikoaren erregela, eta bai erregela horien egiazko hedapen sintetiko? Honelako bat-etortzea, eta derrigorrezkoa gainera, esperientzia posiblearen printzipioek naturako legeen posibilitateekin daukatena, bi eratako kausengatik bakarrik gerta liteke: dela lege hauek esperientziaren bidez naturatik atera direlako, dela, alderantziz, natura esperientzia orokorraren posibilitatearen legeetatik jariatu delako, eta esperientziaren legeria unibertsal soilarekin berdin-berdina delako. Aurreneko hipotesia kontraesanean dago bere buruarekin, ba natur lege unibertsalak a priori (h. d. edozein esperientziatik independente) ezagutzeko modukoak behar dute izan eta ezagutu ere hala egin behar dira, eta adimenaren edozein usaera enpirikoren oinarrian egon behar dute; hortaz, bigarren hipotesia bakarrik geratzen da¹³.

Baina guk bereiz egin behar ditugu naturaren lege enpirikoak, beti hautemapen partikularrak aurre-suposatzen dituztenak, eta natur lege huts edo unibertsalak, hautemapen partikularretan oinarritu gabe, esperientzia batean derrigor batzeko behar dituzten baldintzak soilik jasotzen dituztenak; azkeneko hauei dagokienez, berriz, erabat gauza bat eta bera dira natura eta esperientzia posiblea; eta nola esperientzian legezkotasuna oinarritzen baita fenomenoek esperientzia batean daukaten derrigorrezko konexioan (esperientzia hori gabe, sentimen-munduko objekturik ezin dugu batere ezagutu) eta beraz adimenaren jatorrizko legeetan, lehen batean gauza arraroa badirudi ere, egia biribila da, azkenekoari buruz nik esatea: Adimenak ez ditu bere (apriorizko) legeak naturatik ateratzen, baizik eta berak ezartzen dizkio naturari.

XXXVII

Itxuraz ausarta ere baden proposizio hau konparazio batekin argituko dugu, eta honek erakutsiko du: ezen guk sentimenezko intuizioaren objektuetan deskubritzen ditugun legeak, batik bat derrigorreko aitortu izan badira, adimenak han jarritakotzat ematen ditugula guk geuk ere, nahiz eta, gainerantzean, beren parte guztietan guk esperientziari egozten dizkiogun natur legeak bezalakoxeak izan.

XXXVIII

Zirkuluaren berekitasunak kontsideratzen badira, zeintzuk bide ematen baitiote figura honi espazioaren hainbat determinazio arbitrario bere baitan erregela unibertsal batean biltzeko, nahitanahiez izaera bat egotzi beharra dago gauza geometriko horri. Adibidez, Bi lerrok elkar eta aldi berean zirkulua ebakitzen dutenean, ausaz trazatuak izanik ere, lerro horiek beti zatitzen dira erregulariki, eta zatitu ere halako eran, ze lerro bakoitzaren zatiekin eratutako errektangelua beste lerro-zatiekin eratutakoaren berdina izaten baita beti. Hona nire galdera orain: "Non dago lege hori, zirkuluan ala nire adimenean?"; h. d. figura horrek, adimenetik aparte, beragan dauka lege horren oinarria, ala adimenak, bere kontzeptuen arabera (hau da diametroaren berdintasunaren arabera) figura eraiki ondoren, berak ipintzen du aldi berean bertan, proportzio geometrikoan elkar ebakitzen duten soken legea? Lege honen froga aztertzen bada, laster konturatuko da bat, ezen adimenak, figura hori eraikitzean, oinarritzat jarri duen baldintzatik bertatik ere, h. d. diametroen berdintasunetik ere, atera daitekeela lege hori. Zabal dezagun orain figura geometrikoen berekitasun desberdinen batasuna, lege komunak azpian, oraindik aurrerago jarraitu ahal izateko, eta kontsidera dezagun zirkulua sekzio koniko bat bezala, zeina beraz beste sekzio konikoen oinarritzako eraiki-baldintza berdinetan aurkitzen den, eta orduan aurkituko dugu, ezen azkeneko hauen -alegia elipsi, parabola eta hiperbolearen- barruan elkar ebakitzen duten soka guztiek halako eran egiten dutela beti, ze horien segmentuekin egindako errektangeluak ere, elkarren berdinak ez diren arren, elkarren artean proportzio berdinekoak baitira. Goazen aurrerago oraindik, astronomia fisikoaren printzipioetaraino, eta han lege fisiko bat aurkituko dugu, natura material guztiaren gain zabalduz dagoena, gorputzen elkarren arteko erakarmen-legea, horren erregela izaki, ezen erakarmen hori urruntasunaren karratuaren kontrako proportzioan gutxitzen dela erakar-puntu bakoitzetik, eta era berean handitu egiten direla esfera-hedadurak, zeintzuetara zabaltzen baita indar hori; hau, berriz, badirudi derrigorrezko bezala aurkitzen dela gauzen izaeran, eta horregatik a priori ezagutzeko modukotzat aurkeztu ohi da. Beraz, lege honen iturriak guztiz sinpleak diren arren, ba diametro diferenteko esferen azalaren erlazioan soilik oinarritzen dira, hala ere, guztiz miresgarria da horren ondorioa esfera horien konkordantzia eta erregularitasunari dagokionez; izan ere, hortik jariatzen da, ezen ez bakarrik zeruko gorputzen ibilbide ahalgarri guztiak daudela sekzio konikoetan jarriak, baizik eta horiek beren artean daukaten erlazioa ere halakoxea dela, ze ezin baita beste inolako erakarpen-lege egokiagorik bururatu mundu-sistemarentzat, urruntasunen alderantzizko karratu-erlazioarena baino.

Hona, ba, hemen natura, adimenak a priori, eta are batik bat espazioa determinatzeko printzipio unibertsaleetatik hara, ezagutzen dituen legeetan oinarritzen dena. Hona orain nire galdera: natur lege horiek espazioan aurkitzen dira, eta handik ikasten ditu adimenak, lege horietan aurkitzen den esanahi aberatsa aztertzen saiatzen den bitartean?, ala adimenean aurkitzen dira, bai adimenean eta honek, batasun sintetikoaren arabera, espazioa determinatzeko erabiltzen duen moduan, batasun horretara jotzen baitute adimenaren kontzeptu guztiek? Espazioa hain da gauza uniformea eta, berekitasun partikular guztiei buruz, hain da gauza zehaztugabea, ze segurutik hor ez baitu inork natur legezeko altxorrik bilatuko. Aitzitik, ordea, espazioa zirkulu-moduan,

kono- eta esfera-itxurak determinatzen duena adimena da, berak baitauka horrek haiek eraikitzekeo batasunaren printzipioa. Espazio deitzen den intuizioaren forma soil unibertuala da, beraz, objektu partikularrei buruz determina daitezkeen intuizio guztien substratua, eta honetantxe aurkitzen da intuizioen posibilitatearen eta barietatearen baldintza; objektuen batasuna, ordea, adimenaren bidez bakarrik determinatzen da, eta determinatu ere honek bere izaeran dauzkan baldintzen arabera, eta, hala, adimena da naturako ordena unibertsalaren jatorria, ba bere legeetan biltzen ditu hark fenomeno guztiak, eta horrela, ezer baino lehen a priori egikaritzen du esperientzia (bere formaren arabera), eta horren medioz, esperientziaren bidez bakarrik ezagutu beharrekoa dena, derrigor adimenaren legepean gelditzen da. Izan ere, guk ez daukagu zerikusirik berbaitango gauzen izaerarekin, independentea izaki hau bai gure sentsibilitatearen eta bai adimenaren baldintzetatik, oster, ordea, guk naturarekin daukagu zerikusi, hau esperientzia posible baten objektu denez, eta adimenak, esperientzia posible egitean, aldi berean egiten du, edota sentimen-mundua ez dadila izan esperientziaren objektu, edo izan dadila natura bat.

XXXIX

Natur zientzia hutsarentzarako eraskina.

Kategorien sistema

Ez dago gauza desiragarriagorik filosofoarentzat, kontzeptu edo printzipio desberdinak, berak konkretuan erabili izan dituen moduagatik, aurrena sakabanaturik aurkeztu zaizkionak, apriorizko printzipio batetik deribatu eta horrela denak ezagutza batean bildu ahal izatea baino. Lehen uste zuen soilik, ezen berari nolabaiteko abstrakzio baten ondoren gelditzen zitzaiona eta, ezagutzak beren artean konparatuz, ezagutza-modu berezi bat iruditzen zitzaiona, erabat bilduta zegoela; baina agregatu bat besterik ez zen; orain badaki, justu honenbeste behar duela, ez gehiago eta ez gutxiago, ezagutza-modu hau osatzeko, eta ikusi egiten du horren zatitu beharra, horixe baita bururatzea, eta hala, aurreneko aldiz, sistema bat dauka.

Ezagutza komunitik zerako kontzeptuak ateratzea, alegia oinarritzat inolako esperientzia berezirik ez daukatenak, eta hala ere esperientziazko ezagutza guztietan aurkitzen direnak, zeintzuk nolabait ere ezagutza horren konexioaren forma soil osatzen baitute, horrek ez du suposatzen gogoeta edo burutxorroxtasun handiagorik hizkuntza batetik hitz orokorrak benetan erabiltzen diren bezala erabiltzeko erregelak ateratzeak baino, horrela gramatika bat osatzeko elementuak bilduz (egia esan, bi azterketa-moduok oso ahaide hurbilak dira elkarren artean), nahiz eta arrazoi zehatzik ematerik ez dagoen, zergatik hizkuntza bakoitzak izaera formal jakin bat daukan eta ez beste bat, eta gutxiago oraindik, zergatik aurki daitezkeen hizkuntza horretan oro har hainbeste determinazio formal, ez gehiago eta ez gutxiago.

Aristotelesekin horrelako hamar kontzeptu elemental huts bildu zituen kategorien izenpean¹⁴. Hauei predikamentu ere esaten baitzaie, beste bost postpredikamentu gehitu beharrean aurkitu zen¹⁵, zatizki jada horietan aurkitzen zirenak, baina rapsodia honek balio zezakeena eta merezi zezakeen onarpena, areago zen etorkizuneko ikertzaileentzako seinale bezala, metodoz desarroilatutako ideia bezala baino; horregatik, filosofiaren hainbat esplikazioren ondoren, gauza alfertzat jo eta baztertua izan zen.

Giza ezagutzaren elementu hutsak (ezer enpirikorik ez daukatenak) aztertzean, luzaro pentsatu ondoren lortu nuen lehenengo aldiz, sentsibilitatearen kontzeptu elementalak (espazioa eta denbora) adimenaren kontzeptuetatik ziurtasunez berezi eta banantzea. Horrela eskcluditurik geratu ziren zerrenda hartatik 7, 8 eta 9. kategoriak. Besteek ez zidaten ezertarako balio, ba ez zegoen printzipiorik, adimena betaro neurtzeko erabil

zitekeenik eta adimenaren funtzio huts guztiak, nondik adimenaren kontzeptu guztiak jariatzeko baitira, erabat eta zehaztasunez determinatzeko gauza zenik.

Horrelako printzipio bat aurkitzeko, berriz, adimen-operazio bat bilatzen hasi nintzen, operazio bat beste guztiak bere baitan izango zituen eta modifikazio edo momentu batzuegatik soilik bereizten zena, errepresentazioaren askotarikotasuna pentsamendu orokorraren batasunera ekarri ahal izateko; eta orduan aurkitu nuen, ezen adimen-operazio hori juzgatzea dela. Horra, ba, nire aurrean jada eginda, logikalarien lan bat, artean bere akatsak ere berekin zituen, baina aukera eman zidana, adimen-funtzio hutsen, baina edozein objekturi buruz determinatu gabe daudenen, taula oso bat aurkezteko. Eta hala, azkenik, juzgatzeko funtzio horiek aplikatu nizkien objektu orokorrei, edo hobeto esan, balio objektiboko judizioak determinatzen dituen baldintzari, eta adimen-kontzeptu hutsak atera ziren bertatik, niri inolako zalantzarik edukitzen uzten ez zidatenak, ezen horiek bakarrik zirela, eta horietatik ere horrenbeste, ez gehiago eta ez gutxiago, gure gauzen ezagutza osoa adimen soilez eragiteko gauza zirenak. Nik, bidezko denez, beren izen zaharrarekin deitu nituen: kategoriak; baina niretzat erreserbatu nuen hortik jaria zitezkeen kontzeptu guztiak gehitzeko eskubidea, zeintzuk jaria baitzitezkeen, horiek lotuz, dela bata bestearekin, dela fenomenoaren forma hutsarekin (espazioa eta denbora), edo horien materiarekin, hau oraindik enpirikoki determinatu gabe dagoen neurrian (sentsazio orokorraren objektua). Horiek denak predicabilia (predikagarriak) izenpean gehituko ziren, filosofia haren sistema bat eraikitzen zen bezain azkar, eta horren aurrean arrazoia kritikatzeko beste zereginik ez neukan nik oraingoz.

Baina kategorien sistema honetan esentziala dena, inolako printzipiorik gabe jokatu zuen rapsodia zahar hartatik bereizten duena, eta filosofian aintzakotzat hartua izatea merezi duena, zera da: alegia, horren bitartez zehatz-mehatz determina daitekeela adimen-kontzeptu hutsen egiazko esanahia eta horiek erabiltzeko baldintza. Ba orduan ikusten zen, kategoria horiek berenez funtzio logiko batzuk besterik ez direla, baina halako direnez ez dutela berbaitango objektu baten kontzepturik koskorrena ere osatzen, ostera baizik sentimenezko intuizioa behar izaten dutela oinarritzat, eta orduan bakarrik balio izaten dutela, judizio enpirikoak, bestela juzgatzeko funtzio guztietarako zehaztugabe eta indiferente direnak, beroriei buruz determinatzeko; horrela judizio horiek balio unibertsalez jatzeko modua izaten dute eta horien medioz esperientzi judizioak oro har ahalgarri egiteko.

Kategorien izaera halako eran bururatzea, ze horien usaera aldi berean esperientzia soilera murriztu behar baita, hori ez zitzaion bururatu ez kategorien aurreneko asmatzaileari eta ez haren ondorengo beste inori; baina buruera hori gabe (zeina zehazki horien deribazio edo dedukziotik esekita baitago) erabat gauza alferra dira kategoriok, izen-zerrenda sastar bat besterik ez, bere erabileraren azalpenik eta erregelarik ez dutenak. Honelakorik bururatu izan balitzaie antzinako jendeei, ezbairik gabe, arras beste modu batera helduko zen guregana arrazoi-ezagutza hutsaren estudio osoa, Metafisikaren izenpean ehundaka urte askotan zehar hainbeste eta hainbeste buru argi alferrikaldu dituen, eta argitu egingo zuen gizakiaren adimena, eta ez txorroxkeria antzu eta alferrekin agortu, egiaz gertatu den bezala, benetako zientzia izateko gauza ez dela utzi beharrean.

Orain kategorien sistema honek bere aldetik, sistematiko egiten du arrazoi hutsaren beraren edozein objekturi ematen zaion tratamendu oro, eta ezbairik gabeko jarraibide edo gida-lerro bat proposatzen du, adierazten duena, nola eta zein ikerpuntuaren bidez eraman behar den edozein gogoeta metafisiko, erabatekoa izango bada: zeren horrek adimenaren momentu guztiak agortzen ditu, zeintzuen azpian beste edozein kontzeptu ipini behar den. Horrela sortu da printzipioen taula ere, kategorien sistemarekin bakarrik

jakin baitaiteke ziur osatua dela; eta adimen-usaera fisiologikoa gaingitu behar duten kontzeptuak sailkatzekoan ere (Kritik, 344. or., era berean, 415. or.) gida-hari bera izaten da beti ere, zeinak beti giza adimenean a priori determinatutako puntu finko hauetatik barna eraman beharrekoa delako, aldi bakoitzean zirkulu itxi bat eratzen baitu, inolako zalantzarik uzten ez duena, ezen adimen- edo arrazoi-kontzeptu huts baten objektua, filosofiazki eta printzipioen arabera a priori aztertua izan behar duen neurrian, betaro ezagut daitekeela horrela. Ezin utzi izan dut gida hori erabili gabe zatiketa ontologiko abstraktuenetako bat egitekoan, alegia, zerbait eta ezerez kontzeptuen bereizkuntza askoitzarena, eta horren arabera taula erregular eta derrigorrezko bat atera dut (Kritik, 292. or.)¹⁶.

Sistema honek, printzipio unibertsal baten gainean eraikitako edozein sistema egiazkok bezala, behar adina ederretsiko ez den erabilera bat erakusten du, eta erakutsi ere zeratan, kanpora botatzen baititu kontzeptu arrotz guztiak, hori gabe adimen-kontzeptuen artean nahas litezkeenak eta bere tokia determinatzen dio ezagutza bakoitzari. Zerako kontzeptuak, nik gogoeta-kontzeptuen izenpean kategorien gida-hariaren arabera berebat taula batean jarri nituenak, adimen-kontzeptu hutsekin nahasten dira ontologian, pribilegiorik eta uzi legitimorik gabe, nahiz eta kontzeptuok konexioarenak izan, eta beraz objektuarenak berarenak, eta haiek aldiz jada emandako kontzeptuen konparazio soilarenak, eta ondorioz, erabat bestelako izaera eta usaera daukaten; nire zatiketa metodikoa dela medio, (Kritik, 260. or.), atera egingo dira nahaspila horretatik. Baina oraindik argiago ikusten da kategorien taula apartatuaren probetxua, baldin eta, oraintxe egingo dugun bezala, besteetatik taula batean apartatzen baditugu, arrazoi-kontzeptu transzendentalak, izaeraz eta jatorriz osoro adimen-kontzeptuak ez-bezalakoak direnak (horregatik forma ere oso bestelakoa beharko du izan taula honek); ba hain beharrezkoa den apartatze hori sekula ez da Metafisikaren sistema batean egin; eta horregatik harako arrazoi-ideiak adimen-kontzeptuekin nahasten dira, inolako bereizkuntzarik gabe, denak anai-arrebak antzo, familia batekoak balira bezala; nahasmendu hau, berriz, kategorien sistema berezirik ez edukitzean, ez zegoen inola ere itzurtzerik.

HIRUGARREN ATALA

Arazo nagusi transzendentala

XL

Nola da posible Metafisika oro har?

Matematika hutsak eta Natur Zientzia hutsak, beren segurtasuna eta ziurtasuna babesteko, ez zeukaten, guk orain arte hemen bientzat egin dugun bezalako dedukzioaren beharrik, zeren aurrenekoa bere ebidentzia propioan oinarritzen da; eta bigarrena, adimenaren iturri garbietatik sortua bada ere, esperientzian oinarritzen da eta etengabeko konfirmazioan; Matematikak ezin du azkeneko honen testigantzarik ezetsi eta bazterretsi, ba hura bere ziurtasun guztiarekin ere, filosofia denez, ezin da inola ere Matematikaren pareko izan. Bi zientzia hauek, beraz, aipatu azterketa hori ez zuten behar berentzat, baina bai beste zientzia batentzat, Metafisikarentzat kontuizu.

Metafisikaren autugai dira, bai natur kontzeptuak, esperientzian noiznahi aplikatu daitezkeenak, eta bai arrazoi-kontzeptu hutsak, inolako esperientzia posibletan sekula emango ez direnak; halaxe ba, Metafisikaren autugai dira, kontzeptuak eta afirmazioak, zeintzuei buruz ez baitago konprobatzerik ez erakusterik, inolako esperientziaren bidez, ez objektibotasunik (alegia ez direla ameskeria hutsak) eta ez afirmazioen egia edo faltsutasunik; eta gainera Metafisikaren zati hauxe da, hain zuzen, horren helburu esentziala, horretarako helpide baino ez baita gainerako guztia, eta zientzia honek antzeko dedukzio bat behar du bere buruarentzat. Orain formulatu zaigun hirugarren galdera honek aldi berean begiztatzen ditu Metafisikaren muina eta berekitasuna, hau da, arrazoiak bere buruarekin bakarrik arduratzea, eta, nola horrek bere kontzeptuak hausnartzen dituen, hausnartze horretatik inmediateki ustez ateratzen den objektuekiko ezagutza, horretarako esperientziaren bitartekotzarik behar izan gabe eta batez ere horren bidez hartara iristeko modurik gabe¹⁷

Galdera horri erantzun gabe arrazoiak ez du inoiz bere buruarekin askitasunik izango. Arrazoiak adimen hutsa esperientziaren usaerara mugatzen du eta horrek ez du betetzen arrazoiaren beraren determinazio osoa. Esperientzia partikular bakoitza eremu horretako esfera osoaren zati bat besterik ez da: baina esperientzia posible guztien osotasun absolutua ez da bera esperientzia, eta hala ere derrigorrezko problema bat da arrazoiarentzat, eta hori errepresentatu soilik egiteko ere beste kontzeptu batzuk, adimen-kontzeptu hauetatik oso diferente direnak, behar ditu Metafisikak; ba adimen-kontzeptu huts horien usaera inmanentea da bakarrik, h. d., esperientzia bakarrik begiztatzen du, hau eman daitekeen neurrian, aldiz arrazoi-kontzeptuek osotasunera jotzen dute, h. d., esperientzia posible guztiaren batasun kolektibora, eta horrela emandako edozein esperientziatik harago joaten dira eta transzendente bihurtzen.

Beraz, adimenak esperientziarako kategoriak behar izan zituen bezala, horrelaxe arrazoiak ere bere baitan edukitzen du ideientzako oinarria; honekin, berriz, derrigorrezko kontzeptuak ulertzen ditut, beren objektuak inolako esperientziatan aurkitu ezin ditzaketenak. Ideia hauek arrazoiaren izaeran aurkitzen dira, kategoriak adimenaren izaeran aurkitzen diren bezalaxe; eta ideiek itxura bat eramaten badute berekin, aise lilura dezakeena, hala ere ezinbestekoa da itxura hori, nahiz eta ederki eragotz daitekeen "itxura horrek liluratzea".

Itxura guztia izaki, judizioaren oinarri subjektiboa objektibotzat jotzea, orduan arrazoi hutsak, bere usaera transzendentean (demasean) bere buruaz daukan ezagutza izango da helpide bakarra bere burua errakuntzetatik babesteko, hauetan erortzen baita arrazoiak, bere egitekoa gaizki interpretatzen duenean, eta modu transzendentean berbaitango objektuari aplikatzen dionean, usaera inmanente orotan, subjektu propioari eta horren gidapenari bakarrik doakiena.

XLI

Ideiak bereiztea, h. d., arrazoi-kontzeptu hutsak kategorietatik edo adimen-kontzeptu hutsetatik bereiztea, ezagutza hauek izaeraz, jatorriz eta usaeraz erabat desberdinak direnez, hain da faktore garrantzitsua, apriorizko ezagutza hauen guztien sistema besarkatu behar duen zientzia bat oinarritzeko, zeren bereizkuntza hori egin gabe, erabat ezinezkoa baita Metafisika; edo, gehienez ere, araugabeko lardaska-lan bat besterik ez da, esku arteko materialak eta hauek honetarako edo hartarako zer balio duten jakin gabe, karta-gaztelu bat eraiki nahi duena. Arrazoi hutsaren kritikak lehenengo aldiz diferentzia hori bistartzeko bestetarako balio izan ez balu ere, horrekin bakarrik egin den aportazioa, gure kontzeptua argitzeko eta Metafisikaren alorrean jarraitu behar den ikerketa-bidea ezagutzeko, orain arte arrazoi hutsaren problema transzendentalak askitzeko egin diren ahalegin alfer guztiak baino handiagoa da; eta bururatu ere ez zaio inori sekula egin, adimenaren alorretik arras diferentea den beste alor batean aurkitzen garela hemen, eta horregatik biltzen zirela deitura beraren azpian adimen-kontzeptuak eta arrazoi-kontzeptuak, biak mota berekoak balira bezala.

XLII

Adimen-ezagutza huts guztiek zera bat izaten dute beren baitan, alegia haien kontzeptuak esperientzian ematen direla eta haien printzipioak esperientziaren bidez konfirmatzen direla; aitzitik, ordea, arrazoi-kontzeptu transzendenteak, beren ideiei dagokienez, ez esperientzian ematen dira eta ez beren proposizioak konfirmatzen edo errefutatzen dira inoiz esperientziaren bitartez; horregatik hemen ustegabeen azpitik lerra daitekeen oker bat arrazoi hutsak berak bakarrik arrapa dezake, baina oso zaila da hori, ba arrazoi hori bera, bere ideiak direla medio, dialektiko bihurtzen da oso modu naturalean, eta itzuriezineko itxura hori ez dago inola ere muga barruan edukitzerik gauzen inolako ikerketa objektibo eta dogmatikoren bidez, baina bai arrazoiaren beraren ikerketa subjektiboen bidez, hori ideien iturri denez.

XLIII

Kritika-n ahalik eta arreta handiena izan nuen beti, ikusteko, ez bakarrik nola berezkatu ote nitzakeen nik ezagutza-motak, baizik eta berebat ea nola atera ote nitzakeen nik beren iturri komunetik nota berekoak diren kontzeptuak, arren eta nik horien usaera ziurtasunez determinatzeko modua izan nezan, ez bakarrik horien jatorria ezagutzen nuelako, baizik eta oraindik inoiz uste izan gabekoa baina kalkulaezineko abantaila bat ere izango nuelako, alegia a priori ezagutuko nuelako, eta beraz printzipioen arabera, kontzeptuen enumerazioan, sailkapenean eta espezifikazioan ematen den guztitasuna. Hori gabe Metafisikan hitz-hotsa besterik ez da dena, eta ez dago inoiz jakiterik, lehendik dakigunarekin nahikoa den, ala oraindik ere ezer falta den, eta falta bada non falta den. Egia esan, filosofia hutsean bakarrik eduki daiteke abantaila hori, izan ere, horixe da filosofiaren esentzia-eta.

Nik kategorien jatorria adimenaren judizio guztien lau funtzio logikoetan aurkitu nuenez, guztiz naturala zen, ideien jatorria arrazonamenduaren hiru funtzioetan bilatzea; ba behin horrelako arrazoi-kontzeptu hutsak (ideia transzendentalak) emanda badaude, nola eta sortzetikakotzat jo nahi ez diren, arrazoiaren ihardunean beste ezertan ez legoke horiek aurkitzerik; honek, berriz, forma soilari dagokionez, berak osatzen du arrazonamenduaren logikokia; baina horrek adimen-judizioak apriorizko forma bati edo besteari buruz determinatutzat jotzen dituen neurrian, orduan arrazoi hutsaren kontzeptu transzendentalak osatzen ditu.

Arrazonamenduaren diferentzia formalak beharrezkoa egiten du hauek kategoriko, hipotetiko eta disjuntibotan banatzea. Horien gainean oinarritutako arrazoi-kontzeptuek lehenengo jasotzen dutena izaten da, subjektu perfektuaren (substantzialaren) ideia; bigarren, baldintzen serie osoa; hirugarren, posiblekiaren multzo osatu batean aurkitzen diren kontzeptu guztien determinazioa¹⁸. Aurreneko ideia psikologikoa zen, bigarrena kosmologikoa, hirugarrena teologikoa; eta nola hirurok dialektika baterako bide ematen duten, baina bakoitzak bere modu berezian, hortik arrazoi hutsaren dialektika osoaren

zatiketa bat egin zen: paralogismoa, antinomia eta azkenik arrazoi hutsaren beraren ideala; deribazio honi esker, ziurtasun osoa dago, ezen arrazoi hutsaren uziak osoro daudela hemen errepresentatuak, eta bakarrik ere ezin dela falta, ba horien guztien sorburua den arrazoi-ahalmena bera, erabat mugaturik gelditzen da horrela.

XLIV

Kontsiderazio honetan, oro har, ohargarria da oraindik, ezen arrazoi-ideiek, kategoriekin gertatzen ez den bezala, ez digutela ezer balio izaten adimena esperientziari buruz erabiltzeko; eta gainera adimenari berari buruz ere erabat alferrikakoak direla eta are natura arrazoi-ezagutzaren bidez ezagutzeko maximen kontrakoak, eta traba ere egiten dutela, baina hala ere behar-beharrezko direla oraindik determinatzeko dagoen beste asmo baterako. Arima substantzia bakuna den ala ez, munta gutxiko kontua da agian hori guretzat arimaren fenomenoak esplikatzeko; zeren guk ez daukagu izaki bakun baten kontzeptua inolako esperientzia posibleren bidez sentigarri, eta beraz in concreto ulergarri egiteko modurik; eta hala erabat hutsala da kontzeptu hori fenomenoaren kausa ezagutzeko dagoen itxaropen guztiarentzat, eta ez dago erabiltzerik, kanpoko edo barruko esperientziak ematen diguna esplikatzeko printzipio bezala. Horrek bezain gutxi balio diezagukete mundu-hasierako edo mundu-betikotasuneko (a parte ante) ideia kosmologikoek ere, munduan bertan izandako gertakariak esplikatzeko. Azkenik, filosofia naturaleko maxima zuzen baten arabera, baztertu beharra daukagu erabat, naturaren antolamendua Izaki Goren baten borondatek ateratako gauza bezala esplikatzea, hau ez baita filosofia naturala, baizik aitorpen bat, ezen puntu honetan guk ez daukagula aurrerago joaterik. Beraz, oso diferentea da, ideia hauek daukaten usaera-destinoa eta beste kategoria haiek daukatena, zeintzuen bidez eta beren gainean eraikitako printzipioen bidez esperientzia bera izan baitzen posible aurreneko aldiz. Nolabait ere, adimenari buruzko gure analitika neketsua alfer-alferrik izango litzateke, gure asmoak naturaren ezagutza soilak, esperientzian eman daitekeena bezalakoa besterik bilatuko ez balu; ba arrazoiak, bai Matematikan eta bai Natur Zientzian, guztiz seguru eta ederki batean egikaritzen du bere egitekoa, baita dedukzio soutil hori guztia gabe ere; honela, gure adimenaren kritika arrazoi hutsaren ideiekin batzen da, adimenaren usaera enpirikoa baino harago doan asmo baterako, zeinari buruz ordea gorago esan baitugu, puntu honetan ezinezkoa dela erabat eta ez daukala ez objekturik eta ez zentzurik. Hala ere, beharrezkoa da arrazoi-izaeraren eta adimen-izaeraren artean adostasun bat egotea, eta arrazoi-izaerak lagundu egin behar du adimen-izaera osatzen, eta ez du inola ere hau buru-nahastu behar.

Honela da problema horren soluzioa: arrazoi hutsak ez dauzka asmozat bere ideien artean esperientzi eremutik kanpora doazen objektu partikularrak, baizik eta eskatzen duena da, osoro erabil dadila adimena esperientziari buruz. Osotasun hau, nolanahi ere, printzipioen osotasuna izan daiteke bakarrik, baina ez intuizioena eta objektuena. Hala ere, osotasun horrek printzipioak zehatz errepresentatu ahal izateko, objektu baten ezagutza bezala bururatzen ditu, objektu horren ezagutza erabat determinatua egoki erregela haiei buruz; baina objektu hori ideia bat besterik ez da, adimen-ezagutza, ideia horrek adierazten duen osotasunera, ahalik eta gehiena hurbiltzeko.

XLV

Aurretiazko oharra arrazoi hutsaren dialektikarentzat

Gorago azaldu dugu, paragrafo 33, 34etan, nola kategoriak edozein sentimenezko determinazioaren nahasturetatik garbitzeak bide eman diezaiokeen arrazoiari kategorien usaera edozein esperientziatatik kanpora berbaitango gauzetara zabaltzeko; kategoriok, funtzio logiko soilak izaki, ez baitute aurkitzen in concreto esanahirik eta zentzurik emango liekeen intuiziorik, gai izaten dira gauza orokor bat errepresentatzeko, baina berenez bakarrik ezin izaten dute ezeren kontzeptu zehatzik eman. Holako objektu

hiperbolikoak noumeno edo adimen-izaki (hobeto, pentsamendu-izaki) deitzen dira, hala adibidez: substantzia, baina denboran iraun gabe pentsatzen dena, edo kausa bat, denboran aktuatzen ez duena, etab.; ba horiei predikatu batzuk egozten zaizkie, esperientziaren legezkotasuna ahalgarri egiteko bakarrik balio dutenak, eta aldi berean intuizioaren kondizio guztiak kentzen zaizkie, esperientzia posible egiteko ezinbesteko direnak, eta orduan kontzeptu horiek berriro galtzen dute beren esanahi guztia.

Baina ez dago inolako arriskurik, adimena berez, lege arrotzek hartara behartu gabe, bere mugetatik kanpora erabat buru-harro pentsamendu-izaki hutsen eremuan dibagatzen ibil dadin. Baina arrazoiak, adimen-erregelak esperientziaz erabiliz ezin baita inola ere askiatsi, erabilera hori beti baldintzatua dagoelako, kondizio-kate hori osatzeko eskatzen duenean, orduan adimena bere alorretik kanpora bidaltzen da, alde batetik, esperientziaren objektuak halako sail handi batean errepresentatzeko, zeren ez baitago hori besarka dezakeen esperientziaz eta, bestetik, arren eta (sail hori osotuz) erabat esperientziaz kanpora dauden noumeno-ak bilatzeko, zeintzuei arrazoiak lotu baitiezaieke katea hori, eta hala esperientziaren kondizioetatik behingoz independente eginik, bere jokabidea erabat burutzeko modua izan dezan. Hona ba ideia transzendentalak; hauek, oinarrituak egonik ere, gure arrazoiaren izaera naturalaren helburu benetako baina ezkutuaren arabera, ez kontzeptu exageratuetan, baina bai soilik esperientzia usaeraren neurrigabeko hedatzean, hala ere, itzuriezineko itxura batekin usaera transzendente batera erakartzen dute arrazoiak; usaera hori, berriz, iruzurtia den arren, ez dago behartua inolako aurre xedez esperientziaren mugabarruan egotera, eta mugabarruan mantenduko bada, irakaspen zientifikoaren eta esfortzuaren bidez bakarrik izango da.

XLVI

I. Ideia psikologikoak

(Kritik, 341. or. eta hurr.)

Aspaldi hautemandako gauza da, guretzat ezezaguna gelditzen dela beti edozein substantzian ere subjektua bera, hau da, akzidente guztiak (predikatuak) apartatu ondoren, azken-azkenean gelditzen den zera, alegia, substantzikia, eta askotan kexatu izan gara gure jakitearen mugapen horiengatik. Nolanahi ere ohartu beharra dago hemen, ez dagoela giza adimena zertan kulpaturik, gauzen substantzikia ezagutzen ez duelako, hau da, hori beretzat bakarrik determina dezakeelako, ostera baizik substantzikia, ideia soil bat baino ez izaki, emandako objektu baten antzera determinaturik ezagutu nahi duelako. Arrazoi hutsak eskatzen du, gauza baten predikatutzat bila dezagula gauza horri dagokion subjektua, eta honi ostera, zeina berriz ere derrigor predikatu hutsa baino ez baita, bila diezaiogula bere subjektua, eta hala hurrenez hurren infinituraino (edo behintzat, ailegatzen garen hartaraino). Baina hemendik segitzen da, ezen guk alkantza genezakeen gauzarik ezin dugula azken subjektutzat jo, eta substantzikia bera ere ezin duela gure adimenak inola ere bururatu, ezta adimen hori denik eta zorrotzena izanda ere, ezta natura osoa zabal-zabalik agertuko balitzaio ere; ba gure adimenaren izaera espezifikoa da, dena diskurtso bidez pentsatzea, h. d., kontzeptu bidez, eta beraz predikatu bidez bakarrik, eta horregatik beti faltako da subjektu absolutua. Horregatik gorputzak ezagutzeko guk erabiltzen ditugun berekitasun errealek akzidente hutsak baizik ez dira, baita inpenetrabilitatea bera ere, zeina bururatu behar baita soilik subjektu gabeko indar baten eragin bezala.

Orain berriz, badirudi geure buruaren kontzientzian (subjektu pentsatzaileagan) daukagula substantziki hori, eta eduki ere intuizio inmediatu batean; ba barne-sentimenaren predikatu guztiek Nia begiztatzen dute subjektu bezala, eta hau ez dago beste inolako subjektuaren predikatutzat jotzerik. Beraz, predikatu bezala emandako kontzeptuen subjektuarekiko erlazioan aurkitzen den perfekzioa badirudi ez dela hemen ideia soil, eta bai objektua, hots subjektu absolutua bera, esperientzian emana. Baina itxaropen hau ustel ateratzen da. Zeren Nia ez da inola ere kontzeptu bat¹⁹ eta bai barne-sentimenaren objektuari ematen zaion izen bat, guk hori beste predikatu baten bidez gehiago ezagutu ezin dugulako; eta hala, hori ezin daiteke berez beste gauza baten predikatu izan, baina era berean subjektu absolutu baten kontzeptu determinatua ere ez, eta bai soilik, beste kasu guztietan bezalaxe, barne-fenomenoek beren subjektu ezezagunarekin daukaten erlazioa. Era berean ideia honek (printzipio erregulatzaile bezala ederki balio baitu gure arimako barne-fenomenoen esplikazio materialista guztiak osotoro ezerezteko), biziro naturala den oker ulertze baten bidez, oso argumentu iruzurti bat sortarazten du, gure izaki pentsatzailearen substantzikiari buruzko ezagutza suposatutik honetatik haren izaera ondorioztzeko, nahiz eta haren ezagutza esperientziaren eremutik kanpora egon.

XLVII

Subjektu pentsatzaile hau (arima), pentsamenduaren azken subjektua izaki, eta beste gauza baten predikatu bezala gehiago errepresenta ezin daitekeena, substantzia dei daiteke: baina kontzeptu hau erabat hutsik, eta inolako ondorerik gabe gelditzen da, baldin eta frogatzen ez bada, horren iraunkortasuna dela substantzien kontzeptua emankor egiten duena.

Baina iraunkortasuna ezin daiteke frogatu inola ere berbaitango gauza den substantzia baten kontzeptutik, esperientziaren medioz bakarrik baizik. Nahiko argi erakutsi da hau esperientziaren lehendabiziko analogian (Kritik, 182. or.); eta ebidentzia horren aurrean amor eman nahi ez baldin badu, orduan norberak probatzea besterik ez dauka, ea, subjektu baten kontzeptutik, zeina ez baita bera ere beste gauza baten predikatu bezala

existitzen, frogatzea lortzen duen, ezen haren existentzia osoro iraunkorra dela, eta hori ezin daitekeela sor edo desegin ez berez eta ez beste edozein kausa natural baten bidez. Honela, apriorizko proposizio sintetikoak ezin daitezke inola ere frogatu berez; frogatzekotan beti izango da, esperientzia posible baten objektu bezala, gauzekin harremanetan daudenean.

XLVIII

Beraz, arima substantzia bezala bururatzetik horren iraunkortasuna ondoriotu nahi badugu, orduan honek esperientzia posible bezala bakarrik balio izan dezake arimarentzat, baina ez arima berbaitango gauza denez, eta esperientzia ahalgarri guztietatik kanpora hartuz. Hala, gure esperientzia posible guztien kondizio subjektibo bakarra bizitza da: beraz, ondorio daitekeen bakarra bizi bitarteko arimaren iraupena da, ba giza heriotzak azkena jartzen dio esperientzia orori, eta honek arima ere harrapatzen du esperientziaren objektu denez, nola eta kontrakoa frogatzen ez den: horixe baita izan ere arazoa. Beraz, arimaren iraupena gizakiaren bizitzan bakarrik frogatzen daiteke (honen frogatzea egindakotzat onartuko zaigu), baina ez hilda gero (hauxe baita guri interesatzen zaiguna), eta hau arrazoi orokor bategatik, alegia, substantziaren kontzeptua, iraupen kontzeptuarekin derrigor lotuta ikusi behar den neurrian, esperientzia posiblearen printzipio baten arabera bakarrik izan daitekeelako, eta beraz horixe begira bakarrik²⁰.

XLIX

Gure kanpo-hautemapenei, gugandik kanpora ere zerbait errealek erantzuten diela, eta are erantzun behar diela, hori ere ezin da inola ere frogatu berbaitango gauzen konexio bezala, baina ederki frogatzen daiteke esperientzia dela bide. Hara zer esan nahi duen horrek: alegia ederki demostrar daitekeen gauza dela, ezen badela zerbait enpirikoa, eta, beraz, espazioango fenomeno bezala gugandik kanpora dagoena; ba esperientzia posible batekoak ez diren objektuekin guk ez daukagu inolako zerikusirik, eta eduki ere ez daukagu hain zuzen, horiek inolako esperientziatan aurkitu ezin ditugulako, eta guretzat ezer ez direlako. Enpirikoa da niguandik kanpora espazioan begiesten dena, eta nola hau, bertan aurkitzen diren fenomeno guztiekin, errepresentazioei apartenitzen zaiena den, zeintzuen konexioak, esperientziako legeen arabera, demostratzen baitu hala bere egia objektiboa nola barne-sentimenen konexioak demostratzen duen nire arimaren errealitatea (barne-sentimenaren objektu bezala), orduan konturatzen naiz, kanpo-esperientziaren bitartez, bai gorputzen errealitateaz, gorputzok espazioan kanpo-fenomeno direnez, eta bai barne-esperientziaren bitartez, nire arimak denboran duen existentziak; arima hau ere, berriz, barne-sentimenaren objektu bezala bakarrik arrezagut dezaket nik, barne-egoera bat osatzen duten fenomeno bidez, baina fenomeno horien oinarrian dagoen berbaitango izakia, hori ez dut ezagutzen nik. Beraz, idealismo kartesianoak kanpo-esperientzia soilik bereizten du ametsetatik, eta legezkotasuna, esperientzia horren egiaren irizpide bezala, ametsaren lege-faltatik eta itxura faltatik. Idealismoak espazioa eta denbora aurre-suposatzen ditu bietan objektuen existentzi baldintzatuz, eta galdetzen du, ea kanpo-sentimenen objektuak, guk esna gaudenean espazioan paratzen ditugunak, benetan espazioan aurkitzekoak diren, barne-sentimenaren objektua, arima, benetan denboran aurkitzen den moduan, hau da, ea esperientziak irizpide segururik baduen berekin, bere burua irudipenetik bereizteko. Puntu honetan aise ken daitezke zalantzak eta kendu ere eguneroko bizitzan egiten ditugu, aztertuz, bi kasuetako fenomenoek esperientziaren lege orokorrekin duten lotura, eta kanpoko gauzen errepresentazioa osoro bat baldin badator horrekin, ezin dugu dudatu horiek benetako esperientzia ez direnik. Beraz, ba, fenomenoak, esperientziarekin daukaten loturaren arabera bakarrik kontsideratzen badira fenomeno bezala, aise errefuta daiteke idealismo materiala, hain esperientzia segurua da gorputzak gugandik kanpo (espazioan) existitzea, nola den ni neu existitzea (denboran) barne-

sentimenaren errepresentazioaren arabera; izan ere, "gugandik kanpo" kontzeptuak, espazioan existitzea besterik ez du esan nahi. Baina nola "ni banaiz" proposizioko "Nia"k adierazten duena ez baita bakarrik barne-intuizioaren objektua (denboran), baizik eta kontzientziaren subjektua ere bai, era berean gorputzak adierazten duena ere ez da bakarrik kanpo-intuizioa (espazioan), eta bai fenomeno horren oinarrian dagoen berbaitango gauza ere; eta hala, zerako galdera, ea gorputzak (kanpo-sentimenaren fenomeno direnez) gorputz bezala nire pentsamendutik kanpo naturan existitzen ote direneko galderari, ezetz erantzun dakioke inolako zalantzarik gabe; baina horrekin bezalaxe gertatzen da, beste galdera honekin ere, alegia, ea ni neu ere barne-sentimenaren fenomeno naizenez (Psikologia enpirikoaren arabera, arima kontuizu), errepresentamenetik kanpora denboran existitzen ote naizen, ba galdera honi ere berebat erantzun behar zaio ezetz. Era honetan, dena da zehatza eta ziurra, bere egiazko esanahira mugatzen bada. Idealismo formalak (nik bestalde transzendental deitzen dudanak) deuseztu egiten du benetan idealismo material edo kartesianoa. Zeren espazioa nire sentibilitatearen forma besterik ez bada, nire baitako errepresentazio denez, hala ere ni neu bezain erreala da, eta inporta dena, fenomenoak espazioan egia enpirikoa izatea besterik ez da. Hau hola ez bada, berriz, eta espazioa eta bertako fenomenoak gugandik kanpo ere existitzen diren zerbait badira, orduan gure hautemapenaz kanpoko esperientziaren irizpide guztiek ere ezin izango dute inola ere gugandik kanporako objektuen errealtaterik frogatu.

L

II. Ideia kosmologikoak

(Kritik, 405. or. eta hurr.)

Arrazoi hutsaren produktu hauxe da, bere usaera transzendentean, horren fenomenorik ohargarriena eta hauxe da berebat beste guztien artean gehien saiutzen dena, filosofia bere lozorro dogmatikotik esanarazten eta hau arrazoa kritikatzeke lanbide gaitzera bultzatzen.

Idea hau kosmologikoa deitzen dut nik, honek bere objektua beti sentimenen mundutik bakarrik jasotzen duelako, eta objektutzat sentimenen objektu dena besterik behar izaten ez duelako; beraz, inmanentea den eta transzendentea ez den neurrian, oraindik ez da ideia; aitzitik, berriz, arima substantzia bakun bat bezala pentsatzea, objektu bat (bakunkia) pentsatzea adinaxe da, horrelakorik ez baitago sentimenei errepresentatzerik. Hala ere, hainbesteraino zabaltzen du baldintzatuak baldintzarekin daukan lotura (baldintza hau matematikoa nahiz dinamikoa izan daiteke), ze esperientzia ezin baitaiteke inola ere haren pareko izan, eta horregatik, puntu horri dagokionez, beti izango da ideia bat, bere objektua inolako esperientzian betaro aurkitu ezin dezakeena.

LI

Aurren-aurrena, hain argiro eta nahastuezinki erakusten da hemen kategorien sistema baten probetxua, ze, horretaz beste frogarik ez balego ere, aski izango bailitzateke bakar hauxe ere, arrazoi hutsaren sisteman, kategoria horien ezinbestekotasuna frogatzeko. Lau besterik ez dira ideia transzendenteok, kategorien klaseak adinaxe kontuizu; baina kategoria hauetako bakoitzean, ideia hauek, baldintzatu jakin batentzat dauden baldintza-sail guztiak begiztatzen dituzte. Ideia kosmologiko hauen eredura, lau motatakoak besterik ez dira arrazoi hutsaren afirmazio dialektikoak; eta hauek dialektikoak direlakoxe, besterik gabe frogatzen dute, ezen, horietako bakoitzaren kontra beste kontraesanezko bat dagoela jarria, arrazoi hutsaren printzipio iruzurtien arabera; kontraesan hori, berriz, ez dago inolako bereizkuntza sotilen arte metafisikorik hori kentzeko gauza denik, nola eta ez den, filosofoa atzera arrazoi hutsaren beraren lehen iturrietaraino itzultzeraz behartzen duena. Antinomia honek, ez baita gogoak

emanda sortutakoa, eta bai giza arrazoiaren izaeran oinarritua, eta beraz itzuriezinekoa eta inoiz bukatzen ez dena, honako lau tesi hauek jasotzen ditu bere antitesiekin:

1. Tesia: "Munduak hasiera (muga) bat dauka denborari eta espazioari dagokienez".

Antitesia: "Mundua azkengabea da denborari eta espazioari dagokienez".

2. Tesia: "Mundua dena bakunkiz osatua dago".

Antitesia: "Bakunkirik ez dago, dena da konposatua".

3. Tesia: "Munduan badira libertatezko kausak".

Antitesia: "Libertaterik ez dago, dena da natura".

4. Tesia: "Munduko kausen sailean bada derrigorrezko izakiren bat".

Antitesia: "Sail horretan ez dago ezer derrigorrezkorik, sail horretan dena da kontingente".

LII

Hauxe da giza arrazoiaren fenomenorik apartekoena, eta horretaz ere ez dago beste adibiderik erakusterik, horren inolako usaeretatik hartuz. Jeneralean gertatzen denez, sentimen-munduko fenomenoak berbaitango gauza bezala bururatzen baditugu, horien lotura-printzipioak berbaitango gauzentzat orokorki, eta ez esperientziarentzat soilik, balio duten printzipio bezala onartzen baditugu -hau ere ohiki gure kritikarik gabe itzuriezinki gertatzen baita-, orduan ustegabeko kontraesan bat agertzen da, ohizko bide dogmatikotik inola ere konpondu ezin litekeena, ba tesia eta antitesia indar berdineko froga argi eta eztabaidea ezinezko batekin demostra daitezke -froga hauen zuzentasuna neronek garantizatzen dut-, eta hala arrazoa eztabaidan jartzen da bere buruarekin; egoera honek, berriz, poz ematen dio eszeptikoari, baina zer-pentsa eta ezinegona sortzen dio filosofo kritikoari.

LIIf

Metafisikan hainbat eratarik dibaga dezake batek egi ezean erortzeko arriskurik gabe. Ba nork bere buruari kontraesaten ez badio, eta hau oso posible da proposizio sintetikoetan, nahiz eta hauek erabat asmatuak izan, esperientziak ezin gezurtatu ahal izango gaitu inola ere, guk lotzen ditugun kontzeptuak ideia soilak direnean, alegia (beren edukin osoaren arabera) esperientzian inola ere aurkituezinak direnean. Izan ere, nola erabaki genezake esperientziaren bidez: mundua betikoa den hala hasieraduna den, materia azkengabe zatigarria den ala zati bakunez osatua dagoen. Horrelako kontzepturik ez da inolako esperientzian aurkitzen, ezta denik eta handienean ere; ondorioz, proposizio baieztale edo ezeztalearen okerrik ezin daiteke atzeman proba-harri horren bitartez.

Kasu posible bakarra, non arrazoiak bere dialektika sekretua, faltsoki dogmatikotzat ematen duena, bere gogoaren kontra erakutsiko bailuke, zerakoa izango litzateke, alegia baldin unibertsalki onartutako printzipio bati buruz afirmazio bat ezarriko balu, eta berdin onartutako beste printzipio batetik, ondorioak ateratzeko bidea zorrotz jarraituz, justu haren kontrako konklusioa aterako balu. Kasu hau erreala da hemen, eta izan ere arrazoiaren lau ideia naturalei buruz, zeintzuetatik lau afirmazio ateratzen baitira, alde batetik, eta beste horrenbeste kontra-afirmazio bestetik, eta atera ere bakoitza unibertsalki onartutako printzipioetatik ondoriotuz; horrela, berriz, printzipio hauek erabiltzekoan arrazoi hutsak usatzen duen itxura dialektikoa azaltzen dute, bestela beti ezkutuan egon beharko lukeena.

Horra, ba, ahalegin erabakior bat, arrazoiaren supostuetan ezkutaturik dagoen oker bat derrigor bistaratu behar diguna²¹. Bata bestearen kontrakoak diren bi proposizio ezin daitezke biak faltsuak izan, nola eta oinarrian daukaten kontzeptua bera kontraesanezkoa ez den; adibidez, honako bi proposizio hauek: "zirkulu karratu bat biribila da" eta "zirkulu karratu bat ez da karratua", biak dira faltsuak horiek. Ba, aurrenekoari dagokionez, faltsua da, aipatu zirkulu hori biribila dela esatea, zeren hori

izan karratua da; baina bestalde, berebat da faltsua biribila ez baizik angeluduna dela esatea ere, ba hori izan zirkulua da. Izan ere, haxe da kontzeptu baten ezintasun-seinale logikoa, alegia aurre-suposatu beraren azpian, elkarren kontraesale diren bi proposizio aldi berean direla faltsuak; beraz, ba, nola horien artean ez dagoen beste hirugarrengo bat bururatzerik, kontzeptu horren bidez ezin daiteke ezertxo ere pentsa.

LIIc

Aurreneko bi antinomia horiek matematikoak deitzen ditut nik, berdinkiaren gehikuntzaz eta zatiketaz dihardutelako, eta horien azpian ere kontraesanezko kontzeptu berdintsu bat dago: eta horrelaxe esplikutzen dut nik, nola den posible, bai tesia eta bai antitesia bietan faltsua izatea.

Nik denborango eta espazioango objektuez hitz egiten dudanean, ez dut hitz egiten berbaitango gauzez, ez baitakit ezer hauetaz, eta bai soilik fenomenoango gauzez, hau da, esperientziaz hitz egiten dut nik, hau izaki objektuak ezagutzeko modu berezi bat eta gizakiak bakarrik daukana. Nik espazioan edo denboran pentsatzen dudana hartaz ez daukat esaterik: hori bere baitan, nire pentsamendu hori gabe ere, espazioan eta denboran existitzen denik; ba orduan neronen buruari kontraesango nioke; zeren espazioa eta denbora, beren baitako fenomeno guztiekin, ez dira ezer existentziadunik beren baitan eta nire errepresentaziotik kanpora; errepresentazio-modu batzuk besterik ez dira horiek, eta kontraesan nabaria da esatea, errepresentazio-modu soil bat, gure errepresentaziotik kanpora ere existitzen dela. Sentimenen objektuak, beraz, esperientzian bakarrik existitzen dira; eta esperientzia gabe, edo hau baino lehen, objektuei existentzia propio bat, berez subsistituko lukeena, esleitzea, zera uste izatea adinaxe da, alegia esperientzia posible dela esperientziarik gabe, edo esperientzia bera baino lehen ere.

Eta hala, nik munduaren dimentsioagatik galdetzen dudanean, espazioaren eta denboraren arabera, nire kontzeptu guztientzat ezintasun berdinekoa da mundua infinitua dela esatea eta mundua finitua dela esatea; ba ez bata eta ez bestea egon daiteke esperientziaren barruan, ba ez da posible esperientziarik, ez espazio infinituarenik eta ez igarotako denbora infinituarenik, eta espazio huts batek edo aurretiaz izandako denbora huts batek mugatutako munduarenik ere ez; horiek denak ideiak besterik ez dira. Beraz, modu batera edo bestera determinatutako munduaren dimentsio horrek berez beharko luke subsistitu, edozein esperientziatatik aparte. Baina kontraesanean dago hau sentimen-munduaren kontzeptuarekin; mundu hau fenomeno-multzo bat baino ez baita, eta fenomeno horien existentzia eta lotura errepresentazioan, hots, esperientzian soilik aurkitzen da; ba mundu hau bera ere errepresentazio-modu soil bat da eta ez berbaitango gauza bat. Hemendik segitzen da, ezen berez existitzen den sentimen-mundu baten kontzeptua berbaitan kontraesanezkoa denez, munduaren dimentsioari buruzko problemaren soluzioa ere beti izango dela faltsua, dela horren azterketa positiboa dela negatiboa.

Berdin-berdin balio du horrek bigarren antinomiarentzat ere, zeinak begiztatzen baitu fenomenoaren zatiketa. Ba zatiketa hauek errepresentazio soilak dira eta zatiak horien errepresentazioan bakarrik existitzen dira, eta ondorioz, zatiketan, hots esperientzia posible batean, non haiek aurkitzen diren; horregatik hura, esperientzia ailegatzen den punturaino bakarrik iristen da. Esate baterako, onartzea, ezen fenomeno batek, hots gorputzarenak, esperientzia posible batek bakarrik atzeman ditzakeen zati guztiak beti dauzkala beragan, edozein esperientzia baino lehen, hori da: esperientzian bakarrik existitu daitekeen fenomeno soil bati, aldi berean, esperientzia bera baino lehenago berezko existentzia bat ematea, edo esatea, errepresentazio soilak ere existitzen direla, hauek errerepresentamenean egon baino lehen; alabaina hau, kontraesanean dago bere buruarekin, eta ondorioz kontraesanean dago gaizki ulertutako problemaren

soluzioarekin ere, bai esaten denean, gorputzak infinituki zati askok osatzen dituztela, edo esaten denean, zati bakunezko kopuru finitu batek osatzen dituela.

LIII

Antinomiaren aurreneko klasean (Matematikakoetan) aurre-suposatuaren okerra zen, ezen, kontraesanezkoa dena (alegia fenomeno berbaingauzaren pareko egitea) kontzeptu batean bateratzeko modukotzat ematen zela. Baina bigarren klaseari, antinomien klase dinamikoari, dagokionez, aurre-suposatuaren okerra da, ezen bateragarria dena kontraesanezko bezala aurkeztu dela; eta hala, aurreneko kasuan elkarren kontrako esanak biak faltsuak ziren bezala, hemen, gaizki-ulertze soil bategatik, elkarren kontra dauden esanak, biak izan daitezke egiazko.

Lotura matematikoak derrigor suposatzen du lotutakoaren homogenotasuna (dimentsioaren kontzeptuan); baina lotura dinamikoak ez du inola ere horrelakorik eskatzen. Autua hedatukiaren dimentsioarena denean, orduan zati guztiek izan behar dute homogeno beren artean eta osokiarekin; aldiz, kausa eta efektua lotzen direnean, orduan ere eman daiteke homogenotasuna, baina ez da derrigorrezkoa; ba kausalitate-kontzeptuak behintzat (zeinari esker zerbaiten bidez oso desberdina den beste zerbait jartzeko baita) ez du halakorik eskatzen.

Sentimen-munduko objektuak berbaingauzatzat hartuko balira, eta gorago aipatutako natur legeak berbaingauzen legetzat, orduan, ezinbestekoa izango litzateke kontraesana. Era berean, libertatearen subjektua, beste objektuak bezala, fenomeno soilak bezala errepresentatuko balitz, orduan ere ezinbestekoa izango litzateke kontraesana, zeren gauza bera baieztuko edo ezeztuko litzateke objektu bat berari buruz eta esanahi berean. Baina naturaren derrigortasuna fenomenoei buruzkoa bakarrik baldin bada, eta libertatea berbaingauzei buruzkoa bakarrik, orduan ez dago kontraesanik, bi kausalitate-motak berdin onartzen edo aitortzen badira, nahiz eta oso zaila edo ezinezkoa iruditu azken motakoa ulergarri egitea.

Fenomenoan, edozein efektu egitate bat edo denboran gertatzen den zerbait izaten da; egitate horren aurretik, natur lege orokorraren arabera, egitate horren kausaren kausalitatea (horren egoera bat) determinatu behar da, zeina segitzen baitu hark lege iraunkor baten arabera. Baina kausa kausalitaterako determinatze horrek ere agitzen edo gertatzen den zerbait behar du izan; kausak iharduten hasita egon behar du, bestela kausaren eta efektuaren artean ez legoke segida kronologikorik bururatzetik. Efektua betidanik existituko zen eta kausaren kausalitatea ere bai. Beraz, fenomenoen artean ere, sortuta egon behar du kausaren iharduteko determinazioak, eta horrek ere, ondorioz, bere efektuek bezala, egitate bat izan behar du, eta berriz ere honek bere kausa behar du eduki, etab..., eta ondorioz naturazko derrigortasuna izango da kausa aktiboak determinatzeko erabiliko den baldintza. Aitzitik, ordea, libertateak fenomenoen zenbait kausaren berekitasun bat izan behar baldin badu, orduan horrek ahalmen izan behar du, fenomeno hauei, egitate direnez, berak bere kabuz (sponte) hasiera emateko, h. d., kausaren kausalitateak martxan jarri beharrik izan gabe, eta beraz, besteei beren hasiera determinatuko dien oinarriarik behar izan gabe. Baina orduan kausak, bere kausalitatearen bertutez, ez luke egon behar bere egoeraren denborazko determinazioen mendean, h. d. ez luke inola ere fenomeno izan behar, h. d., berbaingauz gauza bezala behar luke onartua izan, baina efektuak fenomeno bezala bakarrik²². Adimen-izakiek fenomenoetan horrelako eraginik izatea kontraesanik gabe burura badaiteke, orduan derrigortasun naturala sentimen-munduko kausa-efektuen arteko edozein loturari egotziko zaio; aitzitik, horrelako kausari, bera ez baita inolako fenomeno (nahiz eta horren oinarrian egon), esleia dakioke libertatea; beraz natura eta libertatea gauza berari esleitu dakizkioke kontraesanik gabe, baina ikuspegi desberdinetatik, behin fenomeno bezala eta behin berbaingauz gauza bezala.

Badaukagu gudan ahalmen bat, lotuta dagoena, alde batetik, bere ihardunaren kausa naturalak diren printzipio subjektiboki determinatzaileekin, eta, hein horretan, bera ere fenomenoaren artekoa den izaki baten ahalmena da; baina gainera, ahalmen hori harremanean dago, ideia soilak diren printzipio objektiboekin ere, hauek ahalmen hori determina dezaketen neurrian; lotura hori behar izatearen (Sollen) bidez adierazten da. Ahalmen hori arrazoa da, eta izaki bat (gizakia) objektiboki determinagarria den arrazoi horren arabera bakarrik kontsideratzen dugun neurrian, ezin daiteke kontsidera izaki sentikor bezala; aitzitik, pentsatutako berekitasuna berbaitango gauza baten berekitasuna da, honen posibilitateak ezin baititugu guk inola ere ulertu; alegia, guk ezin dugu ulertu, nola izan-beharrak (Sollen), oraindik inoiz ere izan ez denak, gauzaren iharduera determina dezakeen eta nola izan daitekeen ekintza batzuen kausa, ekintza horien efektua sentimen-munduan fenomeno bat izaki. Hala ere, arrazoiaren kausalitatea libere izango litzateke sentimen-munduko efektuei buruz, aldiz oinarri objektiboak, berak ere ideia direnak, determinatzaile bezala ikusiko lirateke arrazoiari buruz. Ba orduan arrazoiaren ekintza ez litzateke lotua egongo baldintza subjektiboekin, ez denborazko baldintzekin, eta, ondorioz, ezta horiek determinatzeko balio duen lege naturalarekin ere, zeren arrazoiaren printzipioek, denbora eta lekuzko zirkunstantzien eraginik gabe, printzipioen bidez ematen diete ekintzei beren erregela.

Nik hemen azaltzen dudana, gauza ulergarri egiteko adibide bat besterik ez da, eta ez dago derrigor gure arazoarekin lotua; ba horren soluzioa kontzeptu soiletatik atera behar da, guk mundu errealean aurkitzen ditugun berekitasunetatik aparte.

Orain, beraz, kontraesanik gabe esan dezaket: izaki arrazoidunaren ekintza guztiak, fenomeno diren tamainan (esperientziaren batean ematen direnak) naturazko derrigortasunaren azpian aurkitzen dira; ekintza horiek berak, ordea, subjektu arrazoiduna eta honek, arrazoi soilaren arabera iharduteko, daukan ahalmena begitatzten dituztenean, libreak dira. Zer eskatzen da orduan naturazko derrigortasunerako? Ezertxo ere ez, sentimen-munduko edozein gertakari lege konstante batzuen arabera determinagarri izatea besterik eta ondorioz fenomenoan kausarekin erlazio bat aurkitzea, non berbaitango gauza, azpi-azpian dagoena, eta horren kausalitatea, ezagutu gabe gelditzen baitira. Hala ere hona nik esan: lege naturala mantendu egiten da, bai izaki arrazoiduna arrazoiarekin, hau da, liberearekin, sentimen-munduko efektuen kausa denean, eta bai arrazoizko printzipioekin horiek determinatzen ez dituztenean. Izan ere, aurreneko kasuan, ekintza maxima batzuen arabera gertatzen da, zeintzuen efektua fenomenoetan beti lege konstanteak jarraituz gertatuko baita; bigarren kasuan, ekintza ez da arrazoiaren printzipioen arabera gertatzen, eta orduan ekintza sentibilitatearen lege enpirikoak jarraitu beharrean aurkitzen da; bi kasuetan ere, efektuak lege konstanteen arabera egoten dira elkarrekin erlazio naturik. Gehiago ez diogu eskatzen naturazko derrigortasunari; baina jakin ere guk ez dakigu gehiago hartaz. Hala ere lehendabiziko kasuan arrazoa da naturazko lege horien kausa eta, beraz, libre da; bigarren kasuan efektuek sentibilitatearen naturazko lege soilak jarraitzen dituzte, arrazoiak horiengan inolako eraginik egikaritzen ez duelako; baina hala ere, arrazoa bera ez du sentibilitateak determinatzen (ezinezkoa baita hau), eta beraz kasu honetan ere libre da. Libereak, beraz, ez dio trabarik egiten fenomenoaren natur legeari, honek ere arrazoi-usaera praktikoa libereari kalterik egiten ez dion bezalaxe, usaera hori harremanean baitago berbaitango gauzekin, hauek arrazoi determinatzaile direnez.

Honela, beraz, salbatu egiten da libere praktikoa, non kausalitatea arrazoiak daukan, printzipio objektiboki determinatzaile batzuen arabera, eta salbatu ere egiten da, naturazko derrigortasunak, efektu berei buruz, hauek fenomeno direnez, kalte txikiarik ere jasan gabe. Hain zuzen ere, honexek balio diezaguke, libere transzendentalaz eta

honek naturazko derrigortasunarekin (subjektu berean bai baina ez erlazio batborean harturik) duen loturaz esan behar genuena esplikatzeko. Naturazko derrigortasun horri dagokionez esan genezake, izaki batek kausa objektiboengatik ekintza bati ematen dion edozein hasiera lehen hasiera bat izaten dela beti, printzipio determinatzaile horiei dagokienez, nahiz eta ekintza hori, fenomenoaren sailan, mendeko hasiera bat besterik ez izan, zeinak derrigor izango baitu aurretik kausaren egoera bat, bera determinatzen duena, eta aldi berean beste kausa antezedente eta hurbileko batek determinaturik dagoena; eta hala, natur legeekin kontraesanean sartu gabe, izaki arrazoidunetan edo oro har izakietan, hauen kausalitatea berauetan berbaitango gauza bezala determinatzen den heinean, burura daiteke ahalmen bat, egoera-sail bat bere kabuz abiaraz dezakeena. Ba ekintzak printzipio razionalekin daukan erlazioa ez da denborazkoa: hemen kausalitatea determinatzen duena ez doa ekintzaren aurretik denboraz, ba horrelako printzipio determinatzaileek ez dute adierazten objektuek sentimenekin daukaten erlazioa, eta beraz horiek fenomenoetan kausekin daukatena, baizik eta adierazi, kausa determinatzaileak adierazten dituzte, berbaitango gauza bezala, denbora-baldintzapean ez daudenak. Hala, arrazoiaren kausalitateari dagokionez, lehen hasiera bat bezala kontsidera daiteke ekintza; baina fenomenoaren sailari dagokionez, aldi berean kontsidera daiteke hasiera subordinatu soil bat bezala; eta kontraesanik gabe, aurreneko kasuan libre bezala kontsidera daiteke, eta bigarren kasuan (fenomeno soilak denez) naturazko derrigortasunaren mendeko bezala.

Laugarren antinomiari dagokionez, hirugarrengoa arrazoiak bere buruarekin zuen gatazka bezalaxe soluzionatzen da. Ba aski da bereizkatzea fenomenoango kausa eta fenomenoaren kausa, hau berbaitango gauza bezala pentsa daitekeen neurrian, eta bi proposizioak ederki batean izan daitezke baliozko elkarren ondoan; alegia, sentimen-munduan ez dagoela inolako kausarik (kausalitatearena bezalako legeekin), derrigor existitu beharrekoa denik, eta bestalde, mundu hau derrigorrezko izaki batekin lotua dagoela bere kausarekin bezala (baina kausa beste era batekoa izaki eta beste lege bat jarraituz); bi proposizio horien bateraezintasuna honako gaizki-ulertze honetan datza, alegia, fenomenoentzat bakarrik balio duena berbaitango gauzetara hedatzen dela, eta orokorki bi gauzak kontzeptu batean nahasten direla.

LIV

Hau da, ba, antinomia osoaren planteamendua eta soluzioa, hortxe inplikaturik aurkitzen baita arrazoiak bere printzipioak sentimen-munduari aplikatzean; antinomia hau planteatze hutsa bera ere, mesede handia izango litzateke giza arrazoiak ezagutzeko, nahiz eta gatazka honen soluzioak irakurlea ez erabat askitu, ba honek ilusio natural baten kontra borrokatu beharra dauka, bai, halakotzat aurkeztu berria dioten ilusio baten kontra, orain arte hori egiazkotzat edukita gero. Hemen, beraz, itzuriezinekoa den ondorio bat: alegia, nola ez dagoen ateratzerik arrazoiak bere buruarekin daukan gatazka honetatik, uste izaten den bitartean, ezen sentimen-munduko objektuak berbaitango gauza direla eta ez horiek benetan direna, hots, fenomeno soilak, behartuta aurkituko da irakurlea gure apriorizko ezagutza guztien dedukzioak berriro egitera eta nik horietaz egin ditudan probak egiaztatzen, puntu honetan erabaki batera iritsi ahal izateko. Oraingoz ez dut gehiago eskatzen; ba, irakurleak, hori egitean, batik bat arrazoi hutsaren izaeran behar bezain sakon pentsatzen badu, orduan ezagunak egingo zaizkio, arrazoiaren gatazka soluzionatzeko bide bakarra diren kontzeptuak; zirkunstantzia hau gabe, berriz, neronek ezin dut espero izan erabateko onespenez, ezta irakurle ernaiearen partetik ere.

LV

III. Ideia teologikoa

(Kritik, 571. or. eta hurr.)

Hirugarren ideia transzendentala, arrazoiaren usaera garrantzitsuenari, baina hau espekulazioz erabiltzen bada, gehiegizkoa (transzendentea) eta beraz dialektikoa denari, gaia ematen diona, arrazoi hutsaren ideala da. Ba hemen arrazoia ez da esperientziatik abiatzen, ideia psikologiko eta kosmologikoetan bezala, eta printzipioak mailakatuz ez dago, ahalbait, horien sailaren osotasun absolutua lortzera bultzatua, ostera baizik horrekin hautsi egiten du erabat, eta jaitsi egiten da gauza orokor baten osotasun absolutua osatuko luketen kontzeptu soiletatik; hala, berriz, lehen-izaki guztiz perfektu baten ideiarene bidez, ahalgarritasuna determinatzera iristen da, eta, beraz, beste gauza guztien errealitatea determinatzera ere bai: horregatik izaki baten suposizio soila, esperientziaren sailean ez dagoena, baina hala ere esperientzia dela medio, azkeneko honen konexioa, ordena eta batasuna ulertu ahal izateko pentsatua dagoena: h. d., ideia, aurreko kasuetan baino errazago da hemen, adimen-kontzeptuetatik bereiztea. Horregatik, oso erraz jar zitekeen hemen begien aurrean ilusio dialektikoa, zeina sortzen baita uste izatetik, ezen gure pentsamenduaren baldintza subjektiboak gauzen beren baldintza objektiboak direla, eta gure arrazoia askiesteko behar den hipotesi bat dogma dela; honez gero, berriz, ez naiz hasiko Teologia transzentalaren ustekeriak gogoratzen, ba horretaz Kritika-k dioena nahiko ulerterraza, konbentzigarria eta erabakiorra da.

LVI

Ohar orokorra

ideia transzendentalei buruz

Esperientziaren bidez ematen zaizkigun objektuak, ulertezinak izaten dira guretzat ikuspegi askotatik, eta natur legeak bururatzen dizkigun galdera asko eta asko, maila jakin bateraino eramaten badira, nahiz eta beti ere lege horien arabera izan, ezin izaten dira inola ere erantzun, adibidez: zer dela-eta erakartzen dute materiek elkar? Natura erabat alde batera uzten badugu edo horren konexioaren joairan edozein esperientzia posible gainditzeko baldin badugu, hau da, ideia soiletan murgiltzen baldin bagara, orduan ezin dugu esan, ulertezinekoa dela objektua eta gauzen naturak soluzionatu ezineko problemak jartzen dizkigula; ba holakoetan guk ez dugu naturarekin zerikusirik izaten eta, oro har, emandako objektuekin ere ez, eta bai soilik gure arrazoiaren sortzen diren kontzeptuekin eta pentsamendu-izaki soilekin; horiei dagokienez, berriz, horien kontzeptutik sortzen diren problemek denek behar dute soluzionatzeko modukoak izan, ba arrazoiak betaro dezake eta behar du bere jokabidearen kontu eman²³. Eta hala, ideia psikologiko, kosmologiko eta teologikoak arrazoi-kontzeptu hutsak baitira, eta inolako esperientziatan eman ezin daitezkeenak, horiei buruz arrazoiak egiten dizkigun galderak ezin dira planteatu objektuen bidez, arrazoiaren maxima soilen bidez baizik, bere buruaren askitasunerako, eta denek behar dute izan askitasunez erantzuteko modukoak; hau, berriz, gertatzen da, erakusteko, horiek printzipio batzuk direla, gure adimen-usaera erabateko unanimitatera, osotasunera eta unitate sintetikorako eramateko daudenak, eta beraz esperientziarentzat bakarrik balio dutela, baina horrentzat osotoro. Baina esperientziaren osotasun absoluturik posible ez den arren, hala ere ezagutzaren osotasun baten ideia, printzipio orokorren araberkoa, horixe da hari batasun-mota berezi bat, sistema baten batasuna alegia, eman diezaiokeen bakarra; batasun hori gabe, gure ezagutza ez da zatikako lan bat besterik eta ez dago erabiltzerik helburu nagusirako (hau beti helburu guztien sistema bakarrik izaki); baina nik ez dut begizatzen hemen arrazoiaren usaera espekulatiboaren helburu praktikoa bakarrik, baizik eta horren helburu gorena ere bai.

Horregatik, ideia transzendentalek arrazoiaren determinazio berekia adierazten dute, hau da, adimen-usaeraren unitate sistematikoko printzipio batena. Baina ezagutza-moduaren unitate hori, ezagutza-objektuari atxikita balego bezala begiratzen baldin bada, eta

erregulatzaila besterik ez dena, konstitutibotzat jotzen bada, eta bat konbentzitzen baldin bada, ezen ideia horien bidez bere ezagutza esperientzia posible guztiak baino askoz ere harago, eta beraz modu transzendente batean zabaldu daitekeela, iaketa ezagutzak horretarako bakarrik balio duen, alegia berbaitango esperientzia osotasunera ahalik eta gehiena hurbiltzeko, hau da, horren garapena esperientziakoa ez den ezerekin ez mugatzeko; orduan, hau gaizki-ulertze bat besterik ez da, gure arrazoiaren eta honen printzipioen determinazioa bera juzgatzekoan gertatu dena, baina dialektika bat ere bada, zeinak zatizki arrazoiaren usaera enpirikoa nahasten baitu, eta zatizki arrazoi bere buruarekin desadosten.

LVII

Konklusioa:

Arrazoi hutsaren muga-determinazioa

Horago eman ditugun froga argi eta garbien ondoren, burugabekeria litzateke guk uste izatea, objektu bat ezagutu genezakeela, horren esperientzia posible batek jakitera eman diezagukeena baino gehiago; eta berebat, inolako esperientzia posibleren objektu ez dela onartzen dugun beste zerbaitetaz ezagutza minimorik ere eduki nahi izatea, hura, izaeraren arabera, berbaitan nolakoa den determinatzeko; izan ere, nola egin behar dugu guk determinazio hori, baldin eta denbora, espazio eta adimen-kontzeptu guztiek, eta, areago oraindik, intuizio enpirikoaren bidez edo sentimen-munduko hautemapenaren bidez ateratako kontzeptuek ez badaukate beste usaerarik, eta eduki ere ezin badute, esperientzia posible egitea besterik, {ba orduan} guk geuk ere, adimen-kontzeptu hutsetatik baldintza hori kanpoan uzten badugu, horiek ez dute inolako objekturik determinatuko eta ez dute inolako esanahirik izango.

Bestalde burugabekeria handiagoa litzateke oraindik, guk inola ere berbaitango gauzarik onartuko ez bagenu, edo gure esperientzia gauzak ezagutzeko modu posible bakartzat joko bagenu, eta beraz espazioango eta denborango gure intuizioa intuizio posible bakartzat, eta adimen diskurtsiboa edozein adimen posibleren prototipotzat emango bagenu; eta hala, esperientziaren posibilitatearen printzipioak berbaitango gauzen baldintza orokor bezala kontsideratuak izatea nahi izango bagenu.

Gure printzipioak, zeintzuek arrazoiaren usaera esperientzia posiblera bakarrik murrizten duten, transzendenteak ere egin zitezkeen, eta gure arrazoiaren mugak berbaitango gauzen posibilitatearen mugatzat eman zitzaketen (Humeren Elkarrizketak izan daitezke horren adibide), baldin eta kritika arduratsu batek gure arrazoiaren mugak, baita horren usaera enpirikoari dagokionez ere, zainduko ez balitu, eta horren uziei helmuga bat ipiniko ez balie. Eszeptizismoa Metafisikatik eta honen disziplina gabeko dialektikatik jaio zen batik bat. Hasieran aski zuen, inondik ere, arrazoiaren esperientziako usaeraren mesedetan, usaera hori gainditzan zuen guztia baliogabetzat eta iruzurrezkotzat kontsideratzea; gero, ordea, poliki-poliki konturatu zen jendea, ezen esperientzian erabiltzen diren apriorizko printzipio hauek berak, ohartzeke eta, itxura denez, eskubide berarekin, esperientzia bera baino ere harago ailegatzen zirela, eta orduan jendea, esperientziako printzipioak berak hasi zen dudatan jartzen. Baina ez dago arriskurik horretarako; zeren judizio sanoak beti eutsiko die bere eskubideei; baizik ere zientzian bakarrik sortu zen buru-nahaste berezia, hori ez baitzen gauza determinatzeko, zenbateraino fida daitekeen bat arrazoiarekin eta zergatik honaino bai eta harago ez. Buru-nahaste horri laguntzeko eta etorkizunean atzera hor erortzetik libratzeko, gure arrazoi-usaeraren mugak, printzipioetatik abiatuz, formalki determinatzea beste biderik ez dago.

Egia da, edozein esperientzia posibletatik kanpora, gu ez garela gauza inolako kontzeptu zehatzik emateko, gauzak berbaitan zer izan daitezkeenaz. Baina hala ere, gu ez gara libre, kontzeptu horiek ikertu gabe erabat bazter uzteko; esperientziak ez baitu inoiz

arrazoia erabat asetzen; beti hurrengo baterako uzten du gure galderen erantzuna eta deskontentu uzten gaitu horien esplikazio osoa nahi dugunean; edozeinek askiro hauteman dezake hau Arrazoi hutsaren dialektikan, hortxe baitauka horrek bere benetako oinarri subjektiboa. Nork jasan dezake, gu, geure arimaren izaera dela medio, subjektuaren kontzientzia argia izateraino eta aldi berean zerako konbentzimenduraino iristea, ezen horren fenomenoak ezin direla modu materialistan esplikatu, galdetu gabe, ea arima benetan zer den, eta, honetarako esperientziazko kontzepturik aski ez bada, hala behar izanez gero, arrazoi-kontzeptu bat (izaki inmaterial bakun batena) xede honetarako behinik onartu gabe, nahiz eta guk horren errealitate objektiboa frogatzeko gauza inola ere izan ez? Nor kontenta daiteke arazo kosmologiko guztietan esperientziazko ezagutza soila edukitzearekin, adib. munduaren iraupen eta tamainaz, libertateaz edo naturazko derrigortasunaz?, ba, gu nolanahi hasten garela ere, esperientziazko oinarri-legeen arabera emandako edozein erantzunek beste galdera berri bat gordetzen du beti barnean, berak ere erantzuna izatea eskatzen duena, eta horrela argi eta garbi azaltzen du arrazoa askiesteko erabiltzen diren esplikazio-mota fisiko guztien ez-askitasuna? Azkenik, esperientziazko printzipioen arabera pentsatu eta onar daitekeen guztiaren kontingentzia eta dependentzia orokorretan nork ez du ikusten, ez dagoela hortan gelditzerik, eta ez du sentitzen bere burua behartuta, ideia transzendentetan galduta geratzeko debeku oro bazterturik, hala ere esperientziaren bidez justifika ditzakeen kontzeptu guztien gainetik, izaki baten kontzeptuan bakea eta askitasuna bilatzera, nahiz eta izaki horren ideia, posibilitatearen arabera, ez berez ulertzerik dagoen etaez errefutatzerik, izan ere hori adimen-izaki soila delako, eta ideia hori gabe arrazoa betiko deskontentu geldituko litzatekeelako?

Mugek (izaki hedatuetan) espazio bat aurre-suposatzen dute beti, leku jakin batetik kanpora dagoena eta leku hori barruan hartzen duena; mugapenak ez dute horren beharrik izaten, ba ukapen soilak izaten dira eta tamaina bat afektatzen dute, honek erabateko osotasunik ez daukan neurrian. Gure arrazoiak, ordea, nolabait esan, berbaitango gauzak ezagutzeko espazio bat ikusten du bere inguruan, nahiz eta gauza horietaz inoiz ere ez dezakeen kontzeptu zehatzik izan eta fenomenoetara bakarrik murriztua dagoen.

Arrazoiaren ezagutza homogenoa denez, ezin da horrentzat muga jakinik bururatu. Matematikan eta Natur Zientzian giza arrazoiak arrezagutzen ditu mugapenak, baina ez mugarik; hau da, onartzen du, badagoela zerbait beragandik kanpo berak inoiz ere iritsiko ez duena, baina ez du onartzen bera bere barne-eboluzioaren punturen batean akabatua izango denik. Matematikako ezagutzen handitzea eta beti aurkikuntza berriak egiteko posibilitatea infinituraino doa; eta esperientzia jarraituen bidez eta hauek arrazoiaren bitartez batuz, naturaren berekitasun berriak, indar berriak eta lege berriak deskubritzeko posibilitatea ere bai. Baina mugapenak ere ez dago hemen ezikusi eginda uzterik, ba Matematikak fenomenoak bakarrik begiztatzen ditu, eta sentimenezko intuizioaren objektu izan ezin den guztia, hala nola Metafisikaren eta moralaren kontzeptuak, haren alorretik kanpora geratzen da erabat, eta beraz Matematikak ezin gaitu inola ere hara eraman; alabaina horren beharrik ere ez dauka hark batere. Ez dago, beraz, etengabeko aurrerapenik eta hurbiltzerik zientzia horietarantz, eta nolabait esateko, ukipen-puntu edo -lerrorik ere ez. Natur Zientziak ez digu sekula gauzen barrukorik azalduko, alegia, izan, fenomenoak ez dena, baina fenomenoak esplikatzeko printzipio nagusia izan daitekeen zera hura; Natur Zientziak, ordea, ez dauka horren beharrik bere esplikazio fisikoak emateko; ba, antzeko printzipioren bat beste bide batetik eskainiko balitzaio ere (adib. materia gabeko izakien eragina), baztertu egin beharko luke berak, eta inola ere ez luke sartu beharko bere esplikazioen desarrolloan, aitzitik esplikazio horiek zeratan oinarritu beharko lituzke, alegia sentimen-objektu

bezala esperientziaren parte izan daitezkeen hartan, eta esperientziaren legeen arabera, gure benetako hautemapenekin erlazionatu daitezkeen hartan.

Metafisikak bakarrik eramaten gaitu mugetaraino arrazoi hutsaren ahalegin dialektikoetan (hauek ez baitira kapritxoz edo ausarkeriaz egiten, arrazoiaren izaerak berak hartara eraginda baino); eta ideia transzendentalek, hain zuzen ere, bazter uzterik ez dagoelako eta, hala ere, inoiz gauzatzeko modukoak ez direlako, zeratarako balio dute, alegia ez bakarrik arrazoi-usaera hutsaren mugak guri erakusteko, baizik eta muga horiek determinatzeko ere bai; hauxe baita, izan ere, gure arrazoiaren berezko prestasunaren helburua eta probetxua, eta arrazoi horrek Metafisika sortu du bere ume kutun gisa, zeinaren sorrera, munduko beste edozeinena bezalaxe, ez baita nola-halako ausa bati egoztekoa eta bai jakintsuki helburu handitarako antolatua dagoen jatorrizko ernamuin bati. Ba Metafisika, agian beste edozein zientzia baino areago dago, bere funtsezko ezaugarrien arabera, gugan naturak ezarria, eta ez dago kontsideratzerik aukera arbitrario baten fruitu bezala, edo ausazko hedatze bat bezala esperientzien desarroiloan (erabat aldendurik baitago esperientzietatik).

Arrazoiak, bere kontzeptu guztien eta adimenaren legeen bitartez, aski baititu horiek usaera enpirikorako, eta beraz sentimen-munduaren barruan, hala ere berez ez du inolako atseginik sentitzen horretan; zeren behin eta berriz azkengaberaino planteatzen diren arazo hauek, berentzat erabateko soluziorik aurkitzeko itxaropen guztia kenduta uzten dute. Helburutzat perfekzio hori daukaten ideia transzendentalek dira arrazoiaren problema horiek. Orain arrazoiak garbi ikusten du: sentimen-munduak ezin duela horrelako perfekziorik eduki, eta beraz, hori ulertzeko soilik balio duten beste kontzeptuak ere ez, nola diren: espazioa eta denbora, eta guk adimen-kontzeptu hutsen izenpean aipatu dugun guztia. Sentimen-mundua ez da lege orokor batzuen arabera elkarrekin lotutako fenomeno-kate bat besterik; beraz, ez du kontsistentziarik berez, egia esateko, ez da berbaitan den gauza bat, eta, horregatik, derrigor fenomeno horren funtsa dena begiztatzen du, alegia, fenomeno soil bezala ez baizik berbaitango gauza bezala arrezagutu daitezkeen izakiak. Horien ezagutza bakarrik itxaron dezake arrazoiak, berak daukan osotasun-egarria behingoz aseta ikustea, hasi baldintzatua izatetik eta horren baldintzetaraino doan garapenean.

Gorago (§ 33, 34) seinalatu ditugu pentsamendu-izaki soilen ezagutza guztiari buruz arrazoiak dauzkan mugapenak; orain, berriz, iaketa ideia transzendentalek beharrezkoa egiten duten haietaraino iristea, eta, beraz, nolabait esan, espazio beteak (esperientziarenak) eta espazio hutsak (honetaz, noumenoaz, ezin baitugu ezer jakin) elkar ukitzen duten punturaino eramán gaituzten, arrazoi hutsaren mugak ere determina genitzake; izan ere, edozein mugatan egoten da zerbait positiboa (adib. azalera da espazio korporalen muga, nahiz eta bera ere espazio bat den; lerroa, azaleraren muga den espazio bat da; puntua lerroaren muga da, nahiz eta bera ere beti espazioko leku bat den), mugapenek ordea ukapena besterik ez dute izaten. Aipatu paragrafoan seinalatutako mugapenak ez dira oraindik aski, aurkitu baitugu, horietaz gain ere badela beste zerbait (nahiz eta jakingo ez dugun hau bere baitan zer den). Ba orain galdera da, ea nola jotzen duen gure arrazoiak, ezagutzen duguna eta ezagutzen ez duguna eta inoiz ere ezagutuko ez duguna elkarrekin juntatzen diren puntu horretan? Hemen benetako korapilatze bat dago ezagutzen dugunaren eta batere ezagutzen ez dugunaren (eta beti holaxe jarraituko duenaren) artean; eta ezagutzen ez dugun hori pittin bat ezagunagoa izateko modurik ere ez baldin badago -izan ere hori ez baita espero izatekoa-, orduan korapilatze horren kontzeptuak izan behar du, determinatua eta bereizkatua izateko modukoa.

Beraz, izaki inmaterial bat, adimen-mundu bat eta beste guztien gainetik dagoen izaki bat bururatu behar ditugu (noumeno hutsak alegia), zeren eta arrazoiak, horiek

berbaitango gauza direnez, horietan bakarrik aurkitzen du betetasun eta atsegin; ba horrelakorik ezin du inoiz ere itxaron fenomenoak beren gisako printzipioetatik ateratzen ari denean, eta nola hauek benetan berak ez-bezalako zerbait (beraz erabat bestelakoa dena) begiztatzen duten, horregatik fenomenoek ere berbaitango gauza bat aurre-suposatzen dute beti eta horixe adierazten dute, hori gertuagotik ezagutzen den ala ez begiratu gabe.

Beraz, ba, nola guk adimen-izakiok ezin ditugun inola ere ezagutu horiek berbaitan diren bezala, h. d., modu zehatz batean, baina nola, hala ere, onartu beharrak dauzkagun sentimen-munduari buruz, eta adimenaren bidez horrekin lotu beharrak, beraz modua izango dugu gutxienez lotura hori halako kontzeptuen bitartez bururatzeko, sentimen-munduekin daukaten harremana adierazten dute horiek eta. Izan ere, adimen-izakiak adimen-kontzeptu hutsen bidez bakarrik bururatzen baditugu, benetan ez dugu ezer zehatzik bururatzen, eta beraz gure kontzeptua esanahirik gabe gelditzen da; baina guk hori, sentimen-mundutik hartutako berekitasunen bidez bururatzen badugu, orduan utzi egiten dio adimen-izaki izateari, fenomeno bat bezala bururatzen da, eta sentimen-mundukoa da. Izaki gorenaren kontzeptutik hartuko dugu adibide bat.

Kontzeptu deista adimen-kontzeptu hutsa da betaro, baina errealitate guztiak jasotzen dituen gauza bat adierazten duena; errealitate horietako bakarrik ere ezin du determinatu, ba horretarako adibidea sentimen-mundutik atera beharko litzateke; kasu horretan, berriz, nik beti sentimenen objektu batekin erlazionatu beharko nuke, baina ez erabat heterogenoa den eta sentimenen objektu izan ezin daitekeen zerbaitekin. Adibidez, nik horri adimena egotziko nioke, baina nik ez daukat adimenari buruz beste kontzepturik, nirea bezalakoarena besterik eta adimen honi sentimenen bidez eman behar izaten zaizkio intuizioak; gero bera arduratzen da intuizio horiek kontzientzi batasunaren erregelapean jartzen. Baina orduan, nire kontzeptuaren elementuak beti egongo lirateke fenomenoan; baina hain zuzen fenomenoan ez-askitasunak behartu ninduen hauek baino harago, izaki baten kontzepturaino, joatera, zeina izango bailitzateke izaki bat, fenomenoan mendea egongo ez litzatekeena eta bere determinazioaren baldintza bezala fenomenorik beharko ez lukeena. Baina nik adimena sentsibilitatetik banantzen baldin badut, adimen huts bat edukitzeko, orduan intuiziogabeko pentsamenduaren forma soilak besterik ez da gelditzen, eta horrekin nik ezin dut ezer zehatzik ezagutu, eta beraz objekturik ere ez. Xede honetarako beste adimen bat bururatu beharko nuke nik, gauzak intuituko litzatekeena; baina horretaz ez daukat nozio txikiarik ere, zeren giza adimena diskurtsiboa da eta kontzeptu orokorren bidez bakarrik ezagutu dezake. Beste horrenbeste gertatzen zait, izaki gorenari borondatea egozten diodanean. Ba nik kontzeptu hau, nire barne-esperientziatik ateratzen dudana neurrian bakarrik daukat, esperientzia honen oinarria izaki, nik askiespenaren objektuei buruz, zeintzuen existentzia beharrezkoa baitugu, daukadan dependentzia; beraz sentsibilitatean oinarritzen da hori ere, eta kontraesan dago erabat izaki gorenaren kontzeptuarekin.

Humek deismoari egin zizkion objektzioak ahulak dira eta inoiz ere ez ziren frogak baino harago iritsi, sekula ez afirmazio deistaren tesia bera harrapatzeraino. Baina aldiz, oso bortitzak dira objektzioak teismoaren kontra, zeina gauzatu behar baita, guk izaki gorenaz daukagun kontzeptua, hor soilki tranzendente dena, hurbilagotik determinatuz, eta kontzeptu hori behin finkatuz gero errefutaezinekoe ere badira objektzio horiek zenbait kasutan (egia esan, kasu arrunt guztietan). Humeren oinarria da, ezen lehen-izaki baten kontzeptu soilaren bidez, zeinari predikatu ontologikoak bakarrik egozten baitizkiogu (betikotasuna, omnipresenzia, ahalorotasuna), ez dugula benetan ezer zehatzik bururatzen eta kontzeptu bat in concreto adierazi dezaketene berekitasunak pilatu beharko liratekeela. Ez da nahikoa esatea, kausa dela hura; baizik eta esan beharra

dago zernolakoa den kausalitate hori, adimen eta borondatezkoa-edo; eta hemen hasten dira gauzari berari, hots teismoari, Humek egiten dizkion erasoak, ba lehen deismoaren argumentuei bakarrik eraso zien, eta horrek ez zuen aparteko arriskurik berekin. Haren argumentu perilosak antropomorfismoari buruzkoak dira denak, kontsideratzen baitu askaezinekkoa dela hori deismotik, eta kontraesanezko egiten du bere baitan; baina antropomorfismoa kenduko balitz, teismoak ere lur joko luke horrekin batera eta deismoa besterik ez litzateke geratuko; horrekin, berriz, ez legoke ezer egiterik, horrek ez liguke ezertarako balioko eta ez luke balioko ez erlijioaren eta ez ohituren oinarri izateko. Gauza ziurra balitz antropomorfismoa ezinbestekoa dela, orduan izaki goren baten existentziari buruzko frogak edozein direla ere, eta horiek denak onartuta badaude ere, hala ere izaki horren kontzeptua ez genuke guk inola ere determinatzerik izango, gu geu kontraesanean sartu gabe.

Baldin eta guk, arrazoi hutsaren judizio transzendente guztiak itzurtzeko debekuarekin, horrekin itxuraz liskarrean dagoen manamendua lotzen badugu, zeinak agintzen baitu usaera inmanente (enpiriko)aren eremutik kanpora dauden kontzeptuetaraino ailegatu behar dela, orduan konturatuko gara, elkarrekin ere egon daitezkeela horiek biok, baina arrazoi-usaera haizutuaren muga-mugan bakarrik; ba muga hori da, hala esperientziaren alorrekoa nola pensamendu-izakien alorrekoa, eta horrela aldi berean irakasten zaigu nola hain ideia gogoangarri haiek azkenean giza arrazoiaren muga finkatzeko bakarrik balio duten; hau da, alde batetik, esperientziazko ezagutzak azkengabe ez hedatzeko, horrela mundu soila besterik ez bailitzaiguke geldituko ezagutzeko, eta bestetik, esperientziaren mugak baino harago ez joateko, eta esperientziaz kanpoko gauzak berbaitango gauza bezala ez juzgatu nahi izateko.

Beraz, guk muga honetantxe mantentzen dugu gure burua, gure judizioa murrizten badugu, munduak izaki batekin izan dezakeen erlazio batera, izaki horren kontzeptua bera, guk mundu barruan izan dezakegun ezagutza orotatik kanpora gelditzen delarik. Zeren orduan guk ez diogu izaki gorenari egozten, esperientziako objektuak pentsatzeko erabiltzen dugun berbaitango berekitasunik, eta horrela antropomorfismo dogmatikoa itzurtzen dugu; aldiz, orduan berekitasun horiek izaki goren horrek munduarekin duen erlazioari egozten dizkiogu eta antropomorfismo sinbolikoa haizutzen diogu geure buruari; honek, berriz, hizkuntza bakarrik afektatzen du benetan, baina ez objektua.

Nik esaten dudanean, behartuta gaudela mundua ikustera, adimen eta borondate goren baten obra balitz bezala, hauxe baino ez dut esan nahi, alegia: erloju bat, itsasuntzi edo erregimendu bat, bere artista, egile edo komandantearekin nola portatzen den, horrelaxe portatzen dela sentimen-mundua (edo fenomeno-multzo honen oinarria den guztia) ez-ezagunkiarekin, zeina nik ezagutzen baitut, ez berbaitan denagatik, eta bai niretzat denagatik, hau da munduari buruz denagatik, honen partea bainaiz ni ere.

LVIII

Honelako ezagutza bat da analogia bidezkoa, horrek ez baitu esan nahi, ohiki hitz hori ulertzen den bezala, bi gauzen arteko antz inperfektua, eta bai, erabat diferenteak diren bi gauzen arteko erlazioen antz perfektua²⁴. Analogia horri esker, nahiko kontzeptu determinatua gelditzen zaigu izaki gorenaz, nahiz eta hori batik bat eta berbaitan determina zezakeena erabat kanpora utzi dugun; ba guk hura munduari buruz eta, beraz, guri buruz determinatzen dugu, eta ez daukagu gehiagoren beharrik. Materialak beren baitatik edo mundutik hartuz, kontzeptu hau absolutuki determinatu nahi dutenen kontra Hume-k egiten dituen erasoak ez gaituzte atzematen; eta aurpegiratu ere ezin digu, izaki gorenaren kontzeptutik antropomorfismo objektiboa kentzen bazaigu ez zaigula ezertxo ere geldituko.

Ba, guri hasieran bakarrik ere (Hume-k bere Dialogoetan Filonen pertsonan Kleantesen kontra egiten duen bezala), derrigorrezko hipotesi gisa lehen izakiaren kontzeptu deista

onartuko balitzaigu, kontzeptu horretan lehen izakia predikatu ontologiko hutsen bidez, hots, substantzia, kausa, etab.en bidez, bururutzen delarik... (hau, berriz, egin beharra dago, ez bakarrik arrazoiaren sentimen-munduan baldintza hutsek, hau da, beren aldetik ere baldintzaturik daudenek, egikaritua dagoelako, hau gabe ezin baitu inolako askitasunik izan, baizik eta gainera, hori egoki batean egin daitekeelako antropomorfismoan erori gabe, zeinak sentimen-munduko predikatuak erabat mundua ez-bezalako izaki bati egozten baitizkio; alabaina, predikatu horiek kategoria soilak dira, izaki horren inolako kontzeptu determinaturik ematen ez dutenak, baina hain zuzen ere horrexegatik sentsibilitatearen baldintzetara murriztutako kontzepturik ere ematen ez dutenak); horra ba, lehen izakiaren kontzeptua onartzen bazaigu, orduan ezin digu ezerk eragotzi munduari buruz, izaki horri arrazoiaren bidezko kausalitate bat predikatzea, eta horrela teismora pasatzea, horregatik behartuta egon gabe, hari arrazoi hori egoztera, itsatsita daukan berekitasuna balitz bezala. Ba, aurreneko puntuari dagokionez, bide posible bakarra da, edozein esperientzia posibleri buruz, arrazoi-usaera gradurik gorenean sentimen-munduan praktikatzea, beti norberarekin ados egonez, batek, bestalde, munduko konexio guztien kausatzat arrazoi goren bat onartzen duenean: honelako printzipio bat abantailatsu izango da beti arrazoiarentzat, eta gainera horrek ez dio inolako kalterik egingo bere natur usaeran. Bigarren, berriz, horrela arrazoiaren ez zaio berekitasun bezala transmitituko lehen izakiari eta bai soilik horrek sentimen-munduekin daukan harremanari eta, beraz, erabat itzuriko da antropomorfismoa. Ba izan ere, hemen, munduan nonahi aurkitzen den arrazoi-formaren kausa bakarrik kontsideratzen da, eta izaki gorenari egozten zaio arrazoiaren, horrek munduaren arrazoi-forma horren funtsa daukalako, baina egotzi ere analogiaz bakarrik egiten zaio, h. d., esamolde horren bidez, guretzat ezezaguna den kausa goren horrek munduekin duen erlazioa adierazten den neurrian, horrela munduan dena gradurik gorenean, arrazoiaren arabera determinatu ahal izateko. Horrela ez dugu erabiltzen arrazoiaren berekitasuna Jainkoa bururatzeko, baizik eta berekitasun horretaz baliatzen gara mundua behar den bezala bururatzeko, munduari buruz, ahalik eta arrazoi-usaerarik handiena printzipio baten arabera lortu ahal izateko. Aitortu egiten dugu horrela, ezen izaki gorena, berbaitan denaren arabera, ikertu ezinekoa dela guretzat eta bururatu ezinekoa ere bai modu zehatz batean; horrek ez digu uzten arrazoiaren modu transzendentean erabiltzen, guk arrazoiaren (borondateari esker), kausa egile bati buruz bezala, dauzkagun kontzeptuen arabera, jainko-izaera determinatzeko, eta determinatu ere beti giza izaeratik bakarrik hartutakoak diren berekitasunekin, gu geu kontzeptu trakets eta fantasiazkoetan galtzen garela; bestalde, berriz, ez digu uzten munduaren gogoeta esplikazio hiperfisikoekin itotzen, giza arrazoiari buruzko gure kontzeptuak Jainkoari aplikatuz, hura bere determinazio propioetik apartatuz, zeinaren arabera hautemapenak izan behar baitu, arrazoiaren bitartez natura soilak estudiatzea, eta ez horren fenomenoak arrazoi goren batetik ausarkeriaz jariatzea. Gure kontzeptu motelen araberrako espresioa honako hau izango litzateke: guk mundua bururatu dugu, hori bere existentziaren eta bere barne-determinazioaren arabera arrazoi gorenetik baletor bezala, eta horrela guk alde batetik hari, munduari, dagokion izaera ezagutzen dugu, baina horren berbaitango kausaren izaera determinatzeko asmorik gabe, eta, bestalde, izaera horren funtsa (munduango arrazoi-formarena), kausa gorenak munduekin duen harremanean ipintzen dugu, horregatik uste izan gabe, aski dela mundua bere buruarentzat²⁵.

Honela desagertzen dira, itxuraz, teismoaren kontra dauden zailtasunak, baldin eta Humeren printzipioarekin, zeina baita arrazoiaren erabilera edozein esperientzia posibleren alorretik kanpora dogmatikoki ez eramatea, Humek batere ikusi ez zuen beste printzipio bat lotzen bada, alegia, edozein esperientzia posibleren eremua ez dela kontsideratu behar gure arrazoiaren begitan bere burua mugatzen duen gauza bat bezala.

Arrazoiaren kritikak ederki markatzen du hemen egiazko erdibidea, Humek borrokatu zuen dogmatismoaren, eta aitzitik hark jarri nahi zuen eszeptisismoaren artean; erdibide hau ez da beste erdibide batzuk bezalakoa, kontseilatzen baita hauek norberak determinatu behar dituela mekanikoki-edo (pixka bat batetik eta pixka bat bestetik hartuz), eta beraz ez baitute inorentzat hobekuntzarik irakasten, baina erdibide hori printzipioen arabera zehatz determinatzeko modukoa da.

LIX

Ohar honen hasieran, mugaren sinboloa erabili dut, arrazoia behar bezala usatzeari dagokionez, arrazoiak berak dauzkan mugapenak finkatzeko. Sentimen-munduk fenomenoak besterik ez du edukitzen, horiek ez baitira berbaitango gauzak; azkeneko hauek (noumenoak), berriz, onartu egin behar izaten ditu adimenak, eta onartu ere esperientziaren objektuak fenomeno soiltzat jotzen dituelako. Gure arrazoiari biak batera jasotzen dira eta orduan galdera sortzen da: nola jokatzen du arrazoiak, adimena bi alor horiei buruz mugatzeko? Sentimen-mundukoa den guztia besarkatzen duen esperientziak ez du mugatzen bere bururik: edozer baldintzapekotatik, beste baldintzapeko batera iristen da soilik. Hura mugatu behar duenak, erabat harengandik kanpoan behar du egon, eta haxe da adimen-izaki hutsen alorra. Baina hau espazio hutsa da guretzat, kontua adimen-izaki hauen izaera determinatzea den heinean; eta beraz, dogmatikoki determinatutako kontzeptuak begiztatzen badira, orduan ezin gara esperientzia posiblearen eremutik harago joan. Baina muga bera ere zerbait positiboa da, eta apartenitzen zaie, bai mugaren barruan dagoenari eta bai multzo jakin bat kanpotik inguratzen duen espazioari; muga bat, beraz, benetako ezagutza positibo bat da, eta arrazoiak horretan, muga horretarainoxe hedatuz bakarrik hartzen du parte, baina inola ere hortik aurrerago jo gabe, ba hantxe espazio huts bat aurkitzen du bere aurrean, eta hor formak pentsa ditzake gauzentzat, baina berbaitango gauzarik ez. Bestalde, berriz, esperientziaren eremua, esperientziarentzat erabat ezezaguna den zerbaiten bidez mugatzea, nolanahi ere arrazoiari egoera honetan sobra gelditzen zaion ezagutza bat da, ba izan ere hori ez da gelditzen sentimen-munduan itxita eta ez hortik kanpora fantasiaketan ere, osterba baizik, mugako ezagutza bati dagokion bezala, sentimen-mundutik kanpora dagoenak horren barruan jasota dagoenarekin duen erlazioa mugatzen da soilik.

Teologia naturala da giza adimenaren mugan aurkitzen den kontzeptu horietakoa, iaketa behartuta aurkitzen den izaki goren baten ideia (eta berebat, ikuspegi praktikoa batean, mundu intelligibile baten ideia) begiratzera, eta ez adimen-izaki soil horretaz, eta beraz sentimen-mundutik kanpora, zeozer determinatzeko, baizik eta soil-soilik sentimen-mundu horren barruan bere usaera propioa gidatzeko ahalik eta batasun (hala teoriko nola praktikoa) handienaren printzipioari jarraituz eta, xede horrekin, sentimen-mundu honek arrazoi autonomo batekin, konexio horien guztien kausa denarekin bezala, duen harremanaz baliatzeko, baina horregatik izaki bat asmatu gabe, osterba baizik, nola sentimen-mundutik kanpora derrigor zerbait aurkitu beharra dagoen arrazoi hutsak bakarrik pentsatzen duena, ba izaki hori, analogia soilez bada ere, modu horretara determinatzeko.

Beraz honela gelditzen da gure aurreko proposizioa, Kritika osoaren emaitza dena: "arrazoiak, bere apriorizko printzipio guztiekin ere, inoiz ez digu irakasten, esperientzia posible baten objektuak baino gehiago, eta hauetatik ere ezer ez, esperientzian bertan ezagut daitekeena baino gehiago"; baina mugapen honek ez du eragozten, arrazoiak esperientziaren muga objektiboraino eramane gaitzan, eta eramane ere zerbaiten erlazioaraino, zeina bera esperientziaren objektu izan gabe, esperientzia objektu guztien printzipio gorena izango baita; nahiz eta irakasten diguna ez den berbaitango ezertxo ere, eta bai soilik arrazoiaren usaera propioari buruzko zerbait, zeina baita osatua eta

helburu gorenera zuzendurik dagoena, esperientzia posiblearen alorrean. Hauxe da, ba, hemen arrazoizko modu batean espero izan daitekeen probetxu guztia, eta arrazoi dago horrekin ere pozik egoteko.

LX

Honela xehe-xehe azaldu dugu Metafisika, bere posibilitate subjektiboaren arabera, giza arrazoiaren prestasun naturalean benetan ematen den bezala, eta, hain zuzen ere, hori lantzeko helburu esentzialari dagokionez. Hala ere, nola bitartean aurkitu dugun, ezen gure arrazoiaren horrelako prestasun bat naturalki soilik erabiltzeak berak ere (nola eta arrazoiaren diziplina batek, zeina kritika zientifikoaren bidez bakarrik baita posible, frenatzen eta bere muga barruan mantentzen ez duen) katramilatu egiten duela prestasun hori konklusio dialektiko demasetan, hauek izaki zatizki irudipen hutsezkoak eta zatizki are elkarren kontraesanezkoak; eta gainera aurkitu dugu, Metafisika txorroxkerizalea alferra dela ezagutza sustatzeko, eta are horretarako kaltegarri ere bai; orduan beraz, ikertzea merezi duen problema bat geldituko da beti ere, alegia deskubritzea, ea zein diren gure arrazoiak kontzeptu transzendenteetarako daukan prestasunak bilatzen dituen helburu naturalak; zeren naturan aurkitzen den guztia, derrigor asmo onen baterako jarria izango zen bere jatorrian.

Egia esan, oso kontuz egin beharrekoa da honelako azterketa bat: eta aitortu ere egiten dut, nik honetaz esan dezakedana, naturaren lehen helburuei dagokien guztia den bezalaxe, konjetura hutsa dela, hauxe baino ez baitut zilegi kasu honetan; ba arazoa ez da judizio metafisikoen balio objektiboarena, eta bai horietarako dagoen prestasun naturalarena; hau, berriz, Metafisikaren sistematik kanpora dago, alegia Antropologian.

Idea transzendental guztiak biltzen ditudanean, zeintzuen multzoa baita arrazoi natural hutsaren problema berekia, honek behartzen baitu arrazoiaren naturaren gogoeta soila uztera, eta edozein esperientzia posibletatik harago joatera eta ahalegin horretan Metafisika deitzen den gauza hori (dela jakitea dela sofisma) taxutzera, orduan deskubritu uste dut, ezen prestasun natural honek bilatzen duena dela, gure kontzeptua esperientziaren kateetatik eta naturaren hautemapen soilaren mugapenetatik libratzea, eta libratu ere kontzeptu horrek bere aurrean eremu bat zabalik ikusteko moduan, zeinak eduki behar baititu adimen hutsarentzako objektuak bakarrik, sentsibilitateak inola ere eskuratu ezin ditzakeenak; eta baiki, ez gu horiekin espekulatiboki arduratzeko asmotan (ez baitugu lur sendorik aurkitzen oina jartzeko), ostera baizik, arren eta printzipio praktikoak gutxienez posible bezala onartuak izan daitezen, zeintzuek horrelako espaziorik aurkituko ez balute beren aurrean behar-beharrezkoak dituzten itxaronaldi eta itxaropen hauetarako, ezin lortu ahal izango bailukete unibertsalitate hau, nahiz eta arrazoiak ezinbestean behar izan berau bere helburu moralerako.

Beraz, hor aurkitzen dut nik, ezen ideia psikologikoak, nahiz eta nik horren bidez hain gutxi jakin giza arimaren izaera huts eta esperientziako edozein kontzeptu baino garaiagoa denaz, nahiko argi erakusten duela gutxienez azkeneko kontzeptu horien ez-askitasuna, eta horrela urrundu egiten nauela materialismotik, hau izaki ideia psikologiko bat, natura esplikatze balio ez duena eta gainera alderdi praktikoan arrazoiaren hertsatzen duena. Honela, ideia kosmologikoek begibistan jartzen digute, zeinen askiek diren natur ezagutza guztiak arrazoiaren bere asebehar legitimoetan askitzeko, eta beraz lagundu egiten digute naturalismotik aldentzen, zeinak natura aurkeztu nahi baitugu bere buruarentzat askia balitz bezala. Azkenik, nola edozein natur derrigortasun beti baldintzatua egoten den sentimen-munduan, ba beti aurre suposatzen du horrek gauza batzuk beste batzuen mendean egotea, eta nola baldintzatu gabeko derrigortasuna sentimen-mundukoa ez-bezalako beste kausa baten unitatean bilatu behar den, eta nola bestalde horren kausalitateak berak ere, hau natura besterik ez balitz, ezingo lukeen inola ere kontingentekiaren existentzia bere ondorio bezala esplikatu, ba

orduan arrazoia, ideia teologikoaren bidez, libratu egiten da fatalismotik, zeina natur derrigortasun itsu bat baita, bai naturak berak lehen printzipiorik gabe daukan kohesioan, eta bai printzipio horrexen kausalitatean, eta hala libertatez iharduten duen kausa baten kontzeptura eramaten gaitu eta, beraz, inteligentzia goren batengana. Beraz, ideia transzendentalek balio izaten dute, gu positiboki irakasteko ez bada ere, bai behintzat arrazoiaren eremua murrizten duten materialismoaren, naturalismoaren eta fatalismoaren ausarkeriazko afirmazioak baztertzeko, eta horrela ideia moralei, espekulazioaren alorretik kanpora, leku bat emateko; nire ustez, honexek esplikatuko luke, neurri batean, delako prestasun natural hura.

Espekulatibo hutsa den zientzia batek izan dezakeen probetxu praktikoa, zientzia horren mugetatik kanpora gelditzen da, eta eskolio bat bezala kontsidera daiteke, eta, eskolio guztiek bezala, ez du zientziaren beraren zatirik osatzen. Edozeinetara ere, erlazio hau filosofiaren muga barruan aurkitzen da gutxienez, batik bat arrazoi hutsaren iturrietatik edaten duen filosofia haren barruan, non Metafisikan arrazoiari ematen zaion usaera espekulatiboak moralean ematen zaion usaera praktikoarekin derrigorrezko batasuna eduki behar baitu. Horregatik arrazoi hutsaren dialektika itzuriezina, prestasun natural bezala kontsideratzen den Metafisika batean, merezi du esplikatua izan dadin, posible bada, ez ezabatu beharreko ilusio bezala bakarrik, baizik eta bere helburuz naturaren erakunde denez ere bai; nahiz eta zeregin hau, gehigarri gisa, Metafisikari berari zuzenbidez eskatzerik ez dagoen.

Bigarren eskolio gisa, baina hau Metafisikaren edukinarekin ahaidetasun handiagoko gauza bezala, Kritikan 647-668 bitarteko orrialdeetan agertzen diren arazoen soluzioa kontsideratu beharko litzateke. Ba han azaltzen dira arrazoi-printzipio batzuk, zeintzuk a priori determinatzen baitute naturaren ordena edo hobeto esan adimena, eta honek esperientziaren bidez bilatu behar ditu haren legeak. Badirudi konstitutiboak eta legegileak direla printzipio hauek esperientziari buruz, sortu ere arrazoi soiletik egiten baitira, eta hau ez dago, adimena bezala, esperientzia posiblearen printzipiotzat kontsideratzerik. Alabaina jakitea, ea adostasun horren oinarria den, natura bezala, berez fenomenoaren edo haren iturri den sentsibilitatearen mendean ez egotea, edo ostera natura sentsibilitateak adimenarekin duen harremanean aurkitzea, holaxe adimen-usaera unibertsalaren batasuna, erabateko esperientzia posible bat (sistema batean) egiten denean arrazoi honi bakarrik toka dakioke, adimena arrazoiarekin harremanean badago, eta beraz, esperientzia mediatuki arrazoiaren legegintzaren mendean baldin badago; hau jakitea oraindik aurrera ikertzen segitzeko moduko arazoa da arrazoiaren izaera ikertu nahi dutenentzat, baita Metafisikan horrek duen usaeratik kanpora ere, eta are printzipio unibertsalean ere, historia natural bat oro har sistemazki elaboratzeko; egia esan, neronek ere joan-etorri handikotzat aurkeztu dut arazo hau nire obran, baina gero ez naiz saiatu horri soluziorik ematen.²⁶

Honela amaitzen dut nik arazo nagusiaren soluzio analitikoa, izan ere neronek planteatutako arazoa baita, alegia: Nola da posible Metafisika oro har? Eta hasi Metafisika, gutxienez bere ondorioetan, benetan erabiltzen den hartatik eta horren posibilitatearen oinarrietarano igo naiz.

Prolegomenoetako arazo orokorraren soluzioa

Nola da posible Metafisika zientzia bezala?

Metafisika, arrazoiaren prestasun natural bezala erreal da, baina bera bakarrik (hirugarren oinarritzko arazoaren soluzio analitikoak erakutsi duenez) dialektikoa eta iruzurtia da. Eta, beraz, hortik printzipioak atera nahi izatea eta horien usaeran naturalak bezain faltsuak diren itxura batzuk segitzea, horrek berekin ekar dezakeena ez da inola ere zientzia eta bai soilik arte dialektiko harroputz bat, non eskola batek modua izango

baitu beste bat garaitzeko, baina inoiz ere ez arrezagutza legitimo eta iraunkorrik lortzeko.

Alabaina, Metafisikak zientzia bezala, persuasio iruzurti bat ezeze, ezagutza eta konbentzimendu bat emateko uzirik ere izango badu, orduan arrazoiaren beraren kritika batek egin behar duena da: apriorizko kontzeptuen pila guztia esplikatu, horiek iturri desberdinen arabera sailkatu, h. d., sentsibilibitatearen, adimenaren eta arrazoiaren arabera; gainera, kontzeptu horien guztien taula oso bat eratu eta guztien analisia egin, hortik ondorio daitekeen guztiarekin: baina gainera, eta batez ere, azaldu behar du, nola diren posible apriorizko ezagutza sintetikoak, kontzeptu horien dedukzioa dela medio, zein diren hauek erabiltzeko printzipioak eta, azkenik, zein diren erabilera horren mugak; hori dena sistema konplitu batean azaldu behar du. Beraz, Kritikak, berak bakarrik jasotzen du beragan plan osoa, ondo probatu eta kreditaturik, eta baita hori egikaritzeko baliabide guztiak ere, zeintzuen bidez Metafisika zientzia bezala gauza daitekeen; beste bide eta baliabide batzuekin ez da posible hori. Beraz, kontua ez da jakitea, nola den posible enpresa hau, eta bai areago nola jar daitekeen hori martxan, eta nola hainbeste buru-argi, orain arte lan aldrebes eta antzuetan aritu direnak, jarraraz daitezkeen lan seguru bat egiten eta horrelako batasun bat nola bidera daitekeen modurik egokienean, helburu komun batera.

Hau behintzat segurua da: behin Kritika dastatu duena behin betiko nazkatuko du hitzontzikeria dogmatikoak; lehen besterik ezean, horrekin konformatu behar izaten zuen, bere arrazoiak zerbait behar zuelako eta bere burua entretenitzeko beste ezer hoberik aurkitu ezin zuelako. Kritikak ohizko eskola-metafikarekin jokutzen du, Kimikak Alkimiarekin edo Astronomiak Astrologia iragarlearekin bezalaxe. Ziur nago ni, ezen, Kritikaren printzipioak hausnartu eta ulertu dituen, Prolegomeno hauetan soilik bada ere, ez dela gehiago sasizientzia zahar eta sofista haietara inoiz itzuliko; ostera baizik, halako poz batekin, hemendik aurrera bere eskumendean daukan Metafisika batean ipiniko duela bere begiratu; Metafisika batean, zeinak ez baitu prestamenezko deskubrimendurik behar, eta bera ere gauza baita lehenengo aldiz arrazoiari etengabeko askitasuna emateko. Hau, berriaz, abantaila bat da, zeinarekin ziurtasunez Metafisikak bakarrik konta baitezake zientzia posible guztien artean: alegia, perfekziora eta egoera egonkorra eramana izateko moduan dagoela, ba horrek ez dauka gehiago aldatzerik, eta handiagotu ere ezin daiteke egin deskubrimendu berrien medioz; ba hemen arrazoiak bere ezagutza-iturriak ez dauzka objektuetan edo bere intuizioan (hauek ez baitira gauza hari gehiago ezer irakasteko), eta bai bere baitan; eta bere ahalmenaren oinarritzko legeak interpretazio faltsu guztien kontra osoro eta determinatuki azaldu dituen, ez da ezertxo ere besterik gelditzen arrazoi hutsak a priori ezagutu lezakeenik, edota fundamentuz galdetu ere egin dezakeenik. Hain jakite determinatu eta itxi baten perspektiba seguruak tentagarri berezia izaten du berekin, baita probetxu oro bazter utzita ere (baina geroago hitz egingo dut honetaz ere).

Denbora bat izaten du edozein arte faltsuk eta edozein jakinduria hutsalek; azkenean bere kasa hondatzen da, eta horren landualdiaren punturik gorena justu horren suntsialdiarekin batera izaten da. Metafisikari dagokionez, momentu hori oraintxe dela, zerako egoerak frogatzen du, zeinetan erori baita Metafisika herri kulto guztietan, nahiz eta zientzia-modu guztiak zaletasun eder batekin lantzen diren une honetan. Unibertsitateko estudioen antolamendu zaharrak mantentzen du oraindik bere itzala eta Zientzien Akademia batek bakarrik sustatzen du, noizean behin sariak jarritz, Metafisikako entseuren bat egin dadin; baina oinarritzko zientzien artean ez da Metafisikarik jada kontatzen, eta norberak ere juzga dezake, nola talentu handiko gizon batek, "metafisikolari prestu"aren titulua eman nahi diotelarik, nola hartuko lukeen alabantza hori, onginahiez emandakoa bada ere inor gutxik desiratutakoa baita.

Baina Metafisika dogmatiko ororen beheraldia zalantzarik gabe iritsita badago ere, asko falta da oraindik esan ahal izateko, arrazoiaren kritika sakon eta osatu bat dela medio, ageri dela jada haren berpizkundearen garaia. Joera batetik kontrako joerara aldatzeak ez-axolatasunezko egoera batetik pasatu behar izaten du; une hau, berriz, kaltegarriena da autore batentzat, baina, nire ustez, probetxugarriena ere bai zientziarentzat. Izan ere, lehengo elkarteak erabat desagitearekin, partidu-izpiritua itzaltzen denean, bihotz-giroa orduantxe egoten da egoerarik ederrenean, poliki-poliki beste plan baten arabera egindako elkarte-proposamen berriei jaramon egiteko.

Nik esaten dudanean, Prolegomeno hauetatik espero dudala, ezen apika suspertu egingo dutela ikerketa kritikaren alorrean, eta filosofiaren espiritu orokorrari, iduri baitu alderdi espekulatiboan zer-jana falta zaiola, entretenigarri berri eta oso promeskoia eskainiko diotela, aldeztatik burura dezaket, ezen, nik Kritikan arantzazko bideetatik ibilarazi ditudan guztiek, gogo txarrez eta nazkaturik galdetuko didatela orain, ea zertan oinarritzen dudan nik itxaropen hori. Eta nik erantzungo diet, derrigortasunaren lege jarkiezinean oinarritzen dudala.

Espero izatea, ezen inoizko batean gizakiaren espirituak azterketa metafisikoak erabat baztertuko dituela, eta espero izatea, guk beti aire kutsatua ez arnasteagatik nahiago izango dugula arnas hartzea erabat utzi, biok dira horiek zein baino zein itxarongaitzagoak. Horregatik beti izango da munduan, eta areago dena, gizaki orotan, eta batik bat gogoetatileagan, Metafisika bat, zeina guztientzako patroia jakinik ezean, nork bere neurrira ebakiko duena. Nolanahi ere, orain arte Metafisika deitu izan den horrek ezin du frogatu bila dabilen bururik askitu; baina hori erabat baztertzea ere ezinezkoa da, bestalde; horregatik ezinbestekoa da, azkenik, arrazoi hutsaren beraren kritika bat egiten saiatzea, eta lehendik horrelakorik baldin badago, berau aztertzea, eta orokorki probatzea, bestela ez baita inolako modurik izango premia gorri hori asetzeko, jakinmin soilak baino zerbaite gehiago ere bada hori-eta.

Kritika ezagutzen dudanetik hona, Metafisikako edukina duen idazki bat irakurtzen dudanean, eta bertako kontzeptuen zehaztasunarekin eta azalpenaren barietate, ordena eta erraztasunarekin atsegindu ezeze aberastu ere egin naizenean, ezin izaten diot nire buruari eutsi galdera hau egin gabe: autore honek eraman al du Metafisika pauso bat aurrerago? Barkazio eskatzen diet gizon jakintsuei, ba hauen idazkiak beste ikuspegi batzuetatik probetxuzko izan baditut ere, eta beti lagundu badidate ere nire buru-ahalmenak lantzen, aitortu beharra daukat hala ere, ezen ez haien entseietan eta ez nire txikiagoetan aurkitu izan dudala (hauen alde hitz egiten badu ere nork bere buruari dion maitasunak), horien bidez zientziak ezertxo ere aurrera egin duenik; eta hau arrazoi simple bategatik: alegia, zientzia hori artean existitzen ez zelako, eta hori zatika-zatika osatu ere ezin daitekeelako, eta horren ernamuinak aurretiaz Kritikan osoro preformatua izan behar duelako. Hala ere, inolako sasi-interpretaziorik izan ez dadin, lehenago esan dena gogoratu behar da, alegia gure kontzeptuen trataera analitikoa, probetxu handikoa izan dela inondik ere adimenarentzat, baina hala ere horrek ez diola aurrerapen txikienik ere ekarri (Metafisikako) zientziari, ba kontzeptuen analisi hauek, beste ezer baino lehen, zientzigintzarako behar diren materialak baizik ez dira. Izan ere, nahiz eta substantzia eta akzidente kontzeptuak ederki batean analizatu eta determinatu, horrek etorkizunean egingo den nolabaiteko usaera baterako prestamen bezala balio du. Baina nik ezin badut demostratu, existentzia duen edozertan jarraitu egiten duela substantziak, eta akzidenteak bakarrik aldatzen direla, orduan analisi horiek guztiok gorabehera, zientziak ez du inolako aurrera-pausorik emango. Orain arte, berriz, Metafisikak ezin izan du demostratu a priori, baliozko moduan, ez proposizio hau eta ez askitasunezko arrazoiaren printzipiorik, gutxiago oraindik proposizio konplexuago bat, hala nola Psikologia edo Kosmologiako zerbaite, eta, oro har, orain arte ez du inolako proposizio

sintetikorik demostratu ahal izan; alegia, analisi hauekin denekin ez da ezertxo ere lortu, ez da ezer sortu eta ez da ezer aurreratu, eta zientzia, hainbeste burrunba eta zarataren ondoren, beti eta beti Aristotelesen garaian zegoen tokian bertan aurkitzen da, nahiz eta, ezagutza sintetikoetara daraman gida-haria aurkitu ere egin izan balitz, eztabaida gabe, askoz ere hobeak izango ziren zientzia horretarako prestaketak.

Esan hori dela-eta inor mindu baldin bada, aise asko desegin dezake berak akusazioa; nahikoa du horretarako Metafisikako proposizio sintetiko bakar bat aurkeztea, eta hura modu dogmatikoan a priori demostratzeko bere burua eskaintzea; hori lortzen baldin badu, orduan bakarrik aitortuko dut nik, benetan aurrera-pauso bat emanaerazi diola zientziari, nahiz eta bestalde proposizio hori guztion esperientziak behar adina egiaztatua egon. Ez dago hauxe baino eskakizun neurritsu eta arrazoizkoagorik, eta baldin kasuren batean (zalantzarik gabe, seguru) hori lortuko ez balitz, ez dago hauxe baino epaitz zuzenagorik ere, alegia: Metafisika zientzia bezala ez dela gaurdaino existitu.

Desafioa onartzen bada, bi gauza bakarrik debekatuko ditut: bat, egi-itxura eta konjeturak jokoan jartzea; Geometriarentzat bezain aldrebesak baitira horiek Metafisikarentzat; eta bi, hori erabakitzeke giza judizio sanoa delakoaren azti-makila erabiltzea, hori ez baita edozeinen eskutan egoten den gauza eta bai berekitasun pertsonalen arabera ibiltzen dena.

Izan ere, aurreneko puntuari dagokionez, ezin aurkituko litzateke gauza absurduagorik, Metafisika batean, hots arrazoi hutsaren filosofia batean, judizioak egia-itxuratan eta konjeturatan oinarritu nahi izatea baino. A priori ezagutu behar den guztia, apodiktikoki ziurtzat ematen da horrela, eta beraz horrelaxe behar da demostratu. Berebat litzateke posible Geometria edo Aritmetika bat konjeturatan oinarritu nahi izatea; ba Aritmetikaren calculus probabiliū-ari dagokionez, horrek edukitzen dituen judizioak ez dira izaten judizio probableak, eta bai erabateko ziurak kasu jakin batzuek, kondizio homogeno batzuetan, daukaten probabilitate-graduari buruz, zeintzuk, kasu posible guztien baturan, hutsik gabe gertatu behar baitute erregelaren arabera, nahiz eta hau behar hainbat determinaturik egon ez kasu partikular bakoitzari buruz. Natur zientzia enpirikoan bakarrik ameti daitezke konjeturak (indukzioari eta analogiari esker); baina orduan ere, baldintza batekin, ezen nik onartzen dudanaren posibilitatea izan dadila osoro ziurra.

Giza judizio sanora jotzeari dagokionez, berriz, agian, aldrebesagoa da oraindik hori, autuan kontzeptuak eta printzipioak daudenean, eta egon ere ez horiek esperientziari buruz baliozkoak izan behar dutelako, baizik eta hauek esperientziaren baldintzetatik kanpora ere baliozkotzat eman nahi direlako. Izan ere, zer da judizio sanoa? Adimen komuna, zuzen juzgatzen duen neurrian. Eta zer da adimen komuna? Ba erregelak ezagutu eta in concreto erabiltzeko ahalmena, baina ez da adimen espekulatiboa bezala, hau izaki erregelak in abstracto ezagutzeko ahalmen bat. Horregatik adimen komunak nekez ulertuko du zera dioen erregela, alegia, gertatzen den guztia bere kausak determinaturik dagoela, eta hola orokorrean esanda, berriz, ez du inoiz ulertuko. Horrek orduan, esperientziatik ateratako adibide bat eskatzen du, eta aditzen duenean, horrek ez duela ezer esan nahi berak beti uste izan duena besterik, adibidez leihoko kristal bat hautsi diotenean edo bere altzarietako bat desagertu zaionean, orduan ulertu egiten du printzipioa eta onartu egiten du. Adimen komuna, beraz, bere erregelak esperientzian konfirmatuta ikus ditzakeen neurrian bakarrik erabil daiteke (nahiz eta erregelak haren baitan a priori egon); horregatik erregela horiek a priori eta esperientziatik aparte ulertzea, hori adimen espekulatiboaren gauza da eta erabat adimen komunaren ikus-eremutik kanpora geratzen da. Metafisikaren autua, berriz, azkeneko ezagutza-modu hauek bakarrik dira eta inondik ere seinale txarra da judizio sano batentzat, hemen zer-

juzgaturik ez daukan garanti emaile batengana jotzea, zeinari gainerantzean sorbaldaren gainetik begirutzen baitzaio, nola eta bat larri ez dabilen eta bere espekulazioan nola jo ez dakiela.

Ohizko ihespide bat besterik ez da, giza zentzu komunaren sasi-adiskideek sarritan erabiltzen dutena (noiz edo behin goratzen badute ere, gehienetan mespreziatu egiten baitute), zera esatea: azken batean derrigor izan behar dute proposizioen batzuk, beste gabe ziurrak direnak, eta inolako froga-beharrik ez dutenak eta inon kontu eman beharrekoak ez direnak; ba bestela, horien judizioen arrazoiekin ez litzateke sekula bukatzerik egongo; baina eskubide hori frogatzeko ezin dute ezertxo ere ezbaigabekorik aurkeztu (kontraesanezko printzipioaz aparte, eta hau ez da aski judizio sintetikoaren egia frogatzeko) apriorizko proposizio matematikoak besterik, zeintzu inmediateki giza zentzu komunari egozteko modukoak diren. Adibidez: bi eta bi lau direla, bi punturen artean lerro zuzen bakarra dagoela, etab... Baina judizio hauek zerua lurretik bezain urruti daude Metafisikako judizioetatik. Ba Matematikan, nire pentsamenduaren bidez eraiki dezaket nik, kontzeptu mailan posibleztat jotzen dudana guztia: biko bati beste biko bat gehitzen diot segidan eta neronek eratzen dut lauko numeroa; edota nire buruan puntu batetik bestera edozein eratako lerroak marratzen ditut eta hala ere ezin dut lerro bat baino egin, bere zati guztietan (berdinetan eta desberdinetan) bere buruaren antzekoa dena. Baina nire pentsa-ahalmen guztiarekin ere ezin dut nik gauza baten kontzeptutik beste zerbaiten kontzepturik atera, honek bere existentzia aurrenekoarekin derrigor lotuta badauka, baizik eta esperientzia kontsultatu behar dut, eta nire adimenak horrelako lotura (kausalitatezko) baten kontzeptua a priori eskuratzen badit ere (esperientzia posible bati buruz soilik beti ere noski), hala ere ezin dut nik hori Matematikako kontzeptuak bezala a priori intuizioan errepresentatu, eta ondorioz ezin dut azaldu a priori horren posibilitaterik; baizik eta oster, kontzeptu horrek bere aplikazioko printzipioekin batera, beti behar du, a priori balio izateko -Metafisikan eskatzen den bezala- bere posibilitatearen justifikazio eta dedukzio bat, bestela ez baita jakiten zenbateraino balio duen horrek, edo esperientzian bakarrik erabiltzeko moduko ote den, ala hortik kanpora ere bai. Beraz, Metafisikan, hau arrazoi hutsaren zientzia espekulatibo bat denez, ez dago inoiz ere gizakiaren zentzu komunera jotzerik; baina egin daiteke hori Metafisika derrigor baztertu beharra dagoenean edo ezagutza espekulatibo oro, hauxe izan behar baitu edozein jakintzak, alde batera utzi beharra dagoenean, eta beraz Metafisika bera eta honen irakatsia ere baztertu beharra dagoenean (zenbait zirkunstantziatan), eta aurkitzen denean, ezen guretzat arrazoizko uste bat bakarrik dela posible, gure premiarentzat aski izango dena (eta apika osasungarriagoa ere bai jakintza bera baino). Ba orduan, erabat aldatzen da gauzaren tankera. Metafisikak zientzia behar du izan, ez bere osotasunean bakarrik, baita bere zatietan ere, bestela ez da ezer ere; zeren arrazoi hutsaren espekulazio denez, ezagutza unibertsalean bakarrik izaten du pausaleku. Baina hortik kanpora, egia-itxurak eta giza judizio sanoak, ederki batean aurki dezakete beren usaera probetxuzkoa eta legitimoa, baina bakoitzak bere-bereak dituen printzipio batzuen arabera, zeintzuen pisua izango baita beti horiek praktikarekin duten erlazioaren arabera.

Hona nire ustez, zer eska dezakedan eskubidez Metafisika zientzia bezala posible izan dadin.

ERANSKINA

Metafisika zientzia bezala eraikitzeke zer gerta daitekeen

Nola orain arte segitutako bide guztietatik batek ere ez duen helburu hau lortu, eta nola lortu ere egingo ez den aurretiaz arrazoi hutsaren kritika bat egin gabe, ez dirudi burugabea eskatzea, ezen zorrotz eta xehe-xehe proba dadila hemen azaltzen dudan entseiu hau, nola eta oraindik egokiagokotzat jotzen ez den metafisika-asmo guztiak erabat baztertzea; kasu honetan, asmoari leial eutsi nahi balitzaio behintzat, ez legoke ezertxo ere aurkatzerik. Batek gauzen martxa hartzen badu, berez doan bezala, eta ez joan beharko lukeen bezala, orduan bi judizio-modu daude: judizio bat azterketaren aurretik ematen dena, eta hauxe da gure kasuan irakurleak bere Metafisikatik ateraz, arrazoi hutsaren Kritikari buruz egiten duena (zeinak aurren-aurrena Metafisikaren ahalgarritasuna aztertu behar baitu); eta beste judizio bat azterketaren ondoren ematen dena; eta honetan, irakurleak bazterrean utz ditzake, aldi baterako, bere azterketa kritikoetatik atera dituen ondorioak, agian berak ordurarte onartuta zeukan Mekafisikaren kontra bortizki doazenak eta, beste ezer baino lehen, ondorio horientzat sorburu izan zitezkeen printzipioak probatzen ditu. Metafisika komunak azaltzen duena betaro ziurra balitz (Geometria bezala-edo), orduan balio izango luke aurreneko judizio-moduak; ba printzipio jakin batzuen ondorioak, ezarritako egien kontrakoak direnean, faltsuak izaten dira printzipio haiek, eta gehiagoko azterketarik gabe baztertu behar dira. Baina bestela gertatzen bada, alegia Metafisikak ez daukala eztabaidea zineko proposizio (sintetiko) ziurrez osatutako hornidurarik, eta agian horietako asko ere, itxuraz beren artean onenak diruditenak, elkarren kontra daudela beren ondorioetan, eta Metafisikan hertsiki metafisikoak (sintetikoak) diren proposizioentzat ez dagoela inolako egia-irizpide ziurrik aurkitzerik: orduan ez dago erabiltzerik lehenengo juzgatzeko modua, eta Kritikako printzipioen azterketa egin behar da horiek balio duten ala ez duten juzgatu baino lenen.

Azterketa baino lehen egin

beharreko kritikari buruzko judizio baten proba

Honelako judizio bat aurki daiteke, Göttingeneko Iragarki Zientifikoetan, 1782ko urtarrilaren 19ko Gehigarriaren hirugarren artikuluan, 40. or. eta hurrengoetan.

Autore bat, bere obraren gaia ondo ezagutzen duena, eta hori lantzekoan beti bere gogoeta propioak erabiltzen saiatu dena, kritiko baten eskutan erortzen bada, eta kritikoa bere aldetik nahiko burutxorrotxa baldin bada, antzemateko, non aurkitzen diren benetan obraren meritu eta demerituak, eta begiratu ere hitzei ez baina funtsari egiten badio, eta autorearen abiapuntu izan diren printzipioak bakarrik aztertzen eta probatzen ez baldin baditu, daitekeena da autoreari judizioaren zorrotzasuna desgustuko izatea, baina hori publikoari berdina zaio, irabazi egiten baitu hortan; eta autoreak bera ere pozik egon daiteke, aukera ematen zaiolako, aditu batek goiztarki probatutako idazlana zuzentzeko edo argitzeko; eta hala, uste baldin badu funtsean arrazoi duela, garaiz ken dezake oraindik behaztopa-harria, gerora bere idazlanari kalte egin liezaiokeena.

Ni neu erabat bestelako egoera batean aurkitzen naiz nire kritikoarekin. Badirudi honek ez duela inola ere ulertu, zein zen benetako arazoa, eskuartearen (arrakastarekin edo gabe) hartu dudana azterketa honetan; eta dela hedadura handiko obra bat hausnartzeko pazientziarik ez zeukalako, edo ustez aspalditik argi eta garbi zeukan zientzia bat zaharberritzeko amenazoak eragiten duen humore txarra zelako, edo (gogozkontra egiten dudana hipotesia) dela buruera murrizta daukalako, zeinagatik inoiz ere ez baita gauza izango eskolako Metafisika batetik harago pentsatzeko; labur esanda, korritzen du su eta gar proposizio-sail luze batean zehar, zeintzuetan ez baitago ezer pentsatzerik horien premisak ezagutzen ez badira, barreiatzen ditu han eta hemen bere gaitzespenak,

nahiz eta irakurleak ez gaitzespen hauen arrazoiak eta ez proposizioak ulertzen dituen, zeintzuen kontra horiek esanda dauden; eta beraz, ez publikoarentzat izan daiteke probetxuzko informazio bezala, eta ez niri egin diezadake inolako kalterik adituek nitaz daukaten iritzian; horregatik, ez-ikusi eginda pasatuko nuen nik judizio hau, zenbait kasutan Prolegomeno hauen irakurlea interpretazio okerrak egitetik babesten duten zenbait argitasun eskaintzeko aukera emango ez balit.

Baina kritikoak, obra osoa aurkezteko aukera emango dion ikuspuntu bat hartu asmoz, eta aurkeztu ere egilearentzat aldrebesena den ikuspegitik begiraturik, eta berak inola ere aparteko azterketarik egin beharrik gabe, honela hasten du eta honela bukatzen bere esana: "Obra hau idealismo transzendentearen (edo berak itzultzen duen moduan, goimailako idealismoaren) sistema bat da"²⁷.

Lerro hori ikusi bezain laster igarri nion nik zer-nolako kritika aterako zen hortik: honelako zerbait, alegia, Geometriako ezertaz inoiz deus entzun edo ikusi ez duen batek Euklidesen liburu bat aurkitu izan balu, eta jendeak eskatuko balio, eman dezala hartaz bere iritzia, eta hark orriak pasatzean, irudi asko ikusi eta honelatsu esango balu bezala: "liburu hau marrazten ikasteko metodo sistematiko bat da: autoreak hizkera berezi bat erabiltzen du, jarraipide ilun eta ulergaitzak emateko, zeintzuk azkenean ez baitute ezertxo ere lortzen, bakoitzak begi-kolpe natural batekin atzeman dezakeena baino gehiago, etab...".

Hala ere, ikus dezagun ba, zernolako idealismoa den nire idazlan guztian zehar dabilena, nahiz eta oraindik oso urruti dagoen sistemaren arima osatzeko.

Benetako idealista baten printzipioa, hasi eskola eleatikotik eta Berkeley gotzainarenganaino, formula honetan jaso dago: "Sentimen eta esperientziaren bidez lortzen den ezagutza oro itxura hutsa baizik ez da, eta adimen eta arrazoi hutsaren ideietan bakarrik aurkitzen da egia".

Nire idealismoa etengabe gobernatzen eta determinatzen duen printzipioa, berriz, da: "adimen hutsetik edo arrazoi hutsetik soilik datorren gauzen ezagutza oro itxura hutsa besterik ez da, eta esperientzian bakarrik aurkitzen da egia".

Hau, alabaina, justu-justu benetako idealismo delako horren kontrakoa da; nola lortu dut nik hitz hori erabiltzea erabat kontrako asmoarekin, eta nola lortu du kritikoak hori alde guztietan ikustea?

Zailtasun horren soluzioa nahi izan balitz, idazkiaren osotasunetik oso erraz hauteman zitekeen zerbait da. Espazioa eta denbora, horiek beren altzoan jasotzen duten guztiarekin, ez dira berbaitango gauza edo berbaitango gauzen berekitasunak, baizik eta soilik horien fenomenoetakoak dira; honaino kredo berekoak gara idealista horiek eta ni. Baizik ere horiek, eta horietan Berkeleyk batik bat, errepresentazio enpiriko soiltzat jotzen zutela espazioa, zeina guk, hori eta bertan ematen diren fenomenoak, beren determinazio guztiarekin, esperientzia edo hautemapenaren bidez bakarrik ezagutuko baikenituen; aitzitik nik aurrena erakusten dudana da: ezen guk espazioa (eta berebat denbora, Berkeleyk ez baitio honi kasorik egiten) bere determinazio guztiekin a priori ezagutu genezakeela, eta, ezagutu ere, bai hori eta bai denbora, edozein hautemapen edo esperientzia baino lehen, gure sentsibilitatearen forma huts bezala gudan presente aurkitzen direlako, eta horiexek egiten dutelako posible sentsibilitate horren edozein intuizio eta, ondorioz, edozein fenomeno ere bai. Hemendik segitzen da: ezen nola egia lege unibertsal eta derrigorrezkoetan oinarritzen den, bere irizpide bezala, Berkeleyren esperientziak ezin duela inolako egi irizpiderik eduki, horren fenomenoaren oinarrian (hark) apriorizko ezer jarri ez duelako; eta hortik segitzen da, itxura hutsa besterik ez dela; guretzat, ordea, espazioak eta denborak (adimen-kontzeptu hutsekin loturik) a priori ezartzen diote beren legea edozein esperientzia posibleri, eta lege horrek irizpide segurua ematen du, aldi berean, esperientzian egia eta itxura elkarrengandik

bereizteko²⁸, Bera, nirea oomen delako idealismo hori (benetan kritikoa), oso izaera bitxikoa da: alegia amilarazi egiten du idealismo arrunta, eta horren medioz, edozein a priorizko ezagutzak, baita Geometriakoak ere, aurreneko aldiz hartzen du errealtate objektiboa; hau, berriz, nik demostratu dudana espazio eta denboraren idealitate gabe, ezta errealista porrokatuenek ere ezin izango zuten aitortu. Gauzak honela egoki, gaizki-ulertzeak bazter uzteko, beste modu batera izendatuko nuke nik nire kontzeptu hau; baina erabat-erabat aldatzerik ere ez da egongo seguraski. Zilegi bekit, beraz, hemendik aurrera, lehenago egin dudana moduan, hori idealismo formal, edo oraindik hobeto, idealismo kritiko deitzea, Berkeleyren idealismo dogmatikotik eta Descartesen idealismo eszeptikotik bereizteko.

Kontuan hartzeko modukorik ez dut besterik ezer aurkitzen liburu honen kritikan. Kritika horren egileak en gros (handiaurkiro) juzgatzen du beti, zuhurtasunez aukeratutako jokaera da hori, ba horrela ez bere jakitea eta ez bere ez-jakitea salatzen du batek; "en détail" (xehe-xehe) egindako judizio bakar batek, bidezko denez, arazo nagusia atzeman izan balu, bistaratuko zuen agian nire okerra, baina behar bada azterketa-modu hauetan kritikoak daukan trebetasun-maila ere bai. Ez zen izan asmo txarrez pentsatutako azpikeria ere, liburuen ideia bat egiteko aldizkarietako berriak bakarrik irakurri ohi dituzten irakurleei, liburua irakurtzeko gogoak berandu baino lehen kentzeko, proposizio-sail luze bat aletzea, denak arnasaldi batean eta bata bestearen segidan, zeintzuk, beren argumentu eta esplikazioen testuingurutik erauzirik (batez ere Metafisika eskolastikotik hauek bezain antipodatakoak izanik), derrigor behar baitute burugabeko iruditu, eta horrela irakurlearen pazientzia nazka-nazka egin arte gogaitaraztea, eta gero, zerako proposizio artetsua niri jakinarazi ondoren, alegia itxura jarraitua egia dela, ondo-esan gogor eta halere aita-giroko honekin bukatzen du: zertara dator orokorki onartutako hizkeraren kontrako borroka hau? Zertara eta nondik dator bereizkuntza idealista hau? Azkenik, beraz, judizio honek, nire liburuak bere-berekia duen guztia, eta heresia metafisikotzat areago eman behar litzatekeena, hizkeraren berrikuntza soiltzat jotzen du, eta horrela argi eta garbi erakusten du, ezen nire epaile omen delakoak tutik ere ez duela ulertu liburua eta gainera bere burua ere ez duela ondo ulertu.²⁹

Bitartean kritiko honek hitz egiten du, goimailako ezagutza garrantzitsuak eduki uste dituen, baina oraindik gordeta dauzkan, gizon batek bezala; zeren Metafisikari dagokionez, azken bolada honetan ez da nire jakinera ezer heldu, horrelako tonua justifika dezakeenik. Baina horretan, oso gaizki egiten du munduari bere deskubrimenduak gordez; ba zalantzarik gabe, niri bezalaxe gertatzen zaie beste askori ere, alegia, aspaldidanik alor honetan idatzi diren gauza eder guztiak gorabehera, inola ere ezin aurkitu izan dutela, zientzia honek behatz batxo ere aurrera egin duenik. Gainerantzean, definizioak txorroxtu, proba herrenei makulu berriak jarri, Metafisikako centonari adabaki berriak edo ebakera berria eman, hori bai aurkitzen da idazki horietan, baina holakorik ez du munduak eskatzen. Mundua aseta dago afirmazio metafisikoekin; bilatzen dena da, zientzia honen posibilitatea, horri ziurtasuna eman diezaioketen iturriak eta irizpide seguruak, arrazoi hutsaren itxura dialektikoa egitatik bereizteko. Gure kritikoak badu inondik ere honen guztiaren gakoa, bestela ez zuen inoiz horrelako tonu altuan hitz egingo.

Baina nik susmoa daukat, susmoa, apika horrelako zientziaren beharrik ez zaiola sekula burura etorri, ba bestela, puntu honetara bilduko zuen bere kritikamen guztia, eta huts egindako ahalegin batek berak ere atentzioa deituko zion, honen joan-etorri handiko gorabehera batean. Hau hala bada, hona gu biok berriz ere adiskide. Nahi duen bezain sakon Metafisikan murgiltzea, hori ez dio inork galaraziko, baina Metafisikatik kanpora dagoen hartaz, arrazoian aurkitzen diren horren iturriez, hortaz bakarrik ezin du hark

juzgatu. Nire susmoa ez dela funts gabea frogatzeko, berriz, esango dut, kritikoak ez duela hitzik ere esaten apriorizko ezagutza sintetikoaren posibilitateaz, nahiz eta benetako arazoa berau izan, eta horri ematen zaion soluziotik erabat esekita egon Metafisikaren patua, eta neronen Kritika (eta Prolegomeno hauek) ere erabat-erabat hortxe zentraturik egon. Idealismoa, non erori baitzen eta zeinari atxikita geratu baitzen kritikoa, problema hau soluzionatzeko helpide bakartzat onartu zen sisteman (nahiz eta beste arrazoi batzuekin ere lortu zen hura konfirmatzeko modua); eta orduan behar zuen hark erakutsi, edota problema horrek ez daukala nik (Prolegomeno hauetan ere) ematen diodan garrantzirik, edota bestela hori ez dagoela inola ere soluzionatzerik nire fenomenoaren kontzeptuarekin, edota hobeto soluziona daitekeela beste modu batera; baina honetaz guztiaz ez dut hitzik ere aurkitzen nik kritikan. Beraz, kritikoak ez du tutik ulertu nire idazkia, eta apika Metafisikaren beraren espiritua eta izaera ere ez; baina beste hau ere izan daiteke -eta hau pentsatu nahi dut nik batik bat-, alegia, kritikoaren zalapartak, hainbeste traba gainditu beharraren zailtasunak ernegaturik, desfaborezko itzal bat bota zuela aurrean zeukan obraren gain, eta horrek ezin antzemateko moduan utzi zizkiola obraren elementu nagusiak.

Asko ere asko falta da oraindik, egunkari zientifiko batek, bere lankideak denik eta arreta handienarekin aukeratzen dituela ere, gainerantzean ondo merezia daukan ospea, besteetan bezala, Metafisikaren eremuan ere manten dezan. Beste zientzia eta ezagutzek beren arauak izaten dituzte, Matematikak bere baitan izaten ditu bereak; Historiak eta Teologiak, liburu profano edo santuetan aurkitzen dituzte; Natur Zientziak eta Farmakologiak, Matematikan eta esperientzian; Jurisprudentziak, kodeetan; eta are gustu-gauzek, antzinakoen ereduaren. Metafisika deritzan zera hau juzgatzeko, berriz, araua bilatu behar da aurrena (eta nik ahalegin bat egin dut, bai hori eta bai horren usaera determinatzeko). Eta zer egin behar da hori aurkitzen ez den bitartean, eta hala ere honelako idazkiei buruz judizioa eman behar denean? Idazki hauek dogmatikoak badira, orduan nahi dena egin daiteke: gai honetan inor ez da luzaro maisu bezala besteen gainetik oilartuko, ordaina emango dion besteren bat berandu baino lehen etorri gabe. Idazki hauek, ordea, kritikoak badira, eta kritikoak ere ez beste idazlan batzuei buruz, baizik eta arrazoiari berari dagokionez, eta halako eran ze juzgatzeko arau-neurria ez baitago oraindik onartzerik, eta aurrena bilatu egin behar baita, orduan ez dago debekatua erreparatu jartzea eta agiraka egitea, baina beti ere elkar aditzeko gogoia behar da oinarrian eduki, premia guztiona baita, eta gaia behar hainbat ez ezagutzeak onartu ezinekoa egiten du epaile erabakitzaile baten autoritatea.

Baina nire defentsa hau aldi berean komunitate filosofatzailearen interesekin lotzeko, proba bat proposatuko dut, erabakiorra dena, azterketa metafisiko guztiak beren helburu komunera nola eraman behar diren jakiteko. Matematikariek, lehiaketa batean, beren metodoen nagusitasuna erabakitzeke erabiltzen duten metodoa besterik ez da, h. d.: nire kritikoari eskatzen zaio, demostra dezala, bere modura, baina behar den bezala eta apriorizko printzipioekin, proposizio bat, edozein, bere ustez benetan metafisikoa dena, h. d., sintetikoa eta printzipioetatik a priori ezagututakoa dena; nolana ere, demostra dezala ezinbestekoenetako bat, adib., substantziaren iraunkortasunaren printzipioa, edo munduko gorabeherak beren kausetatik jasotzen duten derrigorrezko determinazioa. Hori egiteko gauza ez baldin bada (isiltzea ematea da), orduan aitortu beharra dauka: ezen, nola Metafisika ezertxo ere ez den horrelako proposizioen ziurtasun apodiktikorik gabe, ziurtasun horren ahalatasuna edo ezintasuna arrazoi hutsaren kritika batean ezarri behar dela estreina; eta, beraz, behartuta gelditzen da, aitortzera, nire kritikako printzipioak zuzenak direla, edo bestela horien baliorik eza frogatzera. Ikusten baitut, ordea, aldeztu aurretik, ezen orain arte hain lasai bere printzipioen ziurtasunean fidatu bada ere, orain, proba zorrotza datorkion honetan, ezin izango duela Metafisika osoaren

alorrean, printzipio bakarrik ere aurkitu, bere burua harro-harro aurkezteko modua emango dionik; beraz, lehiaketa batean jaso daitekeen baldintzarik abantailatsuena emango diot, eta kendu egingo diot onus probandi-a, neronen gain hartzeko.

Izan ere, hark, zortzi proposizio aurkitzen ditu Prolegomeno hauetan, eta nire Kritikan, 426-461 orr.etan, binaka elkarren kontra daudenak, eta hala ere, horietako bakoitza derrigor metafisikoa omen da, alegia, kritikoak errefutatu edo onartu egin behar duen horietakoa (nahiz eta proposizio horien artean bakarrik ere ez dagoen, filosofoen batek bere garaian onartutakoa ez denik). Horra ba, kritikoak libertatea dauka, zortzi proposizio horietatik bere gustukoena aukeratzeko eta hori inolako frogarik gabe onartzeko; frogarena erregalu egin diot; baina bat bakarrik aukeratu behar du (ba denbora alferrikaltzea niretzat bezain kaltegarria da harentzat ere), eta gero nire antitesi-frogari ekin. Baina nik froga hori ere salba badezaket eta horrela frogatu, ezen, edozein Metafisika dogmatikok derrigor onartu behar dituen printzipioen arabera, kritikoak beretzakotu duen printzipioaren kontrakoa ere berdin-berdin demostra daitekeela, garbi geldituko da orduan, ezen Metafisika herentziazko akats batek jota dagoela, eta hori ezin dela esplikatu, eta nekezago oraindik ezabatu, nola eta bat horren sorlekuraino, h. d., arrazoi hutseraino bertaraino joaten ez den; eta hala, edo onartu egin behar da nire kritika, edo horren lekuan beste bat hobe jarri; nolanahi ere, gutxienez, estudiatu egin behar da; eta hauxe besterik ez da nik orain eskatzen dudana. Baina demagun, ezin dudala salbatu nire demostrazioa, orduan apriorizko proposizio sintetiko bat printzipio dogmatikoetatik ateratzea nire kontrarioaren alde egongo litzateke, eta bidegabea izango litzateke nik Metafisika arruntari egindako hobendapena; eta nik konpromisua hartuko nuke, horrek nire kritikaren kontra eman duen judizioa zuzentzat aitortzeko (nahiz eta honek urrutitik ere ez lukeen horren ondorio izan behar). Baina horretarako, nire ustez, atera egin beharko luke bere incognito-tik, bestela ezin baitut ikusi nola itzur daitekeen, nik, problema bat soluzionatu beharrean, nire burua izengabeko eta gainera gaitasun gabeko kontrarioen zenbait problemekin ohoraturik edo erasota ikustea.

Proposamena

Aurrena kritika aztertu eta gero izango da hura

juzgatzeko modua

Eskerrona zor diot berebat jakintsu-jendeari, nire kritikaren ohoretan, aldi batean gorde duen isiltasunagatik; ba horrek erakusten du, geroagoko uzten dela judizioa, eta beraz sumatu egiten dela, ezen honelako obra batean, non ohizko bide guztiak bazterrerara uzten baitira eta bide berriak proposatzen, eta non batek bere burua ezin baitu berehalatik aurkitu, agian egon daitekeela zerbait, giza ezagutzaren adar garrantzitsu baina orain hilda dagoen bati bizi berria eta emankortasuna itzuliko liokeena; isiltasun horrek, beraz, zuhertasuna erakusten du, oraindik samurra dagoen txertoa judizio zalapartatsu bategatik ez puskatzeko eta ez hondatzeko. Arrazoi hauengatik geroagoko utzitako judizio honen proba bat oraintxe datorkit begien aurrera Gothako Egunkari zientifiko batean: edozein irakurlek berez hauteman dezake judizio horren sakontasuna (kasu honetan susmo txarrekoa den nire alabantza kontuan hartu gabe) nire obraren aurreneko printzipioetako pasarte bat garbi eta faltsotu gabe aurkezturik ikustean.

Hona, ba, nire proposamena: iaketa eraikin handi bat ezin den bere osotasunean juzgatu, kolpe batean, gutxi gorabeherako kalkulu axaleko bat eginez bakarrik, nik proposatzen dut, azter dadila hori zatika-zatika, zimenduetatik hasita, eta horretarako erabil ditzatela Prolegomeno hauek laburpen orokor baten antzera, zeinarekin tarteka obra bera konpara bailiteke. Eskaera hau, nire irudimenak ematen dion garrantzia beste fundamenturik gabea balitz ere, hori handiusteak norberaren obrei ohiki ematen diena izaki, apaltasun gabea izango litzateke, eta, haserre, zokoa uztea mereziko luke. Baina kontua ez da hori: gaur egun filosofia espekulatibo guztiaren gauzak erabat lur jotzeko zorian daude, nahiz eta arrazoiak itzalezineko zaletasunez filosofia horri lotzen zaion; orain, zaletasun hori, etengabe iruzur egiten zaiolako, indiferentzia bihurtu nahi da, baina alferrik.

Gure garai pentsatzaile honetan, ez dago bururatu ere egiterik, merituzko gizon askok ez dutela edozein aukera aprobeztatu, gero eta argitasun handiagoa doan arrazoiaren interes komunaren alde lan egiteko, horrela helburua lortzeko itxaropenen bat ikusten bada behintzat. Matematikak, Natur Zientziak, Legeak, Artederrek, eta Moralak berak ere nekez asetzen dute espiritua erabat; beti gelditzen da tarteren bat arrazoi huts eta espekulatiboarentzat bakarrik markaturik dagoena; hutsune horrek bilarazten digu imintzio eta jolasetan, edota fantasietan beretan ere, itxuraz zeregin eta entretenimendu dirudiena, baina funtsean, arrazoiaren dei gogaikarria isilarazteko dibertimendua besterik ez dena; ba horrek bere determinazioaren arabera eskatzen duena, askitasuna berez ematen duen zerbait da, eta ez beste asmo batzuekin, edo joeren interesean, bakarrik ihardunean jartzen den zerbait. Horregatik, berez independentea den arrazoiaren alor honekin soilik arduratzen den gogoeta batek erakarmen handia izaten du bere kontzeptuak honela zabaltzen saiatzen den edozeinentzat, ba hain zuzen ere alor horretantxe elkartu behar dute beste ezagutza eta helburu guztiek eta osotasun batean bildu behar dute, nik arrazoiz uste dudana bezala; eta oraindik esango nuke, erakarmen handiagoa ere baduela horrek beste edozein jakintza teorikok baino, zeina nekez trukatuko bailuke batek hargatik.

Horregatik proposatu ditut nik Prolegomeno hauek, eta ez obra bera, azterketaren plano eta gida-haritzat; ba ni oso pozik banago ere obra horrekin, edukin, ordena eta metodoari dagokionez, eta proposizio bakoitza, aurkeztu baino lehen, kontuz-kontuz aztatu eta aztertu delako (izan ere batzuetan urteak behar izan baititut erabat askietsita gelditzeko, ez lan osoari buruz bakarrik, baizik eta batzuetan proposizio bakar baten iturriei buruz ere bai); hala ere, ez nago erabat gustura teoria elementalaren zenbait atalburutan, adib., adimen-kontzeptuen dedukzioari buruzkoan, eta arrazoi hutsaren paralogismoari buruzkoan, ba hedadura luzeegiak argitasuna kendu dio azalpenari, eta,

beraz, atalburu horiei dagokienez, Prolegomeno hauetan esaten dena har daiteke azterketaren oinarritzat.

Fama dute alemanek, ezen, ahalegina eta saiatzeko jarraitua behar den tokian, beste herriak baino aurrerago iristeko gauza direla. Iritzi hori oinarritua baldin badago, hona hemen aukera ederra eginkizun bat burutzeko, zalantzarik gabe bukaera ona izango duena eta gizaki pentsatzaille guztiek interes berdinarekin begiratzen dutena, baina orain arte lortu gabe dagoena; horra berebat aukera, aipatu fama on hori frogatzeko ere; ba izan ere, autuko zientzia hau hain da berezia, ze kolpe batean lortu baitezake perfekzio osoa eta erabateko egoera egonkorra, nondik ez baitu gehiago aurreratuko, eta geroagoko deskubrimenduek ere ez baitute ez handiagotuko eta ez aldatuko (nik ez daukat hemen, argitasun handiagoa lortzearen, behin eta berriz emandako esplikaziorik edo zernahi asmo lortzeko erabiltzen den gehigarritzko probetxurik) honelako abantailarik ez dauka beste inolako zientziak eta eduki ere ezin du, ba horietako inork ere ez dauka autugaitzat ezagumen bat, hain erabat isolatua, besteetatik independentea eta besteekin nahastu ezinekoa denik. Bestalde, presenteko une hau ere ez dirudi desegokia denik honelako proposamen bat egiteko, ba oraintxe Alemanian, batek ia ez daki zertan enplegatu bere burua, probetxuzko zientziak omen direlako horietan izan ezik, baldin eta, jolasean bakarrik ibili gabe, aldi berean helburu iraunkorra duen iharduera batean aritu nahi badu.

Helburu hori lortzeko jakintsuen ahaleginak nola bateratu behar diren eta horretarako baliabideak nola bildu, hori beste batzuei utziko diet. Hala ere, nire asmoa ez da inori nire tesiak, besterik gabe, jarraitzeko eskatzea, ezta nire buruari horren itxaropenarekin losintxa egitea ere, baina gertatu ohi denez, posible da erasoak, errepikak eta mugapenak etortzea edota konfirmazioa, osagarria eta hedapena etortzea ere bai; baina aski da arazoa azpi-azpitik aztertzea eta ezinbestean sortuko da doktrinazko eraikin bat, nirea ez bada ere, ondorengoentzat legatu bat izango dena eta eskerroneko izateko arrazoiak emango diena.

Urrutiei eramango gintuzke hemen erakusteak, zer-nolako Metafisika espero izan daitekeen, beste ezer baino lehen kritikaren printzipioak zuzen jarraituko balira eta horren ondorioz, nola Metafisika hori ez litzatekeen inola ere aurkituko onbehar eta figura sapats bat izatera murrizturik, luma faltsuak kendu zaizkiolako, baizik eta aitzitik, aberats eta itxuroso agertzeko moduan izango litzatekeela beste xede baterako; baina berehala bistaraten dira, horrelako erreforma batek berekin ekarriko lituzkeen abantaila handiak ere. Metafisika arrunta bera ere probetxuzkoa zen, adimen hutsaren kontzeptu elementalak bilatzen baitzituen, hauek analisisidez esplikatu eta definizio bidez determinatzeko. Honela arrazoiarentzako kultura bilakatu zen Metafisika, eta ondo egingo luke arrazoiak gero ere horra joko balu; hauxe izan zen hain zuzen ere, Metafisikak egin zuen gauza on bakarra. Ba atzera, berriro alferrikaldu zuen bere meritu hau, su ematen zionean harropuzkeriari afirmazio ausartekin, sofistakeriari iheskeria eta aitzakia sotilekin eta axalkeriari arazo korapilotsuenetatik eskolastika piska batekin airoso ateratzeko erabiltzen zuen arintasunarekin; axalkeria hori, berriz, liluragarriagoa da oraindik, aukera baitauka pixka bat zientziaren hizkeratik eta beste pixka bat popularitatetik hartzeko, eta hala, denentzat dena izatekoa zena, horra benetan ezer ez alde guztietan. Ostera, ordea, kritikarekin arau bat jartzen zaio gure judizioari, zeinaren bidez ziur bereiz baitaiteke benetako zientzia sasi-zientziatik; eta kritika horrek, Metafisikan betaro erabiltzen delarik, pentsamolde bat finkatzen du, gero bere eragin mesedegarria arrazoi-usaera guztietara hedatzen duena eta benetako espiritu filosofikoa aurreneko aldiz hats ematen duena. Baina ez da gutxitan iriztekoa kritikak Teologiari egiten dion mesedea, hori espekulazio dogmatikoaren judiziotik independente eginez eta, batik bat horrexegatik, horrelako etsaien eraso guztietatik erabat babestuz. Ba

Metafisika arruntak, laguntza handia agindu bazion ere, ezin izan ion gero promesa hori bete, eta dogmatika espekulatiboa hari laguntzera deitu zuelako, etsaiak haren kontra armatzea besterik ez zuen lortu. Fantasikeria hau, berriz, garai ilustratu batean ezin baita joritu, eskola-metafisika baten atzean ezkutaturik ez bada, eta horren babesarekin bakarrik ausart baitaiteke, nolabait ere, arrazoiarekin eldarniatzera, filosofia kritikoak uxatu egin du bere azkeneko gordeleku horretatik; eta hala ere, honen guztiaren gainetik, joan-etorri handikoa da Metafisika-irakasle batentzat, guztien adostasunarekin egunen batean esan ahal izatea, berak irakasten duena ere zientzia bat dela azkenean, eta horrekin benetako mesedea egiten zaiola komunitateari.

Oharrak

¹ Rusticus expectat, dum defluat amnis: at ille labitur et labetur in omne volubilis aevum (Horat.) ("Nekazaria zain dago, errekaen isuria noiz bukatuko; baina hori jira eta buelta, beti doa korri eta korri". Itzultzailearen itzulpena).

² Hala ere, filosofia hondatzaile hauxe bera ere metafisika deitzen zuen Humek, eta balio handia ematen zion. Hark dioenez, "Metafisika eta moralak dira zientziaren adarrik garrantzitsuenak; matematikak eta natur zientziek ez dute horren erdirik ere balio" (Entseiuak, 4. parteak, itzulpen alemanaren 214. or.). Gizon buruargi honek, ordea, arrazoi espekulatiboaren gehiegizko pretentsioen murrizteak izango zuen probetxu negatiboa besterik ez zuen hemen ikusi, alegia gizadia burunahasten duten hainbeste eztabaida azkengabe eta gogaikarriei behingoz azkena jartzearena; baina horrekin kalte positiboa galdu zuen bistatik, zeina gertatzen baita arrazoiari bere ikuspegi garrantzitsuenak kentzen zaizkionean, ba horien arabera bakarrik ezarri ahal izango dio arrazoiak borondateari bere ahalegin guztien helburu gorena.

³ Vaihinger-Sitzler-en hipotesiaren arabera, 4. paragrafoko 2 eta 6 bitarteko zatia paragrafo honen bukaerakoak dira.

⁴ Ezinbestekoa da, ezagutza aurrera eta aurrera doan neurrian, klasikoak egin diren zenbait espresio, eta zientziaren haurtzarotik bertatik datozenak, geroztik ez aski eta desagokizat ematea, eta usaera berri eta egokiago bat usaera zaharrarekin nahasteko arriskuan egotea. Metodo analitikoa, sintetikoaren kontrakoa denez, ez da inola ere proposizio analitikoaren multzo bat; esan nahi du bakarrik, bilatzen den hartatik abiatzen dela bat, emanda balego bezala, eta hori zein baldintzatan soilik posible den, haietara inoiz igotzen dela. Irakaskuntza-modu honetan, proposizio sintetikoak besterik ez da erabiltzen askotan, analisi matematikoa horren adibide, eta hobe litzateke honi metodo erregresibo deitzea, metodo sintetiko edo progresibotik bereizteko. Analitiko izen hau logikaren atal nagusi bat bezala ere agertzen da eta, kasu horretan, egiaren logika da, eta dialektikari kontrajartzen zaio, bereziki begiratu gabe, hari dagozkion ezagutzak analitikoak ala sintetikoak diren.

⁵ Ikus Kritika, 713. or.

⁶ Gustura aitortzen dut, ezen adibide hauetan aurkeztzen diren hautemapen-judizioak ez direla inoizkoren batean, adimen-kontzepturen bat gehituko balitzaie, esperientzi judizio ere izan litezkeenak; zeren horiek sentimendua bakarrik begiztatzen dute, eta sentimendua subjektibo hutsa baino ez da edozeinentzat, horregatik hori ez dago objektuari inola ere egozterik, eta ondorioz haiek ezin daitezke inoiz ere objektibo egin. Oraingoz adibide bat baino ez nuen eman nahi, balio subjektibo soila duen judizio batena, berez ez baitauka inolako arrazoirik derrigor balio unibertsalekoa izateko eta, ondorioz, objektuarekin erlazionaturik egoteko. Hurrengo oharrean emango da hautemapen-judizioen adibide bat, horiei adimen-kontzeptua gehituz gero, esperientzi judizio bihurturik gelditzen baitira.

⁷ Errazago ulertzeko moduko adibide bat edukitzearen, honako hau aukeratuko dugu: eguzkiak harria argitzen duenean, berotu egiten da harria. Judizio hau hautemapen-judizio bat baizik ez da, ez dauka inolako derrigortasunik, nahiz eta fenomeno hori nik neronek eta beste askok ere askotan hautemandakoa izan; hautemapenak ohituraz bakarrik aurkitzen dira hemen elkarrekin lotuta. Nik esaten badut, ordea: eguzkiak berotu egiten du harria, orduan hautemapenari kausaren adimen-kontzeptua gaineratzen zaio, eta honek derrigor lotzen du beroaren kontzeptua eguzki-argitasunaren kontzeptuarekin; judizio sintetikoa balio unibertsaleko egiten da derrigor eta, ondorioz, objektibo eta hautemapen zena esperientzia bihurtzen da.

⁸ Nahiago nuke honela deitu Logikan particularia deitzen diren judizioak. Ba azkeneko deitura honek bere baitan darama ja, horiek unibertsalak ez direlako pentsamendua. Baina ni (judizio singularretan) batasunetik abiatuz guztitasunera bideratzen baldin banaiz, oraindik ezin diot nik erlaziorik gehitu guztitasunari: pluraltasuna pentsatzen dut soilik, guztitasunik gabe, ez guztitasunaren eskusiorik. Bereizkuntza hau, berriaz, beharrezkoa da, momentu logikoak adimen-kontzeptu hutsen oinarritzat jarri nahi badira; Logikako erabileran utz daiteke lehengo izena.

⁹ Baina nola adosten dira tesi hau, alegia, esperientzi judizioek hautemapenen sintesian jaso behar dutela derrigortasuna, eta nik gorago hainbat bider errepikatu dudanez beste tesia, alegia, esperientziak, a posteriori-ko ezagutza denez, judizio kontingenteak bakarrik eman ditzakeela? Nik esaten badut, esperientziak zeozar irakasten didala, esperientzian jasota dagoen hautemapena esan nahi dut nik, adibidez eguzkiak harria argitu eta ondoren berotu egiten dela harria, eta hala, esperientziazko proposizioa kontingentea dela beti eta beti. Berotze hau derrigor eguzkiak argitzetik segitzen dela, hori, esperientzi judizioan jasota dago (kausa-kontzeptuaren medioz), baina hori ez dut nik esperientziaz ikasten, baizik eta alderantziz, adimen-kontzeptua (kausa) hautemapenari gehituz sortzen da batipat esperientzia. Hautemapenak gehikuntza hori nola lortzen duen, horretaz Kritika ikusi behar da, juzgamen transzendentalari buruzko atalean 137. or. eta hurr.etan.

¹⁰ Bata bestearen segidan doazen hiru paragrafo hauek nekez ulertuko dira behar bezala, eskura edukitzen ez bada Kritika-k printzipioei buruz dioena; hala ere balio dezakete horiek beren multzoan aiseago atzemateko eta momentu nagusiei buruz adi egoteko.

¹¹ Beroa, argia etab. espazio txiki batean (graduz) handi batean bezain handiak dira; era berean, barne-errepresentazioak, oinazea, kontzientzia orokorra ere ez dira txikiagoak izaten, graduz, luzaro edo laburkiro irautean dutelako. Hortaz, hemen, berdina da tamaina puntu batean eta momentu batean nola izan baitaiteke beste nahi adina handiko espazio eta denboratan. Beraz, graduak tamaina dira, baina ez intuizioan, baizik sententzio soilaren arabera; edota berebat intuizio baten kausaren tamaina dira, eta 1 eta 0-ren arteko erlazioaren arabera bakarrik hauteman daitezke tamaina gisa, h. d. horietako bakoitza azkengabeko tarte-mailatan zehar desagertzearaino txiki daitekeelako eta zerotik azkengabeko hazte-momentutan zehar sententzio jakin bateraino, denbora jakin batean, hazi daitekeelako (*Quantitas qualitatis est gradus*) ["kualitatearen kantitatea da gradua", itzultzailearen itzulpena].

¹² Ez mundu intelektual batean (jeneralean esan ohi den bezala). Ba intelektualak izaten dira, adimenaren bidez egindako ezagutzak, eta horrelako gauzak ere badoazkio gure sentimen-munduari; intelligibile, aldiz, deitzen dira objektuak, adimen soilaren bidez errepresenta daitezkeenean, eta gure sentimenezko intuizioetako batek ere begizta ezin ditzakeenean. Baina nola edozein objekturi intuizio posible batek erantzun behar dion, hala, adimen bat pentsatu beharra legoke, gauzak inmediateki begietsiko lituzkeena; baina horrelako adimenaren kontzepturik, ezta txikienik ere ez daukagu, eta beraz adimen horrek begiztatu beharko lituzkeen adimen-izakienik ere ez.

¹³ Cruisius-ek bakarrik zekien erdibideko bat: alegia, ez bera engainatu eta ez besteak engaina ditzakeen espiritu batek landatu omen dizkigu hasiera-hasieratik natur legeak. Baina nola sarritan printzipio iruzurtiak ere tartean sartzen diren, honetaz adibideak, eta ez gutxi ere, ematen ditu gizon honen sistemak, badirudi ez dela biziro egokia honelako printzipioak erabiltzea, iturri jatorra eta faltsua bereizteko irizpide segururik ez dagoen bitartean; ba inoiz ere ez dago seguru jakiterik, zer inspiratu nahi izan digun egiaren espirituak edo gezurraren aitak.

14 1) Substantia, 2) Qualitas, 3) Quantitas, 4) Relatio, 5) Actio, 6) Passio, 7) Quando, 8) Ubi, 9) Situs, 10) Habitus (Substantzia, kualitatea, kantitatea, erlazioa, akzioa, pasioa, noiz, non, posizioa, egoera).

15 Oppositum, prius, simul, motus, habere (kontrakoa, lehen, aldi berean, mugimendua, eduki).

16 Proposatutako kategorien taula bati buruz, era guztietako ohar egokiak egin daitezke, adibidez: 1) hirugarren kategoria aurrenekoa eta bigarrena kontzeptu batean biltzetik ateratzen da; 2) Tamainaren eta Batasunaren kategorietan Batasunetik Guztitasunera eta Zerbaitetik Ezerezero bakarrik egiten da aurrerapenik (honetarako honela antolatu behar dira kualitatearen kategoriak: Errealitatea, Murrizpena, erabateko Negazioa) Correlata edo Opposita gabe; aitzitik Erlazioaren eta Modalitatearen kategoriak berekin eramaten ditu azkeneko horiek; 3) Logikan judizio kategorikoak beste guztien oinarri diren moduan, substantziaren kategoria ere horrelaxe da gauza erreal guztien kontzeptuentzat; 4) judizioetan Modalitatea inolako predikatu berezirik ez den bezala, horrela kontzeptu modalek ere ez diete gauzei inolako determinaziorik gehitzen, etab.; honelako gogoetek probetxu handia izaten dute. Gainera predicabilia guztiak kontatzen baldin badira, edozein ontologia onetatik ia osoro atera daitezkeenak (Baumgartenenetik, adib.), eta horrela sailka ordenatzen badira kategorien azpian, non ez baita ahaztu behar kontzeptu hauen guztien analisi bat, ahal bezain akabatua, egitea, orduan metafisikaren zati analitiko soil bat jaioko da, oraindik inolako proposizio sintetikorik ez daukana, eta bigarrenaren (sintetikoaren) aurretik joan litekeena; eta horren zehaztasuna eta osotasuna direla medio, probetxua ezezik nolabaiteko edertasuna ere izango luke, horren baitan aurkituko litzatekeen sistematikotasunaren bertutez.

17 Esaterik balego, zientzia bat erreala dela gutxienez gizaki guztien ideian, xedatzen denetik aurrera, ezen horretara daramaten problemak giza arrazoiaren izaerak edozeini planteatzen dizkionak direla, eta horregatik ezinbestekoa dela entseiu asko eta asko egitea, nahiz eta hauek akastunak izan, orduan era berean esan beharko da: Metafisika erreala dela subjektiboki (eta derrigorrezko moduan gainera), eta orduan arrazoiarekin galdetuko dugu guk, ea hori (objektiboki) nola den posible?

18 Judizio disjuntiboan zatituta bezala kontsideratzen dugu guk edozein posibilitate, kontzeptu jakin bati buruz. Gauza orokor bat unibertsalki determinatzeko printzipio ontologikoa (predikatu kontraesanezko posible guztietatik bakarra tokatzen zaio gauza bakoitzari), bera da aldi berean judizio disiuntibo guztien printzipioa, eta posibilitate ororen muina dauka oinarritzat, non edozein gauza orokorren posibilitatea determinagarritzat jotzen den. Honek esplika dezake pixka bat lehengo frasa: alegia, berdinak direla, formaren aldetik arrazoi-silogismo disjuntiboetako arrazoi-iharduna eta Metafisikak errealitate guztien multzo-ideia sortzeko erabiltzen duena, ba ideia honexek jasotzen du beragan elkarren artean kontraesanezko diren predikatu guztien positibokia.

19 Apertzepzioaren errepresentazioa, Nia, kontzeptu bat balitz, bere bidez zerbait pentsatzeko balioko lukeena, orduan beste gauza batzuen predikatu bezala erabilia izateko ere balioko luke, edo bere baitan izango lituzke horrelako predikatuak. Baina hori izan, existentzia baten sentsazioa besterik ez da, kontzeptu txikienik ere gabe, eta pentsamendu orok zer begiztatzen duen (relatione accidentis), haretxen errepresentazio besterik ez da.

20 Benetan harrigarria da, zeinen axaetik eta axolakabe pasatu izan diren metafisikariak substantzien iraupen-printzipio honetatik, inoiz ere horrentzat frogarik bilatzen saiatu gabe; eta, zalantzarik gabe, hori izan da, substantzia kontzeptuari ekiten zioten bakoitzean, froga guztiek abandonaturik aurkitzen zirelako. Zentzu komunak ederki ulertzen zuen, ezen presupostu hau gabe ez zegoela esperientzia bateko hautemapenak

bateratzerik, eta postulatu batekin ordeztu zuen horren falta. Ba esperientziatik bertatik ezin zuen zentzu komunak horrelako printzipiorik inola ere atera, zatizki, ezin dituelako materialak (substantziak) segitu beren aldaketa eta deskonposizioetan harik eta gaia bere egoera integroan aurkitu arte, eta, zatizki, printzipioak derrigortasuna inkluditzen duelako, eta hau apriorizko printzipio baten seinale da beti ere. Eta hala, gero beldurrik gabe, arimaren kontzeptuari, substantzia denez, aplikatu zioten printzipio hau, eta ondoriotu zuten, derrigor giza heriotzaren ondoren iraun beharrekoa zela hori (batik bat, zeren substantzia honen bakuntasunak, kontzientziaren zatiezintasunetik ondoriotzen zenak, arima deskonposizioz desagitetik libratzen zuelako). Printzipio honen benetako iturria aurkitu izan balute, baina honek haiek egin gogo zituzten azterketak baino askoz ere sakonagoak eskatzen zituen, orduan ikusiko zuten: ezen substantzien iraunkortasun-lege hau esperientziaren alorrean bakarrik betetzen dela, eta horregatik gauzentzat bakarrik balio duela, hauek esperientzian arrezagutu eta beste batzuekin lotu beharrekoak diren neurrian, baina inola ere ez duela balio edozein esperientzia posibletan hauteman gabe dauden gauzentzat; eta, beraz, arimarentzat ere ezin duela balio hilda gero.

²¹ Gustatuko litzaidake, beraz, irakurle kritikoa antinomia honetaz bereziki arduratuko balitz, zeren badirudi naturak berak ipini duela hori, arrazoiak bere asmo-uzi ausartetan zalantzarazteko eta bere burua probatzera behartzeko. Hitz ematen dut, ezen bai tesiarentzat eta bai antitesiarentzat eman ditudan frogak denak justifikatuko ditudala eta horrela arrazoiaren antinomia itzuriezinaren ziurtasuna demostratuko dudala. Baina baldin eta irakurlea fenomeno harrigarri horrek eraginik, oinarrian dagoen aurre-supostua frogatzeraino itzuliko balitz, orduan behartuta sentituko litzateke, arrazoi hutsaren edozein ezagutzaren lehen oinarriak nirekin sakonago aztertzea.

²² Libertatearen ideia, intelektualkiak, kausa bezala, fenomenoarekin, efektu bezala, duen erlazioan bakarrik aurkitzen da. Horregatik ezin diogu materiari libertaterik esleitu, bere espazioa betetzeko erabiltzen duen etengabeko ihardun horretan, nahiz eta ekintza hori barneko printzipio batetik sortua izan. Era berean, libertate-kontzeptu egokirik ere ezin dugu aurkitu adimen-izaki hutsentzat, adib., Jainkoarentzat, horren ekintza inmanentea den neurrian. Ba horren iharduna, kanpo-kausa determinatzaileetatik independentea bada ere, determinatua dago horren betiko arrazoiaren eta (beraz) horren jainko-izaeran. Zerbait ekintza baten bidez hasi behar denean eta, ondorioz, efektua denboraren segidan, beraz sentimen-munduan, aurkitu beharrekoa denean (adib. munduaren hasiera), orduan planteatzen da galdera, ea kausaren kausalitateak berak ere hasierarik izan behar ote duen, ala gauza den kausa efekturik izateko, bere kausalitateak berak hasierarik izan gabe. Aurreneko kasuan, kausalitate horren kontzeptua derrigortasun naturalaren kontzeptua da, bigarren kasuan, libertatearen kontzeptua. Hemendik ikusiko du irakurleak, ezen, nik libertatea egitate bat berez hasiarazteko ahalmen bezala esplikatzen nuenean, zehatz-mehatz ukitzen nuela metafisikaren problema den kontzeptua.

²³ Horregatik esaten du txorrotx Platner jaunak bere aforismoetan (§ 728, 729): "Arrazoiak irizpide bat baldin bada ezin daiteke kontzepturik egon giza arrazoiak ulertu ezin duenik. -Errealkian bakarrik egon daiteke ulertuezinekoric. Hor ere, berriz, ikasitako ideien askiezagatik sortzen da ulertuezintasuna". -Paradoxazkoa baino ez dirudi, baina bestalde ez da harritzekoa esatea, ezen naturan gauza asko daudela guk ulertu ezin ditugunak (adib., bizia sortzeko ahalmena); baina gorago jotzen badugu eta natura baino harago joaten bagara, dena egiten zaigu berriro ulergarri; ba orduan erabat uzten ditugu eman dakizkigukeen objektuak eta ideiekin bakarrik aritzen gara; ideietan, berriz, ederki batean uler genezake arrazoiak ideia horien bidez adimenari manatzen

dion legea, honek esperientzian erabili dezan, ba arrazoiaren produktu propioa da lege hori.

²⁴ Eta hala, analogia bat dago giza ekintzen zuzenbidezko erlazioaren eta indar mugitzaileen erlazio mekanikoaren artean: nik ezin dut beste baten kontra ezer egin, hari eskubide eman gabe, baldintza berdinetan, egin dezala beste hainbeste nire kontra; era berean, gorputz batek ezin dio bere indar mugitzailearekin beste bati eragin, ondorioz, beste honek neurri berean haren kontra eragin gabe. Hemen oso gauza bestelakoak dira eskubidea eta indar mugitzailea, baina erabateko antza dago beren erlazioan. Horregatik, holako analogia bati esker, erlazio-kontzeptu bat eman dezaket nik batere ezagutzen ez ditudan gauzei buruz. E. b., umeen zorianarentzat = a gurasoen maitasuna zer den = b, horixe da gizadiaren ongizatearentzat = c Jainkoa baitako ez-ezagunkia = x, guk maitasun deitzen duguna; eta hori, ez maitasun horrek giza grinaren batekin inolako antzik duelako, baizik eta guk, munduarekin duen erlazioa eta munduko gauzek elkarren artean dutena antzekotzat eman genitzakeelako. Hala ere, erlazio-kontzeptua kategoria hutsa da hemen, hots kausa-kontzeptua, eta honek ez dauka zerikusirik sentsibilitatearekin.

²⁵ Hona nik esan: Kausa gorenaren kausalitatea munduarentzat zer den, horixe da giza arrazoa bere arte-lanentzat. Hala ere, ezezagun gelditzen da niretzat kausa gorenaren beraren izaera: nik egiten dudana ez da besterik: nik ezagutzen dudana haren efektua (mundu-ordena) eta haren arrazoizkotasuna konparatzen ditut, nik ezagutzen ditudan giza arrazoiaren efektuekin, eta kausa goren hori arrazoi deitzen dut, baina horregatik, nik esamolde horren azpian gizakiagan ulertzen dudana, edo bestela nik ezagutzen dudana edozer, horri berekitasuntzat aplikatu gabe.

²⁶ Nire etengabeko asmoa izan da Kritikan zehar, arrazoi hutsaren izaeraren ikerketa hobe zezakeenik ezertxo ere galtzen ez uztea, ezta hori ezkuterik ezkutuenean egongo bazen ere. Gero norberaren gogara gelditzen da, zenbateraino sakondu nahi duen bakoitzak bere azterketa, behin erakutsi zaionean, zein diren oraindik egiteko moduan dauden azterketak; ba hauxe da zerarengandik bidezki espero izan daitekeena, zeinak bere asmoz hartu baitu alor hau guztia mugatzea, gero alorra landu eta norberaren gogara partitzeko ardura beste batzuen eskutan uzteko. Horixe da bi eskolioen tokia ere, beren elkorren elkorrez nekez baitira afizionatuei gomendatzeko modukoak, eta horregatik adituentzat bakarrik azaldu dira.

²⁷ Inola ere ez goimailako. Dorre altuak eta horien antzeko diren Metafisikako gizon handiak, bi horien inguruan haize handia ibiltzen baita gehienetan, horiek ez dira niretzat. Nire lekua, esperientziaren Bathos emankorra da, eta transzendental hitzak, zeinaren esanahia, nik hainbeste bider aditzera eman dudana, ulertu ere ez baitu egin kritikoak (holakoxe axailetik aztertu du hark dena), esan nahi du, ez edozein esperientzia baino harago dagoen zerbait, baizik eta, esperientziaren aurretik (a priori) doan arren, esperientziatzko ezagutza posible egitea beste helbururik ez duena. Kontzeptu hauek esperientzia baino harago badoaz, orduan esaten da, horien usaera transzendentea dela eta berezi egiten da usaera imanentetik, hau da, esperientziara mugatzen den hartatik. Nahiko ahaleginak egin dira idazlanean zehar honelako interpretazio okerrak baztertzeko: kritikoak bakarrik aurkitu du abantailarik interpretazio okerretan.

²⁸ Benetako idealismoak helburu ameslaria izan du beti, eta izan ere ezin du besterik eduki; baina nireak bilatzen duen bakarra da, ulertzea, ea nola den posible guk esperientziako objektuak a priori ezagutzea; problema hau, berriz, oraindik soluzionatu gabe dago eta are oraindik planteatu ere egin gabe. Horregatik amiltzen da goitik behera idealismo ameslari guztia, zeinak beti (Platonengan ere ikus daitekeenez) gure apriorizko ezagutzetatik, baita geometriazkoetatik ere) sentimenezkoa ez den beste

intuizio bat (intelektuala alegia) ondoriotzen baitzuen, inori bururatu ez zitzaiolako, ezen sentimenek ere a priori behar zutela intuitu.

²⁹ Kritikoa, gehienez, bere itzalarekin ibiltzen da borrokan. Nik esperientziaren egia ametsari kontrajartzen diodanean, hark ez du batere pentsatzen, ezen Wolff-en filosofiako

somnium objective sumptum ezagun hartaz dela hemen autua; amets hori, berriz, formala da soilik, eta bertan ez da batere begiesten lotan eta esnai egotearen arteko diferentziarik; izan ere, hori filosofia transzendental batean ez baita kontsideratu beharrekoa. Gainera, nire kategorien dedukzioa eta adimen-printzipioen taulak hola deitzen ditu: "idealisten moduan adierazita dauden logika eta ontologiako printzipio orokorki ezagunak". Aski du irakurleak puntu hauetaz Prolegomenoak kontsultatzea konbentziturik gelditzeko, ezin dela judizio ziztrinagorik eta historikoki aldrebesagorik eman.